



Banaketa mugatua
2012ko ekainaren
19a
Gaztelaniaz
Jatorrizkoa:
ingelesez

* Euskarazko bertsioa itzulpen ez-ofiziala da

Rio de Janeiro (Brasil)
2012ko ekainaren 20tik 22ra

10. gaia Konferentziaren amaierako dokumentua

Nahi dugun etorkizuna

I. Gure ikuspegi komuna

1. Gu, estatu- eta gobernu-buruok eta goi-mailako ordezkariok, Rio de Janeiron (Brasil) bildu gara 2012ko ekainaren 20tik 22ra, gizarte zibilaren partaidetza osoa gure alde dugula, eta garapen iraunkorraren aldeko konpromisoa berritzen dugu, baita gure planetarentzat eta egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik iraunkorra izango den etorkizun bat sustatzeko konpromisoa ere.
2. Pobrezia desagerraraztea da gaur egun munduak duen arazo nagusia, eta garapen iraunkorrerako ezinbesteko baldintza da, gainera. Gai horri dagokionez, gizadia pobreziatik eta gose gorritik lehenbailehen askatzeko gogo bizia dugu.
3. Hortaz, baiesten dugu garapen iraunkorra are eta gehiago txertatu behar dugula maila guztietan, ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari dagozkien alderdiak bateratuz eta haien arteko loturak aintzatetsiz, garapen iraunkorra dimentsio guztietan lortzeko.
4. Baiesten dugu garapen iraunkorraren helburu nagusiak eta ezinbesteko baldintzak direla pobrezia desagerraraztea, ezin iraunezko produkzio- eta kontsumo-aukerak aldatu eta aukera iraunkorrak sustatzea, eta garapen ekonomiko eta sozialerako natura-baliabideen oinarria babestea eta antolatzea. Halaber, berresten dugu garapen iraunkorra lortu behar dela hazkunde jarraitua, inklusiboa eta bidezkoa sustatuz, pertsona guztientzako aukera hobek sortuz, desberdintasunak murriztuz, oinarrizko bizitza-mailak hobetuz, bidezko gizarte-garapena eta inklusioa bultzatuz, eta natura-baliabideen eta ekosistemen antolamendu integratua sustatuz, lagungarria izan dadin, besteak beste, garapen ekonomiko eta sozialerako eta giza garapenerako, eta, aldi berean, ekosistemak kontserbatzeko, birsortzeko, lehengoratzeko eta erresilientzia bideratzeko, sortu berri diren arazoetara eta agertzen ari direnei aurre egite aldera.

* Arrazoi teknikoengatik 2012ko ekainaren 22an berriro argitaratua.

5. Berresten dugu konpromisoa hartu dugula eta ahalegina egingo dugula nazioartean hitzartutako garapen-helburuak –2015erako Milurtekoko Garapen Helburuak barne hartuta– lortzeko prozesua bizkortu dadin.
6. Baiesten dugu pertsonak direla garapen iraunkorraren muina, eta, horren haritik, mundu bidezko, ekitatibo eta inklusibo bat lortzen ahalegintzen gara. Halaber, hazkunde ekonomiko jarraitua eta inklusiboa, gizarte-garapena eta ingurumena babestea sustatzeari begira lan egiteko konpromisoa hartzen dugu, pertsona guztien mesederako izango baita.
7. Berresten dugu Nazio Batuen Gutunean jasotako xede eta printzipioek gidatzen gaituztela, eta nazioarteko zuzenbidea eta haren printzipioak bete-betean errespetatzen ditugula.
8. Halaber, berresten dugu garrantzitsuak direla askatasuna, bakea eta segurtasuna, baita giza eskubide guztiak errespetatzea ere, hala nola garapenerako eskubidea eta bizitza-maila egokia izateko eskubidea, baita elikagaiak izateko eskubidea, zuzenbide-estatua, generoen arteko berdintasuna, emakumeen ahalduntzea, eta garapenerako gizarte bidezko eta demokratikoak lortzeko konpromisoa ere.
9. Berresten dugu garrantzitsua dela Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, baita giza eskubideei dagozkien gainerako nazioarteko tresnak eta nazioarteko zuzenbidea ere. Azpimarratzen dugu estatu guztien ardura dela, Nazio Batuen Gutunaren arabera, pertsona guztien giza eskubideak eta funtsezko askatasunak errespetatzea, babestea eta sustatzea, eta inor ez bereiztea aitzakiatzat hartuta haren arraza, larrukolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politika-iritzia edo beste edozein iritzi, sorteria edo gizarte-jatorria, ekonomia-maila, jaiotza, ahalmen-urritasuna edo beste edozein arrazoi.
10. Baiesten dugu garapen iraunkorrerako funtsezkoak direla demokrazia, gobernantza egokia eta zuzenbide-estatua –nazioetan nahiz nazioartean–, baita inguru onuragarri bat izatea ere; betiere, hazkunde ekonomiko jarraitua eta inklusiboa, gizarte-garapena, ingurumena babestea, eta pobrezia eta gosea desagerraraztea barne hartuta. Berresten dugu garapen iraunkorrerako ditugun helburuak lortzeko erakunde eraginkor, garden, arduratsu eta demokratikoak behar ditugula maila guztietan.
11. Berresten dugu konpromisoa dugula nazioarteko lankidetza sendotzeko, pertsona guztientzako garapen iraunkorrari loturiko etengabeko arazoei aurre egite aldera. Ildo horretan, berresten dugu premiazkoa dela lortzea egonkortasun ekonomikoa, hazkunde ekonomiko jarraitua, gizarte-ekitatearen sustapena eta ingurumena babestea, eta,aldi berean, premiazkoa dela areagotzea generoen arteko berdintasuna, emakumeen ahalduntzea eta pertsona guztientzako aukera-berdintasuna, eta haurrak babestea eta bizirik irautea eta beren potentzial guztiak garatzea, are hezkuntzaren bidez ere.
12. Erabaki dugu garapen iraunkorra lortzeko urgentziazko neurriak hartzea. Beraz, garapen iraunkorraren aldeko konpromisoa berritzen dugu, eta, horretarako, garapen iraunkorrari buruzko gailur nagusien emaitzak aplikatzeari dagokionez orain arte egindako aurrerabideak eta oraindik

egiteko daudenak ebaluatuko ditugu, eta sortu berri diren arazoei eta agertzen ari direnei aurre egingo diegu. Adierazten dugu erabaki sendoa hartu dugula Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Konferentziako gaiak jorratzeko; alegia, batetik, ekonomia berdea, garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan, eta, bestetik, garapen iraunkorrerako erakunde-esparrua.

13. Baiesten dugu garapen iraunkorrerako funtsezkoa dela pertsonen beren bizitzan eta etorkizunean eragiteko aukera izatea, erabakietan parte hartzea eta kezkak azaltzeko aukera izatea. Azpimarratzen dugu garapen iraunkorrek urgentziazko neurri zehatzak behar dituela. Eta hori lortzeko bide bakarra da aliantza handi bat sortzea pertsonen, gobernuen, gizarte zibilaren eta sektore pribatuaren artean, eta elkarrekin lanean jardutea egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat nahi dugun geroa lortzeko.

II. Konpromiso politikoa berritzea

A. Rioko printzipioen eta aurreko ekintza-planen berrespena

14. Gogoan dugu Giza Ingurumenari buruzko Nazio Batuen Konferentziako Stockholmeko Adierazpena, 1972ko ekainaren 16an Stockholmen onetsia.

15. Berresten ditugu Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Adierazpenean jasotako printzipio guztiak; erantzukizun komun baina bereiziei buruzkoa –Rioko Adierazpenaren 7. printzipioan ezarria– barne hartuta, besteak beste.

16. Berresten dugu honako ekimen hauek oso-osorik aplikatzeko konpromisoa: Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Adierazpena, 21 Programa, 21 Programa gauzatzeko plana, Garapen Iraunkorrari buruzko Mundu Gailurreko Erabakiak Aplikatzeko Plana (Johannesburgeko Erabakiak Aplikatzeko Plana), Garapen Iraunkorrari buruzko Johannesburgeko Adierazpena (Garapen Iraunkorrari buruzko Mundu Gailurrean egina), Garapen Bidean Diren Uharte Estatu Txikien Garapen Iraunkorrerako Ekintza Programa (Barbadosko Ekintza Programa), eta Maurizioko Estrategia (Garapen Bidean Diren Uharte Estatu Txikien Garapen Iraunkorrerako Ekintza Programa gauzatzea du helburu). Halaber, berresten dugu honako ekimen hauek oso-osorik aplikatzeko konpromisoa: gutxien aurreratuta dauden herrialdeen aldeko Ekintza Programa 2011-2020 hamarkadarako (Istanbulgo Ekintza Programa), Almatyko Ekintza Programa (itsasertzik gabeko herrialdeen premia berezien arreta, garapen-bidean dauden eta itsasertzik ez duten herrialdeentzako eta iragate-herrialdeentzako garraio-alorreko lankidetzarako mundu-esparru berriaren barruan), Afrikako Garapen Premiei buruzko Adierazpen Politikoa; eta Afrikaren Garapenerako Aliantza Berria. Halaber, gogoan ditugu ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren alorrean Nazio Batuek egindako konferentzia eta gailur guztien emaitzekiko konpromisoak, honako hauek barne hartuta: Nazio

Batuen Milurtekoko Adierazpena, 2005eko Mundu Gailurreko amaierako dokumentua, Garapenerako Finantziario buruzko Nazioarteko Konferentziako Monterreyko Hitzarmena, Garapenerako Finantziario buruzko Dohako Adierazpena, Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko Nazio Batuen Batzar Nagusiko goi-mailako osoko bilkuraren amaierako dokumentua, Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren Ekintza Programa, Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren Ekintza Programa gauzatzen jarraitzeko funtsezko neurriak, eta Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma.

17. Baiesten dugu Rioko hiru hitzarmenek garrantzia dutela garapen iraunkorraren sustapenerako, eta, horri dagokionez, alderdi guztiei eskatzen diegu oso-osorik betetzeko honako hitzarmen hauen bidez hartutako konpromisoak: Aldaketa Klimatikoari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena, Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmena, eta Lehorte Larriak edo Basamortutzeak Kaltetutako Herrialdeen –bereziki, Afrikako herrialdeen– Basamortutzearen aurkako Nazio Batuen Konbentzioa; betiere, bakoitzaren printzipio eta xedapenen arabera. Halaber, eskatzen diegu neurri eraginkor eta zehatzak hartzeko, maila guztietan, eta nazioarteko lankidetzari biziagotzeko.

18. Gure asmo sendoa da borondate politikoa biziberritzea eta nazioarteko komunitatearen konpromiso-maila handitzea, garapen iraunkorraren agenda aurrera eramateko, nazioartean adostutako garapen-helburuak lortzearen bitartez (besteak beste, Milurtekoko Garapen Helburuak). Gainera, berresten ditugu nazioartean 1992tik aurrera beste helburu batzuen kariatara adostutako beste konpromiso batzuk ere, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren alorrekoak. Horrenbestez, garapen iraunkorari buruzko konpromisoak abian jartzea bizkortzeko neurri zehatzak hartzea erabaki dugu.

B. Integrazioaren, aplikazioaren eta koherentziaren sustapena: garapen iraunkorari buruzko gailur nagusien emaitzak aplikatzeari dagokionez orain arte egindako aurrerabideen eta oraindik egiteko dauden ebaluazioa, eta sortu berri diren arazoaren eta agertzen ari diren konponbidea

19. Baiesten dugu aurrerabideak desberdinak izan direla 1992ko Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziaz geroztik igaro diren 20 urteotan, are garapen iraunkorari eta pobrezia desagerrarazteari dagokionez ere. Aurreko konpromisoen aplikazioan aurrera egiteko premia azpimarratzen dugu. Gainera, baiesten dugu aurrerabideak bizkortu egin behar direla herrialde garatuen eta garapen-bidean dauden herrialdeen arteko desberdintasunak ezabatzeko prozesuan, eta garapen iraunkorra lortzeko aukerak baliatu behar direla hazkunde ekonomikoaren eta dibertsifikazioaren, gizarte-garapenaren eta ingurumena babestearen bitartez. Helburu hori aintzat hartuta, azpimarratzen dugu oraindik ere premiazkoa dela nazioetan eta nazioartean inguru onuragarriak eratzea, baita nazioarteko lankidetzari etengabe eta sendotu bat bultzatzea ere; batez ere, finantzen, zorraren,

20. Baiesten dugu 1992tik aurrera egindako aurrerabideak ez direla nahikoak izan, eta eragozpenak sortu direla garapen iraunkorraren hiru dimentsioen integrazioaren zenbait alderditan; gainera, hainbat krisialdi finantzario eta ekonomiko, elikadura-krisialdi eta krisialdi energetiko izan direnez, arazo horiek larriagotu egin dira, eta kolokan jarri dute herrialde guztiek garapen iraunkorra lortzeko duten gaitasuna; bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeen gaitasuna. Gai horri dagokionez, funtsezkoa da Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren emaitzekin hartu genuen konpromisoan atzera ez egitea. Gainera, baiesten dugu herrialde guztien, eta, bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeen gaur egungo arazo nagusienetako bat dela, hain zuzen, gaur egun munduan eragina duten hainbat eta hainbat krisiren inpaktua.

21. Kezka handia sortzen digu oraindik ere planeta honetako bost pertsonatik bat –hau da, 1.000 milioi pertsona baino gehiago– izugarriko pobrezian bizitzeak, eta zazpi pertsonatik bat edo populazioaren % 14 elikatu gabe egoteak; gainera, osasun publikoaren alorreko zenbait arazo –pandemiak, epidemiak eta abar– mehatxu dira gaur egun ere, nonahi. Testuinguru horretan, gogoan ditugu Batzar Nagusian giza segurtasunari buruz une honetan izaten ari diren eztabaidak. Munduak 2050erako 9.000 milioi biztanle izango dituela kalkulatzen denez eta populazio horren bi heren hirietan biziko direla aurreikusita dagoenez, baiesten dugu garapen iraunkorra lortzeko ahaleginak biziagotu behar ditugula, eta, bereziki, pobrezia, gosea eta saihestu daitezkeen gaixotasunak desagerrarazi behar ditugula.

22. Baiesten dugu garapen iraunkorraren alorreko aurrerabideen adibideak badaudela eskualde-, nazio-, azpinazio- eta toki-mailan. Ikusten dugu garapen iraunkorra lortzeko bidean egindako ahaleginak jasota daudela eskualde-, nazio- eta azpinazio-mailako politika eta planetan, eta gobernuek garapen iraunkorraren aldeko konpromisoa handiagotu dutela 21 Programa onetsi zenetik, legedien eta erakundeen bidez, eta nazioarteko, eskualdeko eta azpieskualdeko akordio eta konpromisoen aplikazioaren bitartez.

23. Berresten dugu garrantzitsua dela garapen-bidean dauden herrialdeei laguntzea, pobrezia desagerrarazteko eta pobreen nahiz egoera zaugarrian dauden pertsonen ahalduntzea sustatzeko zereginetan, bitarteko hauek baliatuz, besteak beste: aukerak izateko eragozpenak kentzea, produkzio-gaitasuna handitzea, iraunkortasuna bermatzen duen nekazaritza bat garatzea, eta enplegu osoa eta ekarkorra eta pertsona guztientzako lan duina sustatzea, gizarte-politika eraginkorraz osaturik,

nazioartean adostutako garapen-helburuak lortzeko, Milurtekoko Garapen Helburuak barne hartuta.

24. Gure kezka bizia adierazten dugu, langabezia- eta azpienplegu-tasak handiak baitira –batez ere, gazteen artean–, eta nabarmentzen dugu garapen iraunkorra lortzeko estrategiak aplikatu behar direla gazteen enpleguari proaktiboki ekiteko. Gai horri dagokionez, baiesten dugu gazteriari eta enpleguari buruzko mundu-estrategia bat eratzeko premia dagoela, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) egitekoa oinarri hartuta.

25. Baiesten dugu aldaketa klimatikoak sektorearteko krisi etengabea dakarrela, eta gure kezka adierazten dugu, aldaketa klimatikoaren ondorio kaltegarri handi eta larriek herrialde guztiak kaltetzen dituztelako, haien guztien gaitasuna ahultzen dutelako –bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetan– garapen iraunkorra eta Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko bidean, eta nazioen bideragarritasuna eta biziraupena arriskuan jartzen dutelako. Hortaz, azpimarratzen dugu aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko urgentziazko eta asmo handiko neurriak behar direla, Aldaketa Klimatikoari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren printzipio eta xedapenei jarraituz.

26. Estatuari hertsiki eskatzen diegu ez hartzeko nazioarteko zuzenbidearekin eta Nazio Batuen Gutunarekin bat ez datorren aldebarreko neurri ekonomiko edo finantzariorik edo merkataritza-neurririk, garapen ekonomiko eta sozial osoa eragozteko baldin badaukate –bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetan–.

27. Berresten dugu Johannesburgeko Erabakiak Aplikatzeko Planean, 2005eko Mundu Gailurreko amaierako dokumentuan eta Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko Batzar Nagusiko goi-mailako osoko bilkuraren amaierako dokumentuan adierazitako konpromisoa; alegia, neurri berriak eta ekintza eraginkorrak abian jartzea, nazioarteko zuzenbideari jarraituz, eragozpenik izan ez dadin okupazio kolonialaren edo atzerriko okupazioaren menpean bizi diren herriek determinazio askerako duten eskubidea bete-betean gauzatzeko. Izan ere, okupazioek eragin negatiboa dute herri horien garapen ekonomiko eta sozialean, baita ingurumenean ere, eta bateraezinak dira gizakien duintasun eta balioarekin; horrenbestez, haien aurka egin eta desagerrarazi behar dira.

28. Berresten dugu, Nazio Batuen Gutunari jarraituz, ez dugula onartuko adierazpen horrek baimentzen edo bultzatzen duenik estatuen lurralde-osotasuna edo independentzia politikoa kaltetuko duen ekintzaren bati ekitea.

29. Erabaki dugu neurri berriak eta ekintza eraginkorrak abian jartzea, nazioarteko zuzenbideari jarraituz, larrialdi humanitario konplexuek eragindako eremuetan nahiz terrorismoak eragindako eremuetan bizi diren populazioei laguntza sendoagoa emateko eta haien premia bereziak asetzeko.

30. Baiesten dugu pertsona asko –batez ere, pobreak– zuzen-zuzenean ekosistemen mende daudela, bai bizirik irauteko, bai ongizate ekonomiko,

sozial eta fisikoa lortzeko, bai kultura-ondareari eusteko. Horregatik, funtsezkoa da bizitza-mailen arteko desberdintasunak murriztuko dituzten enplegu eta diru-sarrera duinak sortzea, iraunkortasuna bideratuko duten biziraute-praktika eta -bitartekoak sustatzea, eta natura-baliabideak eta ekosistemak iraunkortasunaren ikuspegitik erabiltzea bultzatzea.

31. Azpimarratzen dugu garapen iraunkorrek prozesu inklusiboa izan behar duela, pertsonak ardatz hartzen dituen, guztion onurarako eta partaidetzarako, gazteak eta haurrak barne hartuta. Baiesten dugu generoen arteko berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea garrantzitsuak direla garapen iraunkorrerako eta gure etorkizun komunerako. Berresten ditugu gure konpromisoak, emakumeei bermatu nahian parte hartzeko eta buru izateko eskubide, sarbide eta aukera berak dituztela ekonomian, gizartean eta erabaki politikoak hartzeko garaian.

32. Baiesten dugu herrialde bakoitzak berariazko zailtasunei aurre egin behar diela garapen iraunkorra lortzeko, eta azpimarratzen ditugu herrialde zaugarriek dituzten zailtasun bereziak; bereziki, Afrikako herrialdeek, gutxien aurreratuta dauden herrialdeek, garapen-bidean dauden eta itsasertzik ez duten herrialdeek, eta garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiek. Halaber, diru-sarrera ertaineko herrialdeek berariazko zailtasunak dituzte. Gainera, gatazka-egoerak bizi dituzten herrialdeek arreta berezia behar dute.

33. Berresten dugu konpromisoa dugula eta urgentziazko neurri zehatzak hartuko ditugula garapen-bidean dauden uharte-estatu txikien zaugarritasunari aurre egiteko –besteak beste, Barbadosko Ekintza Programa eta Maurizioko Estrategia aplikatzearen bidez–, eta azpimarratzen dugu urgentziazkoa dela konponbide berri adostuak bilatzea garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiek dituzten zailtasun larrientzako, Barbadosko Ekintza Programa eta Maurizioko Estrategia aplikatzearen ondorioz lortutako bulkadari eusten eta garapen iraunkorrera iristen laguntze aldera.

34. Berresten dugu Istanbulgo Ekintza Programan zehazten direla garapen iraunkorraren alorrean gutxien aurreratuta dauden herrialdeen lehentasunak, eta mundu-aliantza berri eta sendotu baterako esparrua definitzen dela lehentasun horiei aurre egiteko. Istanbulgo Ekintza Programaren aplikazioan gutxien aurreratuta dauden herrialdeei laguntzeko eta garapen iraunkorra lortzea helburu duten jardueretan haiei laguntza emateko konpromisoa hartzen dugu.

35. Baiesten dugu Afrikari arreta handiagoa eman behar zaiola, eta Nazio Batuen gailur eta konferentzia nagusietan aplikatu behar direla Afrikaren garapen-premiei buruz lehendik adostutako konpromisoak. Ikusten dugu Afrikari emandako laguntza handitu egin dela azken urteotan. Hala ere, lehendik hartutako konpromisoen oso azpitik dago oraindik ere. Azpimarratzen dugu funtsezko lehentasun bat dela nazioarteko komunitateari laguntza ematea, Afrikan garapen iraunkorra lortzeko egiten ari den ahaleginari euste aldera. Horri dagokionez, Afrikak garapenaren alorrean dituen premiei buruz nazioartean adostutako eginbideak oso-oso betetzeko konpromisoa hartzen dugu berriz ere; bereziki, Nazio

Batuen Milurtekoko Adierazpenean, Afrikaren Garapenerako Aliantza Berriari buruzko Nazio Batuen Adierazpenean, Monterreyko Hitzarmenean, Johannesburgeko Erabakiak Aplikatzeko Planean eta 2005eko Mundu Gailurreko amaierako dokumentuan zehaztutakoak, baita Afrikak garapenaren alorrean dituen premiei buruzko 2008ko adierazpen politikoan ageri direnak ere.

36. Baiesten dugu garapen-bidean dauden eta itsasertzik ez duten herrialdeek eragozpen larriak dituztela garapen iraunkorraren hiru dimentsioak lortzeko. Horri dagokionez, berresten dugu konpromisoa hartu dugula garapen-bidean dauden eta itsasertzik ez duten herrialdeen garapen-premia berezietan eta herrialde horiek aurre egin beharreko zailtasunez arduratzeko, Almatyko Ekintza Programarako aldiaren erdialdeko azterketari buruzko adierazpenean ageri den Almatyko Ekintza Programa osorik, une egokian eta eraginkorki aplikatzearen bitartez.

37. Baiesten dugu diru-sarrera ertaineko herrialdeek aurrerabideak egin dituztela herritarren ongizatea hobetzeari dagokionez; halaber, baiesten dugu herrialde horiek berariazko garapen-arazoak dituztela pobrezia desagerrarazteko, desberdintasunak murrizteko eta garapen-helburuak – Milurtekoko Garapen Helburuak barne hartuta– lortzea eta ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren dimentsioak modu zabalagoan integratuko dituen garapen iraunkor bat lortzea xede duten eginkizunak gauzatzeko. Berrito diogu nazioarteko komunitateak eginkizun horri laguntza nahikoa eman behar diola hainbat modutan, herrialde horien premiak eta barne-baliabideak mobilizatzeko gaitasuna kontuan hartuta.

38. Baiesten dugu modu askotarikoagoak ezarri behar direla aurrerabideak neurtzeko, barne-produktu gordinaren osagarri gisa, helburu hartuta informazio hobea eskura izatea politikaren alorreko erabakiak hartzeko. Horri dagokionez, Nazio Batuen Estatistika Batzordeari eskatzen diogu Nazio Batuen sistemaren barruan dagokien erakundeei kontsultatu eta esparru horretan lan-programa bat abian jartzeko, lehendik dauden ekimenak oinarri hartuta.

39. Baiesten dugu Lur planeta eta haren ekosistemak gure bizileku direla eta “Ama Lurra” hainbat herrialde eta eskualdetan erabili ohi den esapidea dela, eta ikusten dugu zenbait herrialdek naturaren eskubideak aintzatesten dituztela garapen iraunkorraren sustapenaren testuinguruan. Ziur dakigu ezinbestekoa dela naturarekiko harmonia sustatzea, bidezko oreka bat lortzeko egungo eta etorkizuneko belaunaldien ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren alorreko premien artean.

40. Garapen iraunkorrerako ikuspegi global eta integratuak hartzeko eskatzen dugu, gizadia naturarekin harmonian bizi dadin, eta Lurreko ekosistemaren egoera eta osotasuna lehengoratzeko neurriak har daitezten.

41. Baiesten dugu munduko aniztasun naturala eta kulturala, eta kultura eta zibilizazio guztiek garapen iraunkorra lortzeko bidean lagundu dezaketela.

C. Talde nagusien eta beste interesdun batzuen parte-hartzea

42. Berresten dugu organo legegileek eta gobernu-organoez funtsezko zeregina betetzen dutela garapen iraunkorraren sustapenean, maila guztietan. Baiesten dugu ahaleginak egin direla eta aurrerabideak gauzatu direla toki- eta azpinazio-mailan, eta baiesten dugu, halaber, agintari eta komunitate horiek zeregin garrantzitsua bete dezaketela garapen iraunkorra gauzatzeko; izan ere, besteak beste, herritarren eta interesdunen parte-hartzea bideratzen dute, eta garapen iraunkorraren hiru dimentsioei buruzko informazio egokia ematen diete herritarrei, kasu-kasuan dagokionaren arabera. Baiesten dugu, gainera, garrantzi handikoa dela gai horren inguruko erabakiak hartzeko ardura duten agintaritzak guztiek parte hartzea garapen iraunkorrerako politiken planifikazioan eta aplikazioan.

43. Azpimarratzen dugu garapen iraunkorra sustatzeko funtsezkoa dela jendearen parte-hartze handia izatea, baita informazioa eskura izatea, eta prozedura judizial eta administratiboetan parte hartzeko aukera izatea ere. Garapen iraunkorrak ezinbestekoa du eskualde-, nazio- eta azpinazio-mailako agintaritzak legegile eta judizialen inplikazio ekarkorra, bai eta talde nagusi guztiena ere: emakumeak, haur eta gazteak, herri indigenak, gobernu kanpoko erakundeak, toki-agintariak, langile eta sindikatuak, enpresak eta industria, komunitate zientifikoa eta teknologikoa, eta nekazariak, baita beste interesdun batzuk ere, hala nola toki-komunitateak, boluntario-taldeak eta fundazioak, migratzaileak, familiak, pertsona adinduak eta ahalmen-urritasunen bat duten pertsonak. Horri dagokionez, adostu dugu lankidetzak estuagoan jardutea talde nagusiekin eta beste talde interesdun batzuekin, eta haien partaidetza aktiboa bultzatzea, egoki denaren arabera, erabaki-hartzean eta garapen iraunkorra maila guztietan sustatzeko politika eta programen planifikazioan eta aplikazioan lagungarriak izango diren prozesuetan.

44. Baiesten dugu gizarte zibilaren eginkizuna, baita garapen iraunkorrean gizarte zibileko kide guztiak aktiboki parte hartzea bultzatzearen garrantzia ere. Halaber, baiesten dugu gizarte zibilaren partaidetza hobetzea honako faktore hauen mende dagoela, besteak beste: informazioa eskurago izatea, gizarte zibilaren ahalmena sendotzea, eta inguru egokiak sortzea. Gainera, baiesten dugu informazioaren eta komunikazioaren teknologiek errazten dutela gobernuen eta herritarren arteko informazio-korrontea. Ildo horretan, ezinbestekoa da informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskurago jartzeko lan egitea –batez ere, banda zabaleko sare eta teknologiei dagokienez–, eta arrail digitala gainditu behar da, gai horretan nazioarteko lankidetzak egindako ekarpena aintzat hartuta.

45. Azpimarratzen dugu emakumeek modu erabakigarrian lagundu dezaketela garapen iraunkorra lortzen. Baiesten dugu emakumeen lidergo-funtzioa, eta erabaki dugu generoen arteko berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea sustatzea eta haien parte-hartze osoa eta eraginkorra bermatzea garapen iraunkorraren alorreko politikan, programetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan, maila guztietan.

46. Baiesten dugu sektore publiko eta pribatuen parte-hartze aktiboa ezinbestekoa izango dela garapen iraunkorra gauzatzeko. Halaber, baiesten dugu sektore pribatuaren parte-hartze aktiboa lagungarria izan daitekeela garapen iraunkorra lortzeko, are sektore publiko eta pribatuen arteko aliantzen bitartez ere, tresna garrantzitsuak baitira. Enpresek eta industriek garapen iraunkorra lortzeko ekimenak sustatzea bideratzen duten nazio-mailako politika- eta araugintza-esparruak babesten ditugu, enpresen erantzukizun sozialaren garrantzia aintzat hartuta. Sektore pribatuari aholkatzen diogu merkataritza-neurri arduratsuak hartzeko; esate baterako, Nazio Batuen Mundu Itunak sustatzen dituenak.

47. Baiesten dugu garrantzitsua dela enpresen iraunkortasunari buruzko txostenak aurkeztea, eta enpresak akuilatzen ditugu –bereziki, burtsan kotizatzen duten sozietateak eta enpresa handiak– egoki denean azter dezaten iraunkortasunari buruzko informazioa txertatzeko aukera beren txostenen aurkezpen-zikloan. Industria, gobernu interesdunak eta dagozkion alderdi interesdunak akuilatzen ditugu jardunbide onenen ereduak presta ditzaten eta iraunkortasunari buruzko txostenak txertatzearen aldeko neurriak har ditzaten, Nazio Batuen sistemaren laguntzarekin, kasuan-kasuan dagozkionaren arabera, lehendik dauden esparruetako esperientziak kontuan hartuta eta garapen-bidean dauden herrialdeen premiei arreta berezia emanez, baita gaitasuna sortzeari dagokionez ere.

48. Baiesten dugu komunitate zientifiko eta teknologikoak ekarpen garrantzitsua egiten diola garapen iraunkorrari. Komunitate akademiko, zientifiko eta teknologikoekin lan egitea eta haien arteko lankidetzak sustatzea erabaki dugu –bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetan–; hartara, garapen-bidean dauden herrialdeen eta herrialde garatuen arteko arrail teknologikoa gaindituko dugu, zientziaren eta politiken arteko lotura sendotuko dugu, eta garapen iraunkorrari buruzko ikerkuntzaren alorreko nazioarteko lankidetzak sustatuko dugu.

49. Azpimarratzen dugu herri indigenen parte-hartzea garrantzitsua dela garapen iraunkorra lortzeko bidean. Halaber, baiesten dugu herri indigenen eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpenaren garrantzia, garapen iraunkorrerako estrategiak mundu-, eskualde-, nazio- eta azpinazio-mailan aplikatzearen testuinguruan.

50. Azpimarratzen dugu garrantzitsua dela gazteek aktiboki parte hartzea erabakiak hartzeko prozesuetan; izan ere, hizpide ditugun gaiek eragin handia dute egungo eta etorkizuneko belaunaldietan, eta haurren eta gazteen ekarpena ezinbestekoa da garapen iraunkorra lortzeko. Halaber, baiesten dugu belaunaldien arteko elkarrizketa eta elkartasuna sustatu behar direla, haien iritziak aintzat hartzearen bitartez.

51. Azpimarratzen dugu langileen eta sindikatuen parte-hartzearen garrantzia garapen iraunkorra lortzeko bidean. Langileen ordezkari diren aldetik, sindikatuak kide garrantzitsuak dira garapen iraunkorra lortzea bideratzeko; bereziki, gizarte-dimentsioari dagokionez. Iraunkortasunaren alorreko informazio, heziketa eta gaitze oro, maila guztietan –lantokia

barne hartuta-, funtsezkoak dira langileen eta sindikatuen gaitasuna sendotzeko, garapen iraunkorren laguntzeari dagokionez.

52. Baiesten dugu nekazariak –nekazari txikiak eta artisau-arrantzaleak, artzainak eta basoginak barne hartuta– asko lagundu dezaketela garapen iraunkorren, ingurumenaren aldetik arrazoizkoak diren, elikadura-segurtasuna eta pobreen bizibideak hobetzea dakarten, eta produkzio eta hazkunde ekonomiko iraunkorra bultzatzen duten produkzio-jardueren bitartez.

53. Ikusten ditugu gobernuz kanpoko erakundeek garapen iraunkorraren sustapenean egin ditzaketan eta egiten dituzten ekarpenak; izan ere, haien esperientziak, gaitasun teknikoak eta ahalmenak askotarikoak dira, eta oso errotuak daude; batez ere, analisisan, informazioaren eta ezagutzaren trukean, elkarriketaren sustapenean, eta garapen iraunkorra gauzatzeko laguntzaren alorrean.

54. Baiesten dugu Nazio Batuek funtsezko zeregina betetzen dutela garapen iraunkorraren agendaren sustapenean. Horri dagokionez, baiesten ditugu, halaber, nazioarteko beste erakunde batzuek gai horren inguruan egiten dituzten ekarpenak, hala nola nazioarteko finantza-erakundeek eta garapen-banku multilateralek, eta nabarmentzen dugu haien arteko elkarlanaren eta Nazio Batuekiko lankidetzaren garrantzia, bakoitzari dagokion agintearen esparruan, garapen iraunkorrerako baliabideen mobilizazioan betetzen duten eginkizuna aintzat hartuta.

55. Konpromisoa hartzen dugu 1992an Rio de Janeiron garapen iraunkorraren alde abian jarritako mundu-aliantza biziberritzeko. Baiesten dugu premiazkoa dela gure elkarlanari bultzada bat ematea garapen iraunkorra bilatzeko zereginen, eta, aplikazioan dauden desfaseak gainditzearren, talde nagusiekin eta beste interesdun batzuekin lankidetzan jarduteko konpromisoa hartzen dugu.

III. Ekonomia berdea, garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan

56. Adierazten dugu herrialde bakoitzak bere ikuspegi, ikusmolde, eredu eta tresnak dituela, egoeraren eta nazio-lehentasunen arabera, garapen iraunkorraren hiru dimentsioak lortzeko, horixe baita gure helburu orokorra. Horri dagokionez, garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan, ekonomia berdea garapen iraunkorra lortzeko tresna garrantzitsuenetako bat delakoan gaude, eta politikak planteatzeko garaian alternatibak eman ditzakeela irizten diogu, baina ez du arau zorrotzen multzo bat izan behar. Azpimarratzen dugu ekonomia berdeak pobrezia desagerrarazteko bidean eta iraunkortasunaren aldeko hazkunde ekonomikoan lagundu behar duela, gizarte-inklusioa handituz, gizakien ongizatea hobetuz, enplegu-aukerak eta guztiontzako lan duinak sortuz eta, aldi berean, Lurreko ekosistemen funtzionamendu osasuntsuari eutsiz.

57. Adierazten dugu ekonomia berdea garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan garatzeko politikek Rioko Printzipioen, 21 Programaren eta Johannesburgeko Erabakiak Aplikatzeko

Planaren arabekoak izan beharko dutela, eta lagungarriak izan beharko dutela nazioartean gai horren inguruan adostutako garapen-helburuak lortzeko –Milurtekoko Garapen Helburuak barne hartuta–.

58. Adierazten dugu ekonomia berdearen aldeko politikek, garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan, ezaugarri hauek izan beharko dituztela:

- a) Nazioarteko zuzenbidearekin bateragarriak izatea.
- b) Herrialde bakoitzak bere natura-baliabideen gain duen nazio-subiranotasuna errespetatzea, haren egoera, helburuak, erantzukizunak, lehentasunak eta ekintza-tartea aintzat hartuta, garapen iraunkorraren hiru dimentsioei dagokienez.
- c) Aldeko inguru baten eta maila guztietan egoki funtzionatzen duten erakundeen laguntza izatea, gobernuari lidergo-funtzioa esleituta, eta dagozkion interesdun guztien partaidetzarekin, gizarte zibila barne hartuta.
- d) Hazkunde ekonomiko jarraitua eta inklusiboa sustatzea, berrikuntza bultzatzea, guztiontzako aukerak, onurak eta ahalduntzea eskaintzea, eta giza eskubideak errespetatzea.
- e) Garapen-bidean dauden herrialdeen premiak kontuan hartzea; bereziki, egoera berezietan dauden herrialdeen premiak.
- f) Nazioarteko elkarlana sustatzea. Lankidetzara horrek barne hartzen ditu, bai finantza-baliabideen horniketa, bai garapen-bidean dauden herrialdeetara teknologia transferitzea eta haien gaitasuna sendotzea.
- g) Eragozpenak jartzea arrazoirik gabeko baldintzarik egon ez dadin garapenerako eta finantziarazko laguntza ofiziala jasotzeko.
- h) Diskriminazio bidegabekeri edo arrazoirik gabekeri ez eragitea, eta nazioarteko merkataritzaren ezkutuko murrizketarik ez izatea; saihestea alde bakarreko neurriak hartzea ingurumenaren alorreko erronkei aurre egiteko herrialde inportatzailearen jurisdikziotik kanpo; eta nazioz gaindiko edo munduko ingurumen-arazoak konpontzea helburu duten neurriak, ahal den heinean, nazioarteko adostasunetan oinarritzen direla bermatzea.
- i) Herrialde garatuak eta garapen-bidean dauden herrialdeen arteko arrail teknologikoa gainditzeko laguntzea eta garapen-bidean dauden herrialdeen mendekotasun teknologikoa murriztea, horretarako egoki diren neurrien bidez.
- j) Herri indigenen eta beren komunitateen, tokiko nahiz tradiziozko beste komunitate batzuen eta gutxiengo etnikoen ongizatea hobetzea, haien identitate, kultura eta interesak aintzatetsiz eta lagunduz. Horrez gain, saihestea haien kultura-ondarea, jarduteak eta ezagutza tradizionalak arriskuan jartzea, eta babestea eta errespetatzea merkatua helburu ez duten eta pobrezia desagerrarazten laguntzen duten ikuspegiak.
- k) Emakumeen, haurren, gazteen, ahalmenekoen, arrantzaileen eta pertsonen, nekazari txikien eta bizirauteko nekazarien, arrantzaleen eta enpresa txiki eta ertainetan dihardutenen ongizatea hobetzea, eta pobreen

eta talde zaugarrien bizibideak eta ahalduntzea hobetzea; bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetan.

l) Emakumeen eta gizonen potentzialari ahalik eta onura handiena ateratzea, eta haien ekarpenak berdintasunez egiten dituztela bermatzea.

m) Garapen-bidean dauden herrialdeetan pobrezia desagerrarazten lagunduko duten produkzio-jarduerak sustatzea.

n) Desberdintasunek eragiten dituzten kezkak aintzat hartzea eta gizarte-inklusioa sustatzea, gizarte-babesaren gutxieneko mailak barne hartuta.

o) Kontsumo- eta produkzio-modalitate iraunkorrak sustatzea.

p) Pobrezia eta desberdintasunak gainditzeko ahaleginari eustea, garapenaren ikuspegi inklusibo eta bidezkoen bitartez.

59. Garapen iraunkorrerako bidean ekonomia berdearen alorreko politikak abian jartzeko ahalegina egiten duten herrialdeen jarduera enpresa komuna delakoan gaude, eta baiesten dugu herrialde bakoitzak ikuspegi egokia hauta dezakeela, garapen iraunkorraren alorrean nazio bakoitzak dituen plan, estrategia eta lehentasunen arabera.

60. Baiesten dugu ekonomia berdeak, garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan, hobetuko duela natura-baliabideak iraunkortasuna bideratzeko moduan kudeatzeko dugun gaitasuna, eta horrek ondorio negatibo gutxiago eragingo dituela ingurumenean, baliabideei onura hobea ateratzea eragingo duela, eta hondakinak murriztuko dituela.

61. Baiesten dugu iraunkortasuna bermatzen ez duten produkzio- eta kontsumo-aukerei buruzko urdazko neurriak hartzea, halakorik gertatuz gero, funtsezkoa baita, oraindik ere, iraunkortasunaren aldeko ingurumenaz arduratzeko, bai eta aniztasun biologikoa eta ekosistemak iraunkortasunaren ikuspegitik kontserbatzea eta erabiltzea, natura-baliabideak birsortzea, eta mundu-mailako hazkunde inklusiboa eta bidezkoa sustatzea.

62. Bultzatzen dugu herrialde bakoitzak aztertzea garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan ekonomia berdearen alorreko politikak ezartzeko aukera, hazkunde ekonomiko eta enplegu-sortze jarraitua, inklusiboa eta bidezkoa bultzatzeko ahalegina eginez; bereziki, emakumeentzat, gazteentzat eta pobreentzat. Horri dagokionez, garrantzitsutzat jotzen dugu bermatzea langileek beharrezko ezagutza teknikoak eskuratzen dituztela, baita hezkuntzaren eta gaitasuna sortzearen bidez ere, eta behar duten gizarte- eta osasun-babesa izatea. Horren haritik, interesdun guztiak bultzatzen ditugu, enpresak eta industriak barne hartuta, ekarpenak egin ditzaten, kasuan-kasuan dagokionaren arabera. Gobernuak eskatzen diegu haien ezagutzak eta estatistikak egiteko gaitasuna hobetzeko, enpleguaren alorreko joera, bilakaera eta murrizketei dagokienez, eta estatistika nazionaletan dagozkion datuak txertatzea, Nazio Batuetako erakunde eskudunen laguntzaz, haien aginteen arabera.

63. Baiesten dugu gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren alorreko faktore guztiak ebaluatzearen garrantzia, eta haiek guztiak erabakiak hartzeko prozesuan integratzea bultzatzen dugu, nazio bakoitzaren egoera eta baldintzek zilegitzen badute. Baiesten dugu garrantzitsua izango dela garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan ekonomia berdearen politikek ekarriko dituzten aukerak eta erronkak kontuan hartzea, baita kostuak eta etekinak ere, eta eskura dauden datu eta azterketa zientifiko hoberenak erabili beharko direla. Baiesten dugu nazio-mailako neurrien konbinazio baten aplikazioak, nazioarteko hitzarmenetan onartutako eginbeharrekin ados –neurri arautzaileak, borondatezkoak eta beste batzuk barne hartuta–, ekonomia berdea susta dezakeela garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan. Berresten dugu gizarte-politikak funtsezkoak direla garapen iraunkorra sustatzeko.

64. Baiesten dugu interesdun guztien parte-hartzeak eta aliantzak, harreman-sareak eta haien arteko esperientzia-trukeak, maila guztietan, Baliagarriak izan daitezkeela herrialdeentzat, elkarrengandik ikas dezaten garapen iraunkorrerako politika egokiak zehazten, ekonomia berdearen alorreko politikak barne hartuta. Herrialde batzuen esperientzia positiboak erreparatu diegu, garapen-bidean dauden herrialdeak ere barne hartuta, garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan ekonomia berdearen alorreko politikak gauzatzeari dagokionez, ikuspegi inklusiboa oinarri hartuta, eta atseginez hartzen dugu esperientzien borondatezko trukea eta garapen iraunkorraren esparru guztietan gaitasuna sortzea.

65. Baiesten dugu komunikazio-teknologiek –konexio-teknologiak eta aplikazio berritzaileak barne hartuta– daukaten indarra garapen iraunkorraren aldeko ezagutzen trukea, lankidetzaren teknika eta gaitasuna sortzea sustatzeko. Teknologia eta aplikazio horiek bideratu dezakete garapen iraunkorraren eremu guztietan argi eta garbi gaitasuna sortzea eta esperientziak eta ezagutzak trukitzea.

66. Baiesten dugu garrantzitsua dela elkarrekin lotzea finantziarioa, teknologia, gaitasuna sortzea, eta garapen iraunkorrerako politiken alorrean –ekonomia berdea barne hartuta, garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan– nazioek dituzten premiak, eta Nazio Batuen sistemari eskatzen diogu koordinazio- eta informazio-eginkizunak bete ditzan, emaleekin eta nazioartearen baitan dagozkion erakundeekin lankidetzan eta interesdunen eskaerei jarraituz, honako zeregin hauei dagokienez:

a) Herrialde interesdunei esleitzea eskatutako laguntza hobekien emateko gaitasuna duten kideak.

b) Tresna multzoak edo jardunbide onenak, ekonomia berdearen alorreko politikak aplikatu daitezkeen garapen iraunkorraren eta pobrezia maila guztietan desagerraraztearen testuinguruan.

c) Garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan, ekonomia berdeari buruzko politiken ereduak edo adibide egokiak.

d) Garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan, ekonomia berdeari buruzko politikak ebaluatzeko metodologiak.

e) Gai horretan lagungarri diren plataformak; lehengoak nahiz berriak.

67. Azpimarratzen dugu garrantzi handikoa dela gobernuak lidergo-funtzioa beren gain hartzea politikak eta estrategiak prestatzeko eginkizunean, prozesu inklusibo eta garden baten bidez. Erreparatzen diegu, halaber, ekonomia berdearen alorreko estrategia eta politika nazionalak prestatzeko prozesuak –garapen iraunkorraren lagungarri gisa– abian jarri dituzten herrialdeen ahaleginei, garapen-bidean dauden herrialdeenak barne hartuta.

68. Dagozkion kideei –Nazio Batuen eskualdeko batzordeak, Nazio Batuen erakunde eta organoak, gobernuarteko eta eskualdeetako beste erakunde eskudun batzuk, nazioarteko finantza-erakundeak eta garapen iraunkorren inplikaturako talde nagusiak barne hartuta– eskatzen diegu, bakoitzaren agintearen arabera, garapen-bidean dauden eta laguntza eskatzen duten herrialdeei garapen iraunkorra lortzen laguntzeko –besteak beste, ekonomia berdearen alorreko politiken bidez–, garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan; bereziki, gutxien aurreratuta dauden herrialdeei.

69. Halaber, enpresei eta industriei eskatzen diegu, dagokienaren arabera eta nazio-mailako legediari jarraituz, garapen iraunkorra lortzen laguntzeko, eta, besteak beste, ekonomia berdearen alorreko politikak barne hartzen dituzten iraunkortasun-estrategiak antolatzen.

70. Baiesten dugu kooperatibek eta mikroenpresek ekarpena egiten dutela gizarte-inklusion laguntzeko eta pobrezia murrizteko prozesuan; bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetan.

71. Lehendik dauden aliantzak eta aliantza berriak, sektore publiko eta pribatuaren arteko aliantzak barne hartuta, bultzatzen ditugu funts publikoak –sektore pribatuaren bidez osatuak– mobiliza ditzaten, toki-komunitateen eta komunitate indigenen interesak kontuan hartuta, hala dagokionean. Ildo horretan, gobernuak garapen iraunkorrerako ekimenak babestu behar dituzte, are sektore pribatuaren ekarpena sustatzearen bidez ere, ekonomia berdearen alorreko politikak sendotzeko, garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan.

72. Baiesten dugu teknologiak funtsezko zeregina duela eta garrantzitsua dela berrikuntza sustatzea; bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetan. Gobernuak eskatzen diegu, dagokienaren arabera, esparru egokiak sortzeko, helburu hartuta ingurumenaren aldetik arazoizkoak diren teknologia, ikerkuntza eta garapena, eta berrikuntza sustatzea, garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan ekonomia berdea babestea barne.

73. Azpimarratzen dugu garapen-bidean dauden herrialdeei teknologia transferitzeak duen garrantzia, eta gogora ekartzen ditugu Johannesburgeko Erabakiak Aplikatzeko Planean teknologia-transferentziari, finantziarioari, informazioa eskuratzeari eta jabego intelektualaren eskubideei buruz adostutako xedapenak; zehazki, ingurumenaren aldetik arrazoizkoak diren teknologiak eta dagozkien ezagutza espezializatuak eskura izatea sustatzeko, bideratzeko eta finantzatzeko eskaera, baita haien garapena, transferentzia eta hedapena ere –bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetara eta trantsizio-ekonomiak dituzten herrialdeetara–, baldintza onuragarrietan, baldintza mesedegarriak eta lehentasunezkoak barne hartuta, elkarrekin adostutakoari jarraituz. Erreparatzen diogu, halaber, Johannesburgeko Erabakiak Aplikatzeko Planaren ostean gai horiei buruz egindako hausnartzeen eta akordioen bilakaerari.

74. Baiesten dugu laguntza tekniko eta teknologikoa behar dutela garapen-bidean dauden herrialdeek egindako ahaleginek, bide ematen baitute garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan ekonomia berdearen alorreko politikak gauzatzeko.

IV. Garapen iraunkorrerako erakunde-esparrua

A. Garapen iraunkorraren hiru dimentsioak sendotzea

75. Azpimarratzen dugu garrantzitsua dela garapen iraunkorrerako erakunde-esparrua sendotzea, gaurko eta etorkizuneko erronkak koherentziaz eta eraginkortasunez konpontzeko eta garapen iraunkorrerako agenda gauzatzean sortutako hutsuneak murrizteko. Garapen iraunkorrerako erakunde-esparruak orekaz integratu behar ditu garapen iraunkorraren hiru dimentsioak, eta neurrien aplikazioa hobetu, bitarteko hauek baliatuta, besteak beste: koherentzia sendotzea, jarduerak koordinatzea, ahalegin-bikoizketa saihestea, eta garapen iraunkorra lortzeko bidean egindako aurrerabideak aztertzea. Halaber, berresten dugu esparru horrek inklusiboa, gardena eta eraginkorra izan behar duela, eta garapen iraunkorrari loturik munduan dauden arazo guztientzat konponbide komunak aurkitu behar dituela.

76. Baiesten dugu garapen iraunkorra sustatzeko funtsezkoa dela tokiko, azpinazioko, nazioko, eskualdeko eta munduko gobernantza eraginkorra izatea eta guztion iritzi nahiz interesak adieraztea. Garapen iraunkorrerako erakunde-esparrua sendotzeak eta berritzeak ez du xede izan behar, garapen iraunkorra lortzeko bide baizik. Baiesten dugu nazioarteko erakunde-esparru hobea eta eraginkorrago batek Rioko Printzipioekin bateragarria izan behar duela, hau da, oinarri hartu behar dituela 21 Programa, Johannesburgeko Erabakiak Aplikatzeko Plana, eta plan horretan garapen iraunkorrerako erakunde-esparruari buruz adierazitako helburuak; lagungarri izan behar duela Nazio Batuen konferentzia eta gailurretan ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloetan eta haiei lotutako beste arlo batzuetan onartutako konpromisoak betetzeko bidean; eta aintzat hartu behar dituela garapen-bidean dauden herrialdeen nazio-

lehentasunak eta garapenerako estrategia eta lehentasunak. Hortaz, garapen iraunkorrerako erakunde-esparrua sendotzea erabaki dugu; hartara, ondorio hauek lortuko dira, besteak beste:

a) Garapen iraunkorraren hiru dimentsioen integrazio orekatua sustatuko du.

b) Eraitzen lorpena helburu duen ikuspegia oinarri hartuko du, eta dagozkion sektorearteko gaiak behar bezala kontuan hartuko ditu, garapen iraunkorra gauzatzen laguntzea helburu hartuta.

c) Funtsezko gai eta arazoan eta dagozkien maila guztiei ikuspegi sistematiko batetik heltzeko premiaren artean dauden loturen garrantzia azpimarratuko du.

d) Koherentzia hobetuko du, zatiketa eta bikoizketa murriztuko ditu, eta eraginkortasuna, efizientzia eta gardentasuna areagotuko ditu, koordinazioa eta lankidetzaz sendotzearekin batera.

e) Erabakiak hartzeko prozesuetan herrialde guztiek bete-betean benetan parte hartzea sustatuko du.

f) Goi-mailako agintari politikoak erakarriko ditu, arauari buruzko orientabidea emango du, eta garapen iraunkorrerako planen aplikazioa sustatzeko neurri zehatzak identifikatuko ditu; bereziki, ikaskizunak eta esperientziak borondatez trukatzearen bidez.

g) Zientziaren eta politiken arteko lotura sustatuko du, ebaluazio zientifiko inklusiboen, gardenen eta probetan oinarritutakoen bitartez, baita datu fidagarri, egoki eta bidezkoak eskura izatea ere, garapen iraunkorraren hiru dimentsioekin lotuta dauden arloetan; lehenik dauden mekanismoak erabiliz, egoki denean. Horri dagokionez, herrialde guztiek garapen iraunkorrerako nazioarteko prozesuetan parte hartzea sendotuko du, baita gaitasuna sustatzeko jardueretan ere; bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeen alde, beren ikuskatze- eta ebaluazio-jarduerak egiteko aukera izan dezaten, batez ere.

h) Gizarte zibilaren eta dagozkion beste interesdun batzuen partaidetza eta esku-hartze eraginkorra handituko du garapen iraunkorrari buruzko nazioarteko foroetan. Horri dagokionez, gardentasuna eta jendearen eta elkarten partaidetza handia sustatuko ditu garapen iraunkorrerako planen aplikazioan.

i) Garapen iraunkorraren alorrean onartutako konpromiso guztiak betetzeari lotutako aurrerabideak aztertzea eta ebaluatzea sustatuko du, gauzatze-bitartekoekin zerikusia dutenak barne hartuta.

B. Garapen iraunkorrerako gobernuarteko mekanismoak sendotzea

77. Baiesten dugu sistema multilateral eraginkor, inklusibo, garden, berritu eta sendotu bat izateak garrantzi handia duela, garapen iraunkorra oztokatzen duten urgentziazko mundu-arazoei hobeto aurre egiteko. Halaber, Nazio Batuen unibertsaltasuna eta funtsezko zeregina baiesten

78. Azpimarratzen dugu Nazio Batuen erakunde guztietan koherentzia eta koordinazioa sendotzeko premia, bai eta estatu kideei kontuak emateko beharra ere; esate baterako, txostenen aurkezpenaren koherentzia handiagotuz, Nazio Batuen sisteman garapen iraunkorraren hiru dimentsioen integrazioan aurrera egiteko ezarritako estrategien eta erakundearteko mekanismoen esparruan hasiak diren lankidetzahaleginak areagotuz, baita Nazio Batuetako erakunde, funts eta programen arteko informazio-trukearen bidez eta nazioartearen barruan dagozkion finantza-erakundearen bidez ere –adibidez, Munduko Merkataritza Antolakundearen bidez (MMA)–, bakoitzari dagokion agintea aintzat hartuta.

79. Azpimarratzen dugu beharrezkoa dela garapen iraunkorrerako erakunde-esparrua hobetzea eta haren eraginkortasuna handiagotzea, eta beharrezkoak diren berriarazo funtzioen eta dagozkion aginteen arabera kudeatu behar dela esparru hori. Halaber, premiazkoa da egungo sistemaren hutsuneak konpontzeko ahalegina egitea, zer ondorio gerta daitezkeen kontuan hartzea, sinergiak eta koherentziak sustatzea, Nazio Batuen sistemako bikoizketak saihesten ahalegintzea eta beharrezkoak ez diren gainjartzeak kentzea, administrazio-kargak murriztea, eta lehendik dauden mekanismoak aprobetxatzea.

Batzar Nagusia

80. Berresten dugu Batzar Nagusiak aginpidea duela nazioarteko komunitatearentzat mundu osoan interesa duten gaietan, Gutunak ezarri bezala.

81. Halaber, berresten dugu Batzar Nagusiak, hausnartze-organo nagusia den aldetik, funtsezko zeregina duela politikak erabakitzean eta Nazio Batuen ordezkari gisa jardutean. Horren haritik, Batzar Nagusiari eskatzen diogu garapen iraunkorra Nazio Batuen jardueren esparru orokorreko funtsezko elementu gisa integratzen jarraitzeko, eta garapen iraunkorraren gaiari tratamendu egokia emateko programak prestatzean, are aldian behingo goi-mailako elkarrizketen bidez ere.

Ekonomia eta Gizarte Kontseilua

82. Berresten dugu Ekonomia eta Gizarte Kontseilua dela politikak aztertzeko, politikez eztabaidatzeko eta garapen ekonomiko eta sozialari buruzko gaietan gomendioak emateko ardura duen organo nagusia, baita Milurtekoko Garapen Helburuen jarraipenaz arduratzen dena ere, eta Nazio Batuen sistemari dagozkion jarduerak koordinatzeko eta Kontseiluaren mendeko organoak –bereziki, batzorde organikoak– ikuskatzeko mekanismo zentrala dela, baita 21 Programa gauzatzea sustatzekoa ere, sisteman koherentzia eta koordinazioa sendotzearen bitartez. Berresten dugu Kontseiluak zeregin garrantzitsua betetzen duela funtsen, programen eta erakunde espezializatuen koordinazio orokorrean,

haien arteko koherentzia bermatzen baitu, eta aginteen eta jardueren bikoiztea saihesten.

83. Ekonomia eta Gizarte Kontseilua sendotzeko konpromisoa hartzen dugu, Gutunak xedatutako agintearen esparruan, Nazio Batuen konferentzia eta gailur handietan ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloetan eta haiei lotutako beste arlo batzuetan hartutako erabakien jarraipen integratuaz eta koordinatuaz arduratzen den organo nagusia den aldetik, eta baiesten dugu garapen iraunkorraren hiru dimentsioak integratzeko bidean erabakigarria izan daitekeela laguntza emateko. Batzar Nagusiaren 61/16 Ebazpena, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua sendotzeari buruzkoa, aplikatzeari buruzko azterketaren zain gaude, erabateko interesez.

Goi-mailako foro politikoa

84. Erabaki dugu gobernuarteko goi-mailako foro politiko unibertsal bat eratzea, Garapen Iraunkorrari buruzko Batzordearen indarguneak, esperientziak, baliabideak eta partaidetza-modalitate inklusiboak aprobetxatuko dituen eta gero Batzordea ordezkatzeko duena. Goi-mailako foro politikoak garapen iraunkorrerako planen aplikazioa zainduko du, eta egituren, organoen eta erakundeen zereginen gainjartzea eraginkortasunez saihestu beharko du, kostuen arabera.

85. Goi-mailako foroak eginkizun hauek hartu ahal izango ditu bere gain:

a) Garapen iraunkorrerako lidergo politikoa, orientabidea eta gomendioak ematea.

b) Garapen iraunkorraren hiru dimentsioen arteko integrazio globala hobetzea sektoreen artean, maila guztietan.

c) Plataforma dinamiko bat eratzea aldi behingo elkarrizketetarako eta garapen iraunkorra sustatuko duten programak ebaluatzeko eta prestatzeko.

d) Agenda espezifikoa eta dinamiko bat izatea, ekintzara bideratua, eta garapen iraunkorrari lotutako arazo berriak behar bezala aintzat hartzen dituen.

e) Jarraipen bat egitea eta aztertzea zer aurrerabide egin diren 21 Programan, Johannesburgeko Erabakiak Aplikatzeko Planean, Barbadosko Ekintza Programan, Maurizioko Estrategian eta Konferentzia honetan, garapen iraunkorrari buruz erabakitako konpromisoak betetzeko bidean, eta, horretarako, egoki izanez gero, Nazio Batuen beste gailur eta konferentzia batzuetako konpromisoak ere aintzat hartzea, Gutxien aurreratuta dauden Herrialdeei buruzko Nazio Batuen Laugarren Konferentzian erabakitakoak barne hartuta, baita erabakiak aplikatzeko kasuan kasuko bitartekoak ere.

f) Nazio Batuetako erakunde, funts eta programen goi-mailako parte-hartzea bultzatzea sistema guztian, eta, egoki denean, finantza- eta merkataritza-erakunde multilateralei parte hartzera dei egitea, baita

tratatuaren bidez sortutako organoei ere, bakoitzari dagokion agintearen esparruan eta Nazio Batuetako arau eta xedapenei jarraituz.

g) Garapen iraunkorrerako politika eta programen alorreko lankidetzak eta koordinazioa hobetzea Nazio Batuen sisteman.

h) Gardentasuna eta gauzatzea sustatzea, eta nazioartean hobetzea talde nagusien eta dagozkion beste interesdun batzuen aholkufuntzioa eta parte-hartzea, haien ezagutza espezializatuak hobeki erabiltzeko, hausnarketen gobernuarteko izaerari eusteaz bat.

i) Jardunbide onenak eta garapen iraunkorrerako neurrien aplikazioarekin lotutako esperientziak truka daitezela sustatzea, eta, nahi izanez gero, arrakastak, erronkak eta eskuratutako esperientziak truka daitezela bideratzea.

j) Garapen iraunkorrerako politiken koherentzia eta koordinazioa sustatzea sistema guztian.

k) Zientziaren eta politiken arteko lotura sendotzea, dokumentazioa aztertzearen bidez, eta sakabanatutako informazioa eta ebaluazioa biltzearen bitartez; esate baterako, garapen iraunkorrari buruzko mundu-mailako txosten batean, lehendik egindako ebaluazioak oinarri hartuta.

l) Maila guztietako probetan oinarritutako erabaki-hartzea hobetzea, eta garapen-bidean dauden herrialdeetan datuak biltzeko eta aztertzeko gaitasuna sustatzearen egiten ari diren ahaleginak sendotzen laguntzea.

86. Erabaki dugu negoziazio-prozesu ireki, garden eta inklusibo bat abian jartzea Batzar Nagusian, goi-mailako foroaren egitura definitzea eta antolaketa zehaztea helburu hartuta, goi-mailako lehenengo fororako deialdia egin ahal izateko Batzarraren hirurogeita zortzigarren bilkura-aldiaren hasieran. Halaber, aintzat hartuko dugu garapen iraunkorraren aldeko belaunaldiarteko elkartasuna sustatzeko premia, etorkizuneko belaunaldien beharrak kontuan hartuta, eta, gainera, idazkari nagusiari eskatuko diogu gaiari buruzko txosten bat aurkezteko.

C. Ingurumen-oinarria garapen iraunkorraren testuinguruan

87. Berresten dugu premiazkoa dela nazioarteko ingurumen-alorreko gobernantza sendotzea garapen iraunkorrerako erakunde-esparruan, ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari dagozkion garapen iraunkorraren dimentsioak orekan integratzea sustatzeko eta Nazio Batuen sisteman koordinazioa bultzatzeko.

88. Nazio Batuen Ingurumen Programaren (NBIP) funtzioa sendotzeko konpromisoa hartzen dugu, ingurumen-agintaritzak nagusia baita zeregin hauetan: ingurumenaren aldeko mundu-jarduerak ezartzea, Nazio Batuen sisteman garapen iraunkorraren ingurumen-alderdiak koherentziaz aplikatu daitezela sustatzea, eta mundu-mailan ingurumenaren defendatzaile baimendu gisa jardutea. Berresten dugu 2997 erabakia (XXVII), 1972ko abenduaren 15ekoa, NBIP ezarri zuena, eta haren agintea sendotzen duten beste erabaki batzuk, baita 1997ko Nairobiko Adierazpena, NBIPen zereginari eta aginteari buruzkoa, eta 2000ko Malmoko Ministerio

Adierazpena ere. Horri dagokionez, Batzar Nagusiari eskatzen diogu NBIP sendotuko eta jasoko duen ebazpena onesteko hirurogeita zazpigarren bilkura-aldian, xehetasun hauek aintzat hartuta:

a) NBIPren Administrazio Kontseiluaren osaera unibertsala ezartzea, baita kudeaketa, konponbideak emateko ahalmena eta estatu kideei kontuak emateko gaitasuna sendotzeko beste neurri batzuk ere.

b) NBIPri finantza-baliabide seguru, egonkor eta nahikoak esleitzea, baita finantza-baliabide gehiago ere, Nazio Batuen aurrekontu arruntaren eta borondatezko ekarpenen kontura, agindu zaiona bete dezan.

c) NBIPren eragina eta gaitasuna handitzea, Nazio Batuen sisteman esleitu zaion koordinazio-agindua bete dezan, Nazio Batuen koordinazio-organo nagusietan duen partaidetza sendotuta, eta Nazio Batuen sistemak ingurumenari lotutako estrategiak prestatzeko egiten dituen ahaleginak zuzentzera bideratutako bitartekoak emanda.

d) Zientziaren eta politiken arteko lotura sendoa sustatzea, indarrean dauden nazioarteko tresnak, ebaluazioak eta informazio-talde eta -sareak erabiliz, "Munduko Ingurumenaren Ikuspegiak" txostenak barne hartuta, informazioa eta ebaluazioak biltzeko ezarritako prozesuetako bat den aldetik eta, hartara, erabakiak hartzeko bidean lagungarri izan dadin.

e) Frogetan oinarritutako ingurumenari buruzko informazioa hedatzea eta partekatzea, eta jendeari kontzientzia harraraztea funtsezko gaietara buruz eta ingurumenaren alorreko kontuez.

f) Herrialdeen gaitasuna sustatzea eta teknologia eskura izaten laguntzea.

g) Nairobiko egoitzaren funtzioak gradualki sendotzea eta eskualdean duen presentzia indartzea, hala eskatzen duten herrialdeei ingurumen-politika nazionalak aplikatzen laguntzeko, Nazio Batuen sistemako beste erakunde eskudun batzuekin lankidetzan estuan.

h) Interesdun guztien parte-hartze aktiboa bermatzea, jardunbide onenak eta bidezko erakunde multilateralen ereduak erabiliz, eta gardentasuna eta gizarte zibilaren egiazko parte-hartzea sustatzeko mekanismo berriak aztertuz.

89. Baiesten dugu ingurumenari buruzko akordio multilateralek ekarpen garrantzitsuak egiten dituztela garapen iraunkorra lortzeko bidean. Baiesten dugu produktu kimikoei eta hondakinei buruzko hiru hitzarmenen arteko sinergiak hobetzeko hasitako eginkizuna (hondakin arriskutsuen mugaz haraindiko mugimenduak kontrolatzeari eta desagerrarazteari buruzko Basileako Hitzarmena, nazioarteko merkataritzako pestizida eta produktu kimiko arriskutsu batzuei aplikatzeko onarpen oinarrituaren prozedurari buruzko Rotterdango Hitzarmena, eta poluitzaile organiko iraunkorrei buruzko Stockholmeko Hitzarmena). Ingurumenari buruzko akordio multilateraletan parte hartzen duten alderdiak bultzatzen ditugu

azter dezaten zer aukera dagoen neurriak hartzeko akordio horiei eta beste gai multzo batzuei loturik, egoki denean; hartara, politiken koherentzia maila guztietan sustatuko da, efizientzia hobetuko da, beharrezkoak ez diren gainjartze eta bikoizteak murriztukoko dira, eta akordioen arteko koordinazioa eta lankidetzak hobetuko da; bereziki, Rioko bi konbentzioen eta hitzarmenaren artean, are lekuan lekuko Nazio Batuen sistemarekiko lankidetzak hobetzeko ere.

90. Azpimarratzen dugu premiazkoa dela aldi berean aztertzen jarraitzea Lurraren inguru aldakorra eta horrek gizakien ongizatean dituen eraginak, eta, ildo horretan, atseginez hartzen ditugu "Munduko Ingurumenaren Ikuspegiak" txostenen prozesuaren moduko ekimenak, ingurumenari buruzko informazioa eta ebaluazioak biltzea, eta eskualde eta nazioek erabaki informatuak hartzen laguntzeko duten gaitasuna sustatzea.

D. Nazioarteko finantza-erakundeak eta Nazio Batuen eragiketa-jarduerak

91. Baiesten dugu garapen iraunkorra behar bezala txertatu behar dela Nazio Batuen sistemako programa, funts eta erakunde espezializatuen jardueretan, beste erakunde batzuen jardueretan –esate baterako, nazioartearen barruan dagozkion finantza-erakundeek ekintzetan– eta Merkataritzari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian, bakoitzari dagozkion aginteen arabera. Horri dagokionez, eskatzen diegu garapen iraunkorra txertatzen jarraitzeko haien aginte, programa, estrategia eta erabakiak hartzeko prozesuetan, garapen iraunkorra lotzeko ahaleginetan herrialde guztiei laguntzeko; bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeei.

92. Berresten dugu garrantzitsua dela garapen-bidean dauden herrialdeen parte-hartzea areagotzea eta sendotzea erabakiak hartzeko eta arauak ezartzeko nazioarteko prozesuetan. Eta, horri dagokionez, gogoan dugu zer erabaki garrantzitsu hartu diren berriki Bretton Woodseko gobernantza-egiturak, kuotak eta erakundeek boto-eskubideak aldatzeari buruz; izan ere, egungo errealitatea hobeki adierazten dute, eta garapen-bidean dauden herrialdeen eragina eta parte-hartzea handiagoa da. Halaber, berresten dugu garrantzia duela erakunde horien gobernantza-egiturak berritzeak, eraginkorragoak, sinesgarriagoak eta bidezkoagoak izan daitezen, eta beren ekintzen berri emateko gaitasun hobea izan dezaten.

93. Garapen iraunkorraren hiru dimentsioak Nazio Batuen sisteman gehiago txertatzeko eskatzen dugu, eta idazkari nagusiari eskatzen diegu ildo horretan egindako aurrerabideen berri emateko Batzar Nagusiari, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren bitartez. Halaber, baiesten dugu garrantzitsua dela politiken koordinazioa sendotzea Nazio Batuen Idazkaritzako egitura nagusietan, sistema guztian garapen iraunkorra babesteko jardueren koherentzia bermatzea helburu hartuta, eta aldi berean estatu kideei kontuak ematea bermaturik. Eta hori guztia aintzat hartzeko eskatzen dugu.

94. Nazio Batuen sistemako funts, programa eta erakunde espezializatuen organo zuzendariei eskatzen diegu azter dezaten zer neurri diren egokienak gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren alorreko dimentsioak Nazio Batuen sistemaren eragiketa-jardueretan integratzeko. Halaber, berriro diogu, nazioartean adostutako garapen-helburuak lortzeko, Milurtekoko Garapen Helburuak barne hartuta, funtsezkoa dela Nazio Batuen garapenerako sistema finantzatzeko ekarpenak handitzea. Eta, horri dagokionez, baiesten dugu elkar indartzen duten loturak badaudela Nazio Batuen eraginkortasuna, efizientzia eta koherentzia handitzearen, garapen-bidean dauden herrialdeei pobrezia desagerrarazteko emandako laguntzaren emaitza zehatzen, eta hazkunde ekonomiko jarraitua eta garapen iraunkorra lortzearen artean.

95. Azpimarratzen dugu premiazkoa dela sendotzea Nazio Batuen sistemak garapenaren alde lekuan-lekuan antolatutako eragiketa-jarduerak. Garapen-bidean dauden herrialdeen garapen iraunkorraren alorreko lehentasun nazionalen arabera dira jardura horiek. Ildo horretan, azpimarratzen dugu Nazio Batuen eragiketa-jardueren printzipio eta ezaugarri funtsezkoek, Batzar Nagusiaren dagozkion ebazpenetan ezartzen direnek, osatzen dutela lekuan lekuko laguntza emateko jardueren inguruko gorabehera guztien esparru orokorra. Baiesten dugu garrantzia duela Nazio Batuen sistemaren koordinazioa sendotzeak; "Ekintzan elkaturik" ekimenaren ebaluazio independentearen emaitzak jaso zain gaude.

96. Nazio Batuen sistemari eskatzen diogu zerbitzu eta eragiketak hobeki kudeatzeko, garapen iraunkorraren alorreko jardunbideak kontuan hartuta, hasitako jarduerak aprobetxatuz eta eraginkortasuna sustatuz, kostuen arabera, legegintza-esparruari jarraituz –zehazki, finantza-araudia eta finantza-arautze xehatua–, eta, aldi berean, estatu kideei kontuak emateko eginbidea betetzeko.

E. Eskualde-, nazio-, azpinazio- eta toki-mailak

97. Baiesten dugu garrantzitsua dela garapen iraunkorraren eskualdeko dimentsioa, eta eskualdeko esparruek osatu eta bideratu dezaketela garapen iraunkorreko politikak nazio-mailako neurri zehatz gisa adieraztea.

98. Eskualde-, nazio-, azpinazio- eta toki-agintariak bultzatzen ditugu, kasuan-kasuan dagokionaren arabera, garapen iraunkorreko estrategiak prestatzera eta erabaki-hartzeak eta garapen iraunkorreko maila guztietako jarduerak bideratzeko tresna nagusi gisa erabiltzera. Eta, horren haritik, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren alorreko datuak eta informazioak integratzea garrantzitsua dela baiesten dugu, baita erabakiak hartzeko prozesuetan aplikatzen diren neurriak eraginkortasunez aztertzea eta ebaluatzea ere.

99.

100. Eskualde-, nazio-, azpinazio- eta toki-mailako neurriak hartzea bultzatzen dugu, hartara sustatzeko informazioa eskura izatea, pertsonak erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzea, eta ingurumenaren alorreko gaietan justiziara jotzeko aukera izatea, egoki izanez gero.

101. Azpimarratzen dugu eskualdeko eta azpieskualdeko erakundeak –Nazio Batuetako eskualde-batzordeak eta azpieskualde-bulegoak barne hartuta– oso lagungarriak izan daitezkeela ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren alorreko garapen iraunkorraren dimentsioen integrazio orekatua sustatzeko. Azpimarratzen dugu premiazkoa dela erakunde horiei laguntzea –batez ere, Nazio Batuen sistemaren bidez–, garapen iraunkorrerako planak abian jartzeko eta aplikatzeko, eta instituzioen koherentzia eta garapenerako politika, plan eta programen harmonizazioa bideratzeko. Horren haritik, erakunde horiei eskatzen diegu garapen iraunkorari lehentasuna emateko; esate baterako, gaitasuna sustatuz, eskualdeko akordio eta konponbideak modu eraginkor eta efizienteagoan aplikatuz –egoki izanez gero–, eta informazioa, jardunbide onenak eta ikasbideak trukatzuz. Halaber, atseginez hartzen ditugu garapen iraunkorraren aldeko eskualde-mailako eta eskualdearteko ekimenak. Gainera, baiesten dugu premiazkoa dela mundu-, eskualde-, azpieskualde- eta nazio-prozesuak eraginkortasunez lotzea, garapen iraunkorra sustatzeko. Nazio Batuetako eskualde-batzordeen eta azpieskualde-bulegoen gaitasuna sendotzea bultzatzen dugu, estatu kideei lagundu diezaieten garapen iraunkorreko neurriak aplikatzen.

102. Azpimarratzen dugu premiazkoa dela erabakiak era koherente eta integratuagoan hartzea eta planifikatzea, nazio-, azpinazio-, eta toki-mailan, kasuan-kasuan dagokionaren arabera, eta helburu horrekin eskatzen diegu herrialdeei, egoki izanez gero, nazio-, azpinazio- eta toki-erakundeak sendotzeko edo garapen iraunkorra sustatzen duten hainbat interesdunen organo eta prozesuak indartzeko; bereziki, garapen iraunkorraren alorreko gaiak koordinatzea eta garapen iraunkorraren hiru dimentsioen integrazioa bideratzea.

103. Garapen iraunkorrerako eskualde-mailako eta eskualdearteko ekimenak goren ditugu; esate baterako, Zubi Berdea Elkarte Programa, kide guztiei borondatez parte hartzeko aukera ematen diena.

104. Azpimarratzen dugu premiazkoa dela garapen iraunkorrarekiko konpromiso politikoa bermatzea epe luzerako, nazio-egoera eta -lehentasunak aintzat hartuta; eta, horren haritik, herrialde guztiak bultzatzen ditugu, garapen iraunkorra lortzeko neurriak har ditzaten.

V. Ekintzarako eta jarraipenerako esparrua

A. Gai-arloak eta sektorearteko gorabeherak

104. Baiesten dugu konpromiso hauek hartzen ditugula Konferentziaren helburua betetzeko (alegia, garapen iraunkorraren aldeko konpromiso politikoa berritzeko) eta garapen iraunkorraren, pobrezia desagerraraztearen eta garapen iraunkorrerako erakunde-esparruaren

testuinguruan ekonomia berdeari dagozkion gaiei heltzeko: garapen iraunkorrari buruzko gailur nagusietako emaitzak aplikatzean geratzen diren hutsuneak konpontzeko ahalegina egitea, arazo berriei eta abian diren arazoei aurre egitea, aukera berriak baliatzea –ekintzarako esparru honetan aurrerago adieraziko diren neurriak hartzearen bidez–, eta aplikatzeko bideak ematea, egoki denaren arabera. Baiesten dugu helburuak, xedeak eta adierazleak –genero-ikuspegiaren arabera adierazleak barne hartuta–, egoki izanez gero, baliagarriak direla aurrerabideak neurtzeko eta lasterragotzeko. Halaber, ikusten dugu aurrerago adieraziko diren neurrien aplikazioa bultzatzea daitekeela informazioa, ezagutzak eta esperientziak borondatez partekatuz gero.

Pobrezia desagerraraztea

105. Baiesten dugu hiru urte falta direla Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko aurreikusitako epea (2015) betetzeko, eta, eskualde batzuetan pobrezia murrizteko bidean aurrera egin bada ere, aurrerabide horiek ez direla uniformeak izan, eta pobrezian bizi diren pertsonen kopuruak gora egiten jarraitzen duela herrialde batzuetan. Emakumeak eta haurrak dira talde kaltetuenak, eta, batez ere, gutxien aurreratuta dauden herrialdeetan dute arazo hori; bereziki, Afrikan.

106. Baiesten dugu garapen-bidean dauden herrialdeen hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta bidezkoa nahitaezko baldintza dela pobrezia eta gosea desagerrarazteko eta Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko. Horri dagokionez, azpimarratzen dugu garapen-bidean dauden herrialdeen ekimenek oinarrituta egon behar dutela herrialde horien garapen-aukerak zabaltzeko lagungarria izango den inguru batean. Halaber, nabarmentzen dugu Nazio Batuen garapenerako agendan lehentasun handiena eman behar zaiola pobrezia desagerrarazteari, pobrezia kausa sakonei eta erronkei aurre egiteko estrategia integratu, koordinatu eta koherenteak baliatuz, maila guztietan.

107. Baiesten dugu gizarte-zerbitzuetarako sarbide unibertsala sustatzeak asko lagundu dezakeela garapenaren alorrean lortutako onurak finkatzeko bidean, eta lorpen berrietarako lagungarri izan daitekeela. Pobrezia desagerrarazteko eta Milurtekoko Garapen Helburuak lortzen laguntzeko, funtsezkoa da desberdintasunak eta gizarte-bazterkeria murriztuko dituzten sistemak izatea gizarte-babeserako. Ildo horretan, guztiontzako gizarte-babesa hobetzeko ekimenak biziki bultzatzen ditugu.

Elikadura-segurtasuna, eta iraunkortasuna bermatzeko moduko nutrizioa eta nekazaritza

108. Pertsona orok elikagai osasungarriak, nahikoak eta elikagarriak eskura izateko eskubideari buruzko konpromisoak berresten ditugu, elikadura egokia izateko eskubidearekin eta pertsona orok goserik ez pairatzeko funtsezko eskubidearekin bat etorriz. Baiesten dugu elikadura-segurtasuna eta nutrizioa mundu-mailako premiazko erronka bihurtu direla; eta, horri dagokionez, elikadura-segurtasuna handiagotzeko eta egungo eta etorkizuneko belaunaldiek elikagai nahikoak, osasungarriak

eta elikagarriak eskura izateko konpromisoa berresten dugu, 2009an onetsitako elikadura-segurtasun iraunkorrerako Erromako bost printzipioekin ados; bereziki, 2 urtetik beherako haurren alde, eta nazio-, eskualde- eta mundu-mailako elikadura-segurtasunerako eta nutriziorako estrategien bidez, kasuan-kasuan dagokionaren arabera.

109. Baiesten dugu landa-eremuetan bizi dela munduko pobreen zati nabarmen bat, eta landa-komunitateek garrantzi handiko zeregina betetzen dutela hainbat herrialderen garapen ekonomikoan. Azpimarratzen dugu premiazkoa dela nekazaritzaren eta landa-garapenaren sektoreak biziberritzea –bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetan–, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik iraunkortasuna bermatzen lagundu dezaten. Baiesten dugu garrantzitsua dela landa-komunitateen premiak hobeki asetzeko behar diren neurriak hartzea, hala nola nekazaritza-ekoizleek –bereziki, nekazari txikiek, indigenek eta egoera zaurgarrietan dauden pertsonen– baliabide hauek eskura izatea: kredituak eta beste finantza-zerbitzu batzuk, merkatuak, lurraz jabetzeko erregimen seguruak, osasunaren alorreko arreta, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, gaikuntza, ezagutzak, eta teknologia egokiak arrazoizko prezioan; bereziki, lurak eraginkortasunez ureztatzeko, hondakin-ur tratatua berrerabiltzeko, eta ura biltzeko eta metatzeko teknologiak. Berrito diogu garrantzitsua dela landa-eremuetako emakumeak ahalduntzea; izan ere, funtsezko eragileak dira bai nekazaritza- eta landa-garapena bai elikadura-segurtasuna eta nutrizioa hobetzeko. Halaber, baiesten dugu garrantzitsuak direla iraunkortasuna bermatzen duten tradiziozko nekazaritza-jardunbideak (esate baterako, haziz hornitzeko tradiziozko sistemak); batez ere, hainbat herri indigenetan eta toki-komunitatetan.

110. Nekazaritza-egoera eta -sistema askotarikoei erreparatuta, erabaki dugu mundu-mailan handitzea iraunkortasunaren aldeko nekazaritza-produkzioa eta produktibitatea; zehazki, merkatuen eta komertzializazio-sistemen funtzionamendua hobetuz eta nazioarteko lankidetzaren sendotuz –batez ere, garapen-bidean dauden herrialdeen alde–. Horretarako, inbertsio publikoa eta pribatua handiagotuko da iraunkortasunaren aldeko nekazaritzan, eta lurren antolamendua eta landa-garapena baliatuko dira. Inbertsioak eta babes-zerbitzuak arlo nagusiak hauetan behar dituzte: iraunkortasunaren aldeko nekazaritza-jardunbideak; landa-azpiegitura, produktuak metatzeko gaitasuna eta hari lotutako teknologiak; iraunkortasunaren aldeko nekazaritza-teknologiaren alorreko ikerkuntza- eta garapen-jarduerak; nekazaritzako kooperatiba eta balio-kate sendoak sustatzea; eta hiri- eta landa-inguruen arteko loturak sendotzea. Baiesten dugu, halaber, elikagai-horniduraren kate guztian murriztu behar direla uztaren ondorengo galerak eta elikagaien beste galera eta hondakin batzuk.

111. Berresten dugu premiazkoa dela iraunkortasuna areago bermatzen duen nekazaritza bat sustatzea, handitzea eta sustengatzea –laborantzak, abereak, basogintza, arrantza eta akuikultura barne hartuta–, elikadura-segurtasuna hobetuko duena, gosea desagerraraziko duena eta ekonomikoki bideragarria dena, eta aldi berean lurak, ura, landare eta animalien baliabide genetikoek, aniztasun biologikoak eta ekosistemek

denboran irautea ekarriko duena, eta aldaketa klimatikoaren eta hondamendi naturalen aurrean erresilientzia handiagotzea dakarrena. Baiesten dugu, halaber, premiazkoa dela elikagaien produkzio-sistemaren oinarrian dauden prozesu ekologiko naturalei eustea.

112. Nabarmentzen dugu iraunkortasunaren aldeko abelazkuntza sistemak hobetu behar direla, are larreak ureztatzeko eta antolatzeke plan hobetuen bidez –nazioetako politika, lege eta araudiei jarraituz–, ur-baliabideak iraunkortasuna bermatzeko moduan antolatzeke sistema hobetuen bidez, eta animalien gaixotasunak desagerrarazteke eta haien hedapena prebenitzeko neurrien bidez ere, aintzat hartuta nekazarien eta artzainen bizimoduaren eta abereen osasunaren artean lotura estua dagoela.

113. Halaber, azpimarratzen dugu itsas ekosistema osasuntsuek eta iraunkortasunaren aldeko arrantzak eta akuikulturak zeregin erabakigarria dutela elikadura-segurtasunean, nutrizioan eta milioika pertsonentzako bizibideen sorreran.

114. Erabaki dugu nekazaritza-ikerikuntza, hedatze-zerbitzuak, gaikuntza eta hezkuntza hobetzeko neurriak hartzea, helburu hartuta nekazaritza-produkzioa eta nekazaritzaren iraunkortasuna handitzea ezagutzen eta jardunbide onen borondatezko trukearen bidez.

115. Halaber, erabaki dugu informaziorako eta ezagutza tekniko eta praktikoko espezializatuetarako sarbidea hobetzea, are informazio- eta komunikazio-teknologia berrien bidez ere, iraunkortasuna babesten duen produkzio bat lortzeko zenbait metodo eskaintzen baitizkiete nekazari, arrantzaile eta basoginei. Eskatzen dugu nazioarteko lankidetzak sendotzeko garapenerako nekazaritza-ikerikuntzaren alorrean.

116. Berresten dugu garrantzitsua eta inklusiboa dela Munduko Elikadura Segurtasun Batzordearen zeregina; bereziki, iraunkortasuna bermatzeko moduko elikagaiak ekoizteari eta elikadura-segurtasunari buruz herrialdeek egiten dituzten ebaluazioak bideratzeko eginkizuna; eta herrialdeak akuilatzen ditugu, behar bezala aintzat har ditzaten eta aplikatu ditzaten lur-jabegoen, arrantzaren eta basoen gobernantza arduratsuz Munduko Elikadura Segurtasun Batzordeak emandako borondatezko jarraibideak, nazioetako elikadura-segurtasunaren testuinguruan. Gogoan hartzen ditugu Munduko Elikadura Segurtasun Batzordearen esparruan nekazaritza-inbertsio arduratsuari buruz egiten diren eztabaidak, baita nekazaritza-inbertsio arduratsuen printzipioak ere.

117. Azpimarratzen dugu premiazkoa dela, batetik, elikagaien prezioen gehiegizko egongaitzasunaren funtsezko kausei ekitea, egiturazko kausak barne hartuta, maila guztietan; eta, bestetik, oinarrizko nekazaritza-produktuen prezioen gorakadak eta gehiegizko egongaitzasunak eragindako arriskuak nahiz horrek mundu-mailako elikadura-segurtasunean eta nutrizioan –baita nekazari txikiengan eta hirigunetako pobreengan ere– dituen ondorioak kudeatzea.

118. Azpimarratzen dugu garrantzitsua dela une egokian informazio zehatza eta gardena eskura izatea, elikagaien prezioen gehiegizko egongaitzasuna indargabetzen ahalegintzeko. Horri dagokionez,

Nekazaritza Merkatuen Informazio Sistemari erreparatzen diogu, Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundean (FAO) egoitza duenari, eta nazioarteko erakundeei, sektore pribatuko entitateei eta gobernu parte-hartzaileei eskatzen diegu elikagai-merkatuei buruzko kalitatezko informazioa ematen duten produktuen hedapen publikoa bermatzeko.

119. Berresten dugu merkataritza-sistema multilateral unibertsala –arautan oinarritua, irekia, diskriminaziorik eragiten ez duena eta bidezkoa– izango dela nekazaritza- eta landa-garapenaren sustatzaile, eta munduko elikadura-segurtasunean lagunduko duela. Nekazarien parte-hartzea sustatzeko nazio-, eskualde- eta nazioarte-mailako estrategiak hartzeko eskatzen dugu; bereziki, nekazari txikiek –emakume nekazariak barne hartuta– komunitate-, nazio-, eskualde- eta nazioarte-mailako merkatuetan parte har dezaten.

Ura eta saneamendua

119. Baiesten dugu ura dela garapen iraunkorraren oinarritzko elementua, estu-estuan loturik baitago munduko zenbait funtsezko erronkarekin. Hortaz, berriro diogu garrantzitsua dela ur-baliabideak garapen iraunkorrean integratzea, eta azpimarratzen dugu urak eta saneamenduak garrantzi erabakigarria dutela garapen iraunkorraren hiru dimentsioetan.

120. Berresten ditugu Johannesburgeko Erabakiak Aplikatzeko Planean eta Milurtekoko Adierazpenean hartutako konpromisoak; alegia, 2015erako erdira murriztea edateko urik eta oinarritzko saneamendurik gabe dauden pertsonen ehunekoa, eta ur-baliabideen kudeaketa integraturako eta aprobeixamendu efizienterako planak egitea eta, ildo horretan, baliabide horiek iraunkortasuna zaintzeko moduan erabil daitezten bermatzea. Edateko ura eta oinarritzko saneamendu-zerbitzuak progresiboki pertsona guztien eskura jartzeko konpromisoa hartzen dugu, behar-beharrezkoa baita pobrezia desagerrarazteko, emakumeak ahalduntzeko, gizakien osasuna babesteko eta ur-baliabideen antolamendu integratuaren aplikazioa nabarmenki hobetzeko, dagozkion maila guztietan. Ildo horretan, ahalegin horietan laguntzeko konpromisoa adierazten dugu berriz ere –bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeen alde–, eta horretarako bitarteko izango da iturri guztietako baliabideak mobilizatzea, gaitasuna sustatzea eta teknologia transferitzea.

121. Berresten ditugu edateko ura eta saneamendua izateko giza eskubideari buruzko konpromisoak. Eskubide hori mailaz maila gauzatu behar da, biztanleen onerako, eta nazio-subiranotasuna oso-osorik errespetatu behar da. Azpimarratzen dugu, halaber, “Ura, bizi-iturri” Ekintzarako Nazioarteko Hamarkadarekiko (2005-2015) dugun konpromisoa.

122. Baiesten dugu ekosistemek funtsezko zeregina betetzen dutela uraren kantitateari eta kalitateari eusteari dagokionez, eta ekosistema horien babesaren eta antolamendu iraunkorraren alde herrialdez herrialde abian jarritako ekimenak bultzatzen ditugu, haietako bakoitzaren mugak kontuan hartuta.

123. Azpimarratzen dugu uholdeei, lehorteei eta ur-eskasiari aurre egiteko neurriak hartu behar direla. Horretarako, ur-hornikuntzaren eta -eskaeraren arteko orekari eusteko ahalegina egin behar da, konbentzionalak ez diren ur-baliabideak barne hartuta –hala dagokionean–, eta premiazkoa da finantza-baliabideak eta inbertsioak mobilizatzea ur-hornidura eta saneamendu-zerbitzuak emateko azpiegituretarako, nazio-lehentasunak aintzat hartuta.

124. Azpimarratzen dugu neurriak hartu behar direla uren kutsadura nabarmen murrizteko eta uren kalitatea hobetzeko, hondakin-uren tratamendua eta ur-baliabideen aprobetxamendu efizientea nabarmen hobetzeko, eta ur gutxiago galtzeko. Azpimarratzen dugu nazioarteko laguntza eta lankidetzak behar dela helburu horiek lortzeko.

Energia

125. Baiesten dugu energiak funtsezko zeregina duela garapen-prozesuan; izan ere, energia-zerbitzu moderno eta iraunkorrek eskura izateak pobrezia desagerrarazten laguntzen du, bizitzak salbatzen ditu, osasuna hobetzen du, eta gizakien oinarrizko premiak asetzen laguntzen du. Azpimarratzen dugu zerbitzu horiek funtsezkoak direla gizartean txertatzeko eta generoen arteko berdintasunerako, eta, halaber, energia giltzarri dela produkzioarako. Gaur egun horrelako zerbitzurik ez duten 1.400 milioi pertsoneri zerbitzu horiek eskura izateko laguntza emateko konpromisoa hartzen dugu. Baiesten dugu zerbitzu horiek eskura izatea ezinbestekoa dela garapen iraunkorra lortzeko.

126. Berriro diogu ahalegina egin behar dela energia-zerbitzu moderno eta iraunkorrek denon eskura ez izatearen arazoa konpontzeko; bereziki, pobreei dagokienez, zerbitzu horiek erabiltzeko moduan egonda ere ordaindu ezin dituzten kasuetan. Berriro diogu neurri berriak hartu behar direla egoera hori hobetzeko, baita finantza-baliabide nahikoak mobilizatzearen bidez ere, garapen-bidean dauden herrialdeetan honelako zerbitzuak eman ditzaten: fidagarriak, arrazoizko kostua dutenak, ekonomikoki bideragarriak, eta gizartearen eta ingurumenaren aldetik onargarriak direnak.

127. Berresten dugu herrialde bakoitzaren egoeran eta garapen-helburuetan oinarritutako politika eta estrategia nazional eta azpinazionalen aplikazioak gure laguntza izango duela, eta horretarako baliatuko direla bitarteko hauek: garapen-premiak asetzeko energia-matrize egoki bat, energia-iturri berriztagarri gehiago edo emisio gutxiko beste teknologia batzuk, energia efizientzia handiagoz, energia-teknologia aurreratu gehiago –erregai fosilen aprobetxamenduan gutxiago kutsatzen duten teknologiak barne hartuta– eta iraunkortasuna bermatzen duten energia-baliabide tradizionalak. Iraunkortasunaren aldeko energia-zerbitzu modernoak pertsona guztientzako sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, ekimen nazional eta azpinazionalen bidez; esate baterako, elikagaiak egosteko eta berotzeko iraunkortasunaren aldeko elektrifikazioa eta soluziobideak hedatuko dira, eta jardunbide onenak partekatzeko eta politikak erabakitzeko lankidetzak-jarduerak ere egingo dira, egoki denaren

arabera. Gobernuei eskatzen diegu inguru egokiak sortzeko, gutxiago kutsatzen duten eta beharrezkoak diren teknologietan inberti dezaten sektore publiko nahiz pribatuek.

128. Baiesten dugu efizientzia energetikoa hobetzea, energia berriztagarrien proportzioa handitzea, eta gutxiago kutsatzen duten eta errendimendu handikoak diren teknologiak erabiltzea elementu garrantzitsuak direla garapen iraunkorrerako, baita aldaketa klimatikoari aurre egiteko ere. Halaber, baiesten dugu efizientzia energetikoaren alorreko neurriak hartzeko premia dagoela hiri-plangintzan, eraikuntzan eta garraioan, ondasun eta zerbitzuen ekoizpenean, eta produktuen diseinua egitean. Gainera, baiesten dugu garrantzitsua dela efizientzia energetikorako eta energia-matrizearen dibertsifikaziorako pizgarriak sustatzea eta kontrako joera eragin dezaketen faktoreak desagerraraztea, are herrialde guztietan ikerkuntza- eta garapen-jarduerak bultzatuz ere, garapen-bidean dauden herrialdeak tartean direla.

129. Ikusten dugu abian dagoela idazkari nagusiaren Energia Iraunkorra Guztiontzat ekimena, ardatz dituen energia eskura izatea, efizientzia energetikoa eta energia berriztagarriak. Guztiok lan egiteko prest gaude, guztiontzako energia iraunkorra egia bihurtzeko, eta, horrenbestez, pobrezia desagerrarazten eta garapen iraunkorrerako eta mundu oparorako bidean aurrera egiten laguntzeko. Baiesten dugu garrantzi handikoak direla energiari lotutako gai zabalagoetan herrialdeek egiten dituzten jarduerak, eta lehentasunezko arreta dutela, herrialde bakoitzaren arazoan, gaitasunen eta inguruabarren arabera, energia-matrizea ere barne hartuta.

Iraunkortasuna bermatzen duen turismoa

130. Azpimarratzen dugu ondo planteatutako eta ondo kudeatutako turismoa ekarpen handia dela garapen iraunkorraren hiru dimentsioetarako; beste sektore batzuei estu-estu lotuta dago, eta enplegu duina eta merkataritza-aukerak sor ditzake. Baiesten dugu iraunkortasuna babesten duten turismo-jarduerak eta jarduera horiei lotutako gaitasunak sortzea babestu behar direla; izan ere, gaitasun horiek bideratzen dute ingurumen-kontzientzia sortzea; ingurumena kontserbatzea eta babestea; basoko fauna eta landareak, aniztasun biologikoa, ekosistemak eta kultura-aniztasuna errespetatzea; eta toki-komunitateen ongizatea eta bizimodua hobetzea, tokiko ekonomiei eta giza eta natura-inguruneari oro har lagunduz. Eskatzen dugu iraunkortasuna babesten duten turismo-jarduerari eta arlo horretan gaitasuna sortzen duten ekintzei laguntza handiagoa emateko garapen-bidean dauden herrialdeetan, garapen iraunkorra lortzen laguntze aldera.

131. Iraunkortasuna bermatzen duen turismoaren arloko inbertsioak sustatzea bultzatzen dugu, ekoturismoa eta turismo kulturala barne hartuta. Enpresa txiki eta ertainak sortzea ekar dezake, eta finantza-baliabideak eskura izatea; besteak beste, potentzial ekoturistiko handiko eremuetako komunitate pobre eta indigenentzako eta toki-komunitateentzako mikrokredituen bidez. Horri dagokionez, azpimarratzen

dugu garrantzitsua dela ildo nagusi eta araudi egokiak ezartzea, behar izanez gero, lehentasun eta lege nazionalen arabera, iraunkortasuna bermatzeko moduko turismo bat sustatze eta babeste aldera.

Iraunkortasuna bermatzen duen garraioa

132. Ikusten dugu garraioa eta mugikortasuna funtsezkoak direla garapen iraunkorrerako. Garraio iraunkorrak hazkunde ekonomikoa areagotu dezake, baita sarbidea hobetu ere. Iraunkortasunaren aldeko garraioarekin, ekonomiaren integrazio hobea lortzen da eta, aldi berean, ingurumena errespetatzen da. Baiesten dugu garrantzitsua dela eskura izatea pertsonen eta salgaien zirkulazio efizientearen eta ingurumenaren aldetik arazoizkoak diren garraio-sistemak; izan ere, gizarte-ekitatea, osasuna, hirietako erresilientzia, hiriguneen eta landa-eremuen arteko loturak eta landa-eremuen produktibitatea hobetzeko bide seguru eta eskuragarriak dira. Ildo horretan, garapen iraunkorra lortzeko ahaleginen zati da errepideko segurtasuna.

133. Garraio-sistemen garapena babesten dugu. Besteak beste, energiaren ikuspegitik efizienteak diren garraio-sistemak; zehazki, kutsadurarik eragiten ez duten ibilgailuak, erregaiak eta garraio publikorako sistemak, baita landa-eremuetarako garraio-sistema hobetuak ere. Baiesten dugu garraio-zerbitzu eta -sistemarako politikak egiteko ikuspegi integratu bat sustatu behar dela nazio-, eskualde- eta toki-mailan, garapen iraunkorra bultzatzea helburu hartuta. Halaber, baiesten dugu iraunkortasuna bermatzen duten zirkulazio-garraioko sistemak ezartzean aintzat hartu behar direla garapen-bidean dauden eta itsasertzik ez duten, eta iragate-herrialdeen garapen-premia bereziak. Baiesten dugu garapen-bidean dauden herrialdeei nazioarteko laguntza eman behar zaiela arlo horretan.

Iraunkortasuna bermatzen duten hiri eta giza kokalekuak

134. Baiesten dugu ondo planifikatutako eta garatutako hiriek, planifikaziorako eta kudeaketarako ikuspegi integratuak aplikatuta, gizarte iraunkorrak susta ditzaketela ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik. Horri dagokionez, hiri-garapenari eta giza kokalekuei buruzko ikuspegi holistikoa aplikatzea premiazkoa dela baiesten dugu. Ikuspegi horrek etxebizitza eta azpiegitura eskuragarriak aurreikusi behar ditu, eta lehentasuna eman behar die bazter-auzoak hobetzeari eta hiria berritzeari. Giza kokalekuen kalitatea hobetzeko lan egiteko konpromisoa hartzen dugu, bai hirigunetako bai landa-eremuetako biztanleen bizi- eta lan-baldintzak barne hartuta, pobrezia desagerraraztearen testuinguruan, pertsona guztiak oinarritzko zerbitzuak eta etxebizitza eskura izan ditzaten, baita joan-etorriak egiteko aukera ere. Halaber, baiesten dugu giza kokalekuen ondare natural eta kulturala zaindu behar dela, kasuan-kasuan dagokionaren arabera, eta barruti historikoak biziberritu eta hiriguneak gaiberritu behar direla.

135. Iraunkortasuna bermatzen duten hiri eta kokalekuak planifikatzeko eta eraikitzeko ikuspegi integratu bat sustatzeko konpromisoa hartzen dugu. Ikuspegi horrek barne hartzen ditu, besteak beste, tokiko agintariei

laguntza ematea, biztanleei kontzientzia harraraztea, eta hiriguneetako biztanleen parte-hartzea handitzea erabakiak hartzeko prozesuetan, baita pobreen parte-hartzea ere. Halaber, konpromisoa hartzen dugu honako helburu hauek bultzatzen dituzten garapen iraunkorreko politikak sustatzeko: gizarte-zerbitzu eta etxebizitza-zerbitzu inklusiboak; pertsona guztientzako bizi-baldintza seguru eta osasungarriak –batez ere, haurrentzat, gazteentzat, emakumeentzat, adinduentzat eta ahalmen-urritasunen bat duten pertsonentzat–; iraunkortasunaren aldeko garraio eta energia eskuragarriak; hiri-espazio berde eta seguruak sustatzea, babestea eta berrezartzea; edateko ura eta saneamendua; kalitate oneko airea; enplegu duinak sortzea; eta hiri-plangintza eta bazter-auzoen planifikazioa hobetzea. Gainera, iraunkortasuna bideratzen duen hondakin-kudeaketa babesten dugu; alegia, “3 erre” oinarri dituen printzipioaren aplikazioa: *reduce, reuse, recycle* (murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea). Azpimarratzen dugu hiri-plangintzan garrantzitsua dela hondamendi-arriskuak, erresilientzia, eta aldaketa klimatikoak eragindako arriskuak kontuan hartzea. Baiesten dugu hirietan ahaleginak egiten direla garapenaren alorrean landa-eskualdeekiko oreka lortzeko.

136. Azpimarratzen dugu garrantzitsua dela gero eta metropoli-eskualde, hiri eta herri gehiagok aplikatzea iraunkortasunaren aldeko hiri-plangintzen eta -diseinuen politikak, hurrengo hamarkadetarako aurreikusitako hiri-populazioari eraginkortasunez aurre egiteko. Ikusten dugu iraunkortasunaren aldeko hiri-plangintzaren prozesua aberastu egiten dela interesdun askok parte hartuz gero, baita sexuaren arabera bereizitako informazio eta datuak erabiliz gero ere; bereziki, joera demografikoei, diru-sarreraren banaketei eta inprobisatutako kokalekuei buruzko datuen kasuan. Baiesten dugu udal-gobernuei zeregin garrantzitsu bat dagokiela iraunkortasunaren aldeko hirien ikuspegiaren eraketan, hiriak planifikatzeko prozesutik hasi eta hiri eta auzo zaharrak biziberritzera iritsi arte, eta are hainbat eremu barne hartuta, hala nola eraikinen kudeaketarako efizientzia energetikoan oinarritutako programak gauzatzea eta tokiko egoerari egokitutako garraio-sistema iraunkorrak garatzea. Gainera, baiesten dugu garrantzitsua dela lurzorua erabilera mistoan oinarritutako planifikazioa aplikatzea, eta motorrik gabeko garraioen bidezko mugikortasuna bultzatzea. Horretarako, oinezkoentzako eta txirrindularientzako azpiegiturak sustatu behar dira.

137. Baiesten dugu hirien eta komunitateen arteko elkartzeek zeregin garrantzitsua dutela garapen iraunkorraren sustapenean. Ildo horretan, azpimarratzen dugu premiazkoa dela sendotzea lankidetzarako mekanismo eta plataformak, elkartze-akordioak eta Nazio Batuen Habitat Programaren gauzatze koordinaturako aplikatzen diren beste tresna batzuk. Zeregin horretan, Nazio Batuetako erakunde eskudun guztiek parte-hartze aktiboa izango dute, eta iraunkortasunaren aldeko hiri-garapen bat lortzea hartuko da helburu orokortzat. Gainera, baiesten dugu Habitat eta Giza Kokalekuetarako Nazio Batuen Fundazioari finantza-ekarpen nahikoak eta aurreikus daitezkeenak egitea beharrezkoa dela oraindik ere, Habitat Programa mundu osoan modu egoki, eraginkor eta zehatzean aplikatzen dela bermatzeko.

Osasuna eta biztanleria

138. Baiesten dugu osasuna garapen iraunkorraren alde aurreko baldintza bat, emaitza bat eta hiru dimentsioen adierazle bat dela. Badakigu garapen iraunkorraren helburuak lortzeko ezinbestekoa dela gaixotasun ahulgarri kutsakor eta ez-kutsakorrek prebalentzia alturik ez izatea, eta biztanleek ongizate fisiko, mental eta sozialera iristeko aukera izatea. Ziur dakigu osasuna mugatzen duten gizarte- eta ingurumen-faktoreei buruzko neurriak garrantzitsuak direla, bai pobreentzat eta egoera zaurgarrian daudenentzat, bai biztanle guztientzat, gizarte inklusiboak, bidezkoak, ekonomiaren aldetik produktiboak, eta osasuntsuak sortzeko. Eskatzen dugu oso-osorik gauzatu dadila osasun fisiko eta mentala ahalik eta maila altuenean gozatzeko guztiok dugun eskubidea.

139. Halaber, baiesten dugu osasun-zerbitzu unibertsala garrantzitsua dela iraunkortasuna bermatzeko moduko osasuna, gizarte-kohesioa, giza garapena eta garapen ekonomikoa sustatzeari begira. Osasun-sistemak sendotzeko konpromisoa hartzen dugu, bidezko zerbitzu unibertsala bermatze aldera. Eskatzen dugu eragile guztiek parte har dezatela ekintza multisektorial koordinatu bati ekiteko, munduko biztanleen osasun-premiei urgentziaz arreta ematea helburu hartuta.

140. Azpimarratzen dugu GIBak eta HIESak, malariak, tuberkulosiak, gripeak, poliomielitisak eta beste gaixotasun kutsakor batzuek munduan kezka handia eragiten dutela gaur egun ere, eta konpromisoa hartzen dugu GIBari dagokion prebentzioa, tratamendua, arreta eta laguntza emateko, eta ahaleginak areagotzeko GIB-transmisiorik izan ez dadin ama-haurren artean; halaber, malariaren, tuberkulosiaren eta tratatzen ez diren gaixotasun tropikalen aurkako borroka berritzeko eta sendotzeko konpromisoa hartzen dugu.

141. Baiesten dugu gaixotasun ez-kutsakorrek mundu-mailan eragiten dituzten karga eta mehatxuak direla garapen iraunkorrek XXI. mendean dituen eragozpen nagusietakoak. Osasun-sistemak sendotzeko konpromisoa hartzen dugu, dagokion estaldura unibertsala emateko; halaber, gaixotasun ez-kutsakorrei dagokien prebentzioa, tratamendua, arreta eta laguntza eskura izatea sustatzeko konpromisoa hartzen dugu; bereziki, minbizia, gaixotasun kardiobaskularrak, arnasketa-gaixotasun kronikoak eta diabetesa aintzat hartuta. Halaber, konpromisoa hartzen dugu gaixotasun ez-kutsakorrek prebenitzeari eta kontrolatzeari begirako politika nazional multisektorialak ezartzeko edo sendotzeko. Baiesten dugu atmosferaren eta uraren kutsadura eta produktu kimikoek eragindakoa murrizteak, besteak beste, ondorio positiboak dituela osasunean.

142. Berresten dugu xedapen hauek oso-osorik aplikatzeko eskubidea: merkataritzarekin lotutako jabetza intelektualaren eskubideen aldeei buruzko akordioa (TRIPSei buruzko Akordioa); TRIPSei buruzko Akordioari eta osasun publikoari dagokion Dohako Adierazpena; Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontseilu Nagusiaren 2003ko abuztuaren 30eko erabakia, TRIPSei buruzko Akordioari eta osasun publikoari

dagokion Dohako Adierazpenaren 6. paragrafoa aplikatzeari buruzkoa; eta, onarpen ofizialerako prozedurak amaitzen direnean, Akordioaren 31. artikulua zuzenketa. Osasun publikoa babesteko malgutasuna ematen dute –bereziki, pertsona guztiek sendagaiak eskura izatea sustatzeko–, eta garapen-bidean dauden herrialdeei osasun-arloan laguntza ematea bultzatzen dute.

143. Lankidetzeta eta kooperazio handiagoa eskatzen dugu nazio- eta nazioarte-mailan, osasun-sistemak sendotzeko, bitarteko hauez baliatuta: osasunaren finantziario handiagoa; osasun-langileak kontratatzea, garatzea, gaitzea eta atxikitzea; sendagaiak, txertoak eta medikuntza-teknologiak hobeki banatzea jendearen artean eta pertsona guztiek eskura izatea; prezio eta kalitate oneko seguru eraginkorrak, eta osasun-azpiegitura hobea. Osasunaren Mundu Erakundearen lidergoa bultzatzen dugu, nazioarteko osasun-gaietan zuzendari- eta koordinatzaile-lanak egiten dituen agintaritzaren aldean.

144. Konpromisoa hartzen dugu joera eta proiektzio demografikoak sistematikoki kontuan izateko nazio-, landa- eta hiri-garapenerako estrategia eta politiketan. Etorkizunari begira egindako plangintza baten bidez, aukerak baliatu eta aldaketa demografikoari lotutako erronkei aurre egin diezaiekegu; besteak beste, migrazioari.

145. Eskatzen dugu ekimen hauek osorik eta eraginkortasunez aplikatzeko: Beijingo Ekintza Plataforma, Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren Ekintza Programa eta azterketa-konferentzien emaitzak, are sexu- eta ugal-osasunari buruzko konpromisoak eta testuinguru horretan giza eskubide guztiak sustatzeko eta babesteko ere. Azpimarratzen dugu premiazkoa dela ugal-osasuna eskura jartzea –familia-plangintza eta sexu-osasuna barne hartuta–, baita ugal-osasuna estrategia eta programa nazionaletan integratzea ere.

146. Amen eta haurren hilkortasun-tasa murrizteko konpromisoa hartzen dugu, baita emakumeen, gazteen eta haurren osasuna hobetzeko konpromisoa ere. Berresten dugu gure konpromisoa honako alderdi hauei dagokienez: generoen arteko berdintasuna; emakume, gizon eta gazteek duten eskubidea norberaren sexualitatearen inguruko gaiei buruzko kontrola izateko, sexu- eta ugal-osasuna eskura izatea barne hartuta; eta gai horiei buruz aske erabakitzeko aukera, hertsatzeen, diskriminazioen eta indarkerien mende egon gabe. Aktiboki lan egingo dugu, osasun-sistemek emakumeen sexu- eta ugal-osasuna zaintzeko behar diren informazioak eta osasun-zerbitzuak ematen dituztela bermatzeko; bereziki, familia-plangintzarako metodo moderno, seguru, eraginkor, eskuragarri eta onargarriak izateko guztion eskura. Izan ere, alderdi hori funtsezkoa da emakumeen osasunerako eta generoen arteko berdintasunerako.

Enplegu osoa eta ekarkorra, pertsona guztientzako lan duina eta gizarte-babesa sustatzea

147. Baiesten dugu elkarrekin lotuta daudela pobrezia desagerraraztea, enplegu osoa eta ekarkorra eta pertsona guztientzako lan duina, gizarte-integrazioa eta gizarte-babesa, eta elkar sendotzen dutela. Horretaz

148. Kezkagarriak dira lan-merkatuko baldintzak eta eskura oso lan duin gutxi izatea; bereziki, gizon-emakume gazteentzat. Gobernu guztiei eskatzen diegu gazteen enpleguak mundu-mailan dakarren erronkari aurre egiteko, mundu guztiko gazteei lan duina eta produktiboa emateko estrategia eta politikak eginez eta aplikatuz; izan ere, hurrengo hamarkadetan lan duinak sortu beharko dira, garapen iraunkorra eta inklusiboa bermatzeko eta pobrezia murrizteko.

149. Baiesten dugu garrantzitsua dela enplegua sortzea, inbertsioaren eta azpiegitura sozial eta ekonomiko sendo, eraginkor eta efizienteak garatzearen bidez, eta garapen iraunkorra eta hazkunde ekonomiko jarraitu, inklusibo eta bidezko bat lortzeko produkzio-gaitasunaren bitartez. Herrialdeei aholkatzen diegu garapen iraunkorrerako azpiegituretan inbertsioak sendotzeko, eta erabaki dugu Nazio Batuetako funts, programa eta erakundeei laguntza ematea, garapen-bidean dauden herrialdeetan – bereziki, gutxien aurreratuta dauden herrialdeetan –, esparru horretan laguntza emate eta neurriak sustatze aldera.

150. Baiesten dugu garrantzitsua dela enplegua sortzea, etorkizunera bideratutako politika makroekonomikoak gauzatzearen bidez. Politika horiek garapen iraunkorra sustatu behar dute, hazkunde ekonomiko jarraitu, inklusibo eta bidezko bat eragin behar dute, enplegu produktiboa izateko aukera gehiago sortu behar dute, eta nekazaritza- eta industria-garapena sustatu behar dute.

151. Azpimarratzen dugu premiazkoa dela pertsona guztientzako enplegu-aukerak eta diru-sarrerak handitzea –bereziki, pobrezian bizi diren gizon-emakumeentzat–; eta, horri dagokionez, babesten ditugu nazioek egiten dituzten ahaleginak landa-eremuetako eta hiriguneetako pobreei enplegu-aukera berriak emateko; besteak beste, enpresa txiki eta ertainei laguntza ematearen bidez.

152. Baiesten dugu langileek eskura izan behar dituztela hezkuntza, gaitasunak, osasun-zaintza, gizarte-segurantza, laneko funtsezko eskubideak, babes sozial eta juridikoak –laneko segurtasuna eta osasuna barne hartuta– eta lan duina lortzeko aukerak. Gobernuak, sindikatuak, langileek eta enplegataileek beren eginkizuna bete behar dute denentzako lan duina sustatzeko bidean, eta guztiek lagundu behar diete gazteei beharrezko gaitasunak eta lan-aukerak lortzen, baita sektore berrietan eta agertzen ari diren sektoreetan ere. Emakumeek eta gizonek lan-gaitasunak eskuratzeko eta lan-babesez gozatzeko aukera berak izan behar dituzte. Baiesten dugu garrantzitsua dela bidezko trantsizio bat egotea. Trantsizio horrek aintzat hartu behar ditu langileei lan-merkatuaren ezaugarri aldakorretara egokitzen laguntzeko programak.

153. Halaber, baiesten dugu egituratu gabeko eta ordaindu gabeko lana, gehienbat emakumeek egina, oso lagungarria dela giza ongizaterako eta garapen iraunkorrerako. Ildo horretan, lan-baldintza seguru eta duinak

lortzearen eta gizarte-babesa eta hezkuntza eskura jartzearen lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.

154. Baiesten dugu pertsona guztientzako lan-aukera duinak eta enplegua sortzea eragin daitezkeela, besteak beste, sektore publiko eta pribatuko inbertsioen bidez, bai berrikuntza zientifiko eta teknologikoetan, bai natura-baliabideen eta ekosistemen lehengoratze, birsortze eta kontserbazioan, bai gizarte- eta komunitate-zerbitzuetan. Adorea ematen digute gobernuek, natura-baliabideen eta ekosistemen lehengoratzearen eta kudeaketaren arloan, pobreentzako enplegua sortzeko gauzatutako ekimenek, eta sektore pribatuari eskatzen diogu pertsona guztientzako lan duina eta gizon-emakumeentzako enplegua sortzen laguntzeko –batez ere, gazteentzat–; besteak beste, enpresa txiki eta ertainekin eta kooperatibekin elkarturik. Horren haritik, baiesten dugu garrantzitsua dela pertsona guztientzako lan duinari eta enplegua sortzeari buruzko informazio eta ezagutzak truka daitezen sustatzea –neurrien, lan ekologikoei eta haiei lotutako ezagutzei buruzko ekimenak barne hartuta–, eta garrantzitsua dela, halaber, kasuan-kasuan dagozkion datuak ekonomiaren eta enpleguaren alorreko politika nazionaletan txerta daitezen bideratzea.

155. Bultzatzen dugu langabeziaren eta azpienpleguaren tasa altuak – bereziki, gazteenak– konpontzeko esperientziak eta jardunbide onenak partekatzea.

156. Azpimarratzen dugu behar-beharrezkoa dela gizarteko kide guztiei gizarte-babesa ematea, eta hazkundea, erresilientzia, gizarte-justizia eta kohesioa sustatzea, are ekonomia ofizialean enplegurik ez dutenentzat ere. Ildo horretan, herritar guztiei gutxieneko gizarte-babesa ematea helburu duten nazio- eta toki-mailako ekimenak gauzatzea bultzatzen dugu. Babesten dugu jardunbide onenei buruzko elkarrizketa bat gauzatzea mundu-mailan, garapen iraunkorraren hiru dimentsioak aintzat hartzen dituzten gizarte-babeserako programen testuinguruan, eta, horren haritik, kontuan hartzen dugu Lanaren Nazioarteko Erakundearen 202. gomendioa, gizarte-babeserako etxebizitza nazionaleri buruzkoa.

157. Estatuei eskatzen diegu migratzaile guztien giza eskubideak eta funtsezko askatasunak sustatzeko eta eraginkorki babesteko, haien migrazio-estatusa edozein izanda ere –bereziki, emakumeen eta haurren kasuan–, eta nazioarteko migrazioaz arduratzeko, nazioarteko, eskualdeko edo aldebiko lankidetzaren eta elkarrizketaren bidez eta ikuspegi integrala eta orekatua kontuan hartuta, jatorrizko herrialdeen, iragate-herrialdeen eta helburu diren herrialdeen eginkizun eta ardurak aintzat hartuta –migratzaile guztien giza eskubideak sustatze eta babeste aldera–, eta, betiere, haien zaugarritasuna areagotu dezaketen ikuspegiak aplikatzea saihestuta.

Ozeanoak eta itsasoak

158. Baiesten dugu ozeanoak, itsasoak eta kostaldeak Lurreko ekosistemaren funtsezko osagai integratuak direla, hari eusteko ezinbestekoak direla, eta nazioarteko zuzenbideak –Itsas Zuzenbideari

buruzko Nazio Batuen Konbentzioan jasota dagoenak- ematen duela ozeanoak eta haien baliabideak iraunkortasunaren ikuspegitik kontserbatzeko eta erabiltzeko esparru juridikoa. Azpimarratzen dugu garapen iraunkorrerako garrantzitsua dela ozeanoak eta itsasoak eta haien baliabideak iraunkortasunaren ikuspegitik kontserbatzea eta erabiltzea; bereziki, arlo hauek ekarpenei erreparatuta: pobrezia desagerraraztea, garapen ekonomiko jarraitua, elikadura-segurtasuna, bizibide iraunkorrak, eta lan duina sortzea. Aldi berean, garrantzitsua da bioaniztasuna eta itsas ingurunea babestea, eta garrantzitsuak dira, halaber, aldaketa klimatikoari aurre egiteko neurriak. Horren ondorioz, konpromiso hauek hartzen ditugu: ozeanoen eta itsas ekosistemen osasuna, produktibitatea eta erresilientzia babestea eta lehengoratzeko; haien kontserbazioa eta iraunkortasuna bideratuko duen erabilera sustatzea, egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat; eta ikuspegi ekosistemiko eraginkor bat aplikatzea eta kautela-ikuspegiaren arabera jokatzeko, nazioarteko zuzenbideari jarraituz, itsas ingurunean garapen iraunkorraren hiru dimentsioak lortzeko eragina duten jardueren kudeaketan.

159. Baiesten dugu Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa garrantzitsua dela garapen iraunkorrean aurrera egiteko, eta garrantzitsua dela, halaber, agiri hori ia estatu guztiek onartu izana. Ildo horretan, alderdi guztiei eskatzen diegu Konbentzioaren ondorioz dituzten eginbehar guztiak oso-osorik aplikatzeko.

160. Baiesten dugu garrantzitsua dela garapen-bidean dauden herrialdeen gaitasuna handitzea, ozeanoak eta itsasoak eta haietan dauden baliabideak iraunkortasunaren ikuspegitik kontserbatzeko eta erabiltzeko onura ateratzeko; eta, horri dagokionez, azpimarratzen dugu premiazkoa dela itsas ikerketa zientifikoetan lankidetzan jardutea, Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioan erabakitako xedapenak eta garapen iraunkorrari buruzko gailur nagusien emaitzak aplikatzeko, baita teknologia transferitzeko ere, Gobernuarteko Batzorde Ozeanografikoak itsas teknologiarri buruz ezarritako irizpide eta ildo nagusiak aintzat hartuta.

161. Babesten dugu itsas ingurunearen mundu-mailako egoera –alderdi sozioekonomikoak barne hartuta– azaltzen duten txosten eta ebaluazioak aurkezteko ohiko prozesua, Batzar Nagusian ezarritako esparruan, eta 2014an itsas ingurunearen mundu-mailako egoerari buruzko lehenengo ebaluazio integratua osatu zain eta Batzar Nagusiak ebaluazio hori aztertu zain gaude. Estatuei dei egiten diegu ebaluazioaren ondorioak azter ditzaten, maila egokietan.

162. Baiesten dugu garrantzitsua dela jurisdikzio nazionalako eremuz kanpoko itsas bioaniztasuna iraunkortasunaren ikuspegitik kontserbatzea eta erabiltzea. Ohartzen gara Batzar Nagusiaren esparruan lantalde berezi ez-ofizial batek gauzatzen duen zereginaz. Lantalde horren osaera irekia da, eta jurisdikzio nazionalako eremuez kanpoko itsas bioaniztasuna iraunkortasunaren ikuspegitik kontserbatzeko eta erabiltzeko buruzko gaiak ikertzeaz arduratzen da. Lantalde bereziak egindako lana oinarri hartuta, eta Batzar Nagusiaren hirurogeita bederatzigarren bilkura-aldia amaitu aurretik, konpromisoa hartzen dugu urgentziaz ekiteko jurisdikzio

163. Kezketan ikusten dugu ozeanoetako eta itsasoetako bioaniztasunaren osasunak eragin negatibo asko pairatzen dituela: itsas kutsadura –itsas hondakinak barne hartuta; bereziki, plastikoak–, kutsatzaile organiko iraunkorrak, metal astunak eta konposatu nitrogenatuak, itsasoko eta lurreko zenbait iturritatik etorriak, hala nola itsasontzien jardueretatik eta jariatzeetatik sortuak. Konprometitzen gara kutsadura horrek itsas ekosistemetan eragiten dituen ondorioak murrizteko neurriak hartzera; besteak beste, Nazioarteko Itsas Erakundearen (IMO) esparruan adostutako hitzarmenen aplikazio eraginkorraren bidez eta dagozkion ekimenen jarraipenaren bidez –esate baterako, itsas ingurunea lurreko jardueretatik babesteko Mundu Ekintzarako Programa–. Halaber, konprometitzen gara helburu hori erdiesteko estrategia koordinatuak hartzera. Gainera, 2025erako, bildutako datu zientifikoetan oinarritutako neurriak hartzera konprometitzen gara, itsas hondakinen murrizketa adierazgarri bat lortzeko, kostaldean eta itsas ingurunean eragin daitezkeen kalteen prebentzioa helburu hartuta.

164. Ikusten dugu espezie arrotz inbaditzaileak arrisku nabarmena direla itsas ekosistementzat eta itsas baliabideentzat, eta konpromisoa hartzen dugu neurri jakin batzuk aplikatzeko espezie arrotz inbaditzaileak sartzea prebenitzeari eta ingurumenean eragin ditzaketen ondorio kaltegarriak kudeatzeari begira; besteak beste IMOren esparruan hartutako neurrien bidez, egoki denean.

165. Ikusten dugu itsas mailaren igoera eta kostaldearen higadura mehatxu larriak direla hainbat uharte eta kostaldetako eskualdeetarako; bereziki, garapen-bidean dauden herrialdetan. Horren haritik, nazioarteko komunitateari aholkatzen diogu arazo horiei aurre egiteko ahaleginak areagotu ditzala.

166. Laguntza eskatzen dugu ozeanoen azidifikazioari eta aldaketa klimatikoak itsasoko eta kostaldeko ekosistema eta baliabideetan eragingo dituen ondorioei aurre egiteko ekimenetan. Ildo horretan, berriro diogu elkarrekin lan egin behar dugula ozeanoen azidifikazioa areagotzea prebenitzeko, itsas ekosistemen eta haien mendeko bizibideak dituzten komunitateen erresilientzia handiagotze aldera. Halaber, ozeanoen eta bereziki zaurgarriak diren ekosistemen azidifikazioari buruzko ikerketa zientifikoak, zaintza eta behaketa bultzatu behar dira; bereziki, arlo horren inguruko nazioarteko lankidetzaren bidez.

167. Azpimarratzen dugu kezkatuta gaudela ozeanoen ongarritzeak ingurumenean eragin ditzakeen ondorioengatik. Horren haritik, gogoan ditugu dagozkion gobernuarteko organoek ozeanoen ongarritzeari buruz hartutako erabakiak, eta ozeanoen ongarritzean kontu handiz jokatzeko jarraitzea erabaki dugu, kautela-printzipioari jarraituz.

168. Gure ahaleginak areagotzeko konpromisoa hartzen dugu, Johannesburgeko Erabakiak Aplikatzeko Planean adostutako helburua bete dadin; alegia, 2025erako arrain-populazioei eustea, edo agortutakoak urgentziaz lehengoratzeari, iraunkortasuna bideratzen duen etekin handiena ekoizteko gaitasuna izan dezaten. Ildo horretan, etekin iraunkor handiena ekoizteko gaitasunaren arabera mailan arrain-populazio guztiei eusteko edo lehengoratzeko neurriak urgentziaz hartzera konprometitzen gara, helburu horiek ahalik eta azkarren lortzeko, ezaugarri biologikoek ezarritako mugen arabera. Helburu horiek lortzeko, datu zientifikoetan oinarritutako antolamendu-planak urgentziaz prestatzeko eta aplikatzeko konpromisoa hartzen dugu, harrapatzeak murriztea edo bertan behera uztea eta arrain-populazioen egoeren arabera neurriak hartzea barne hartuta. Gainera, garrantzi apalagoko harrapatzeak, arrantza-bazterkinak, eta arrantzak ekosistemetan eragiten dituen beste ondorio kaltegarri batzuk kudeatzeko neurriak indartzeko konpromisoa hartzen dugu, arrantza-jardunbide suntsitzaileak desagerraraztera iristea helburu. Halaber, itsas ekosistema zaurgarriak eragin kaltegarri nabarmenetatik babesteko neurriak indartzeko konpromisoa hartzen dugu; bereziki, ondorioen ebaluazioen erabilera eraginkor baten bidez. Neurri horiek, erakunde eskudunen bidez hartutakoak barne, nazioarteko zuzenbidearen, nazioarteko tresna aplikagarrien, Batzar Nagusiaren dagozkion erabakien eta FAOren ildo nagusien arabera izan behar dute.

169. Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioan adierazitako xedapenak, eremuz gaindiko arrain-populazioak eta migrazio handiko arrain-populazioei iraunaraztea eta antolatzen laguntzea helburu dutenak, aplikatzeari buruzko 1995ko Akordioa oso-osorik betetzeko eskatzen diegu akordio horretan parte hartu zuten estatuei. Halaber, Akordioaren VII. zatia jarraituz, garapen-bidean dauden estatuen premia berezia guztiak aintzat hartzeko eskatzen diegu. Gainera, estatu guztiei aholkatzen diegu Arrantza Arduratsurako Jokabide Kodea eta FAOren nazioarteko ekintza-planak eta jarraibide teknikoak aplikatzeko.

170. Baiesten dugu legez kontrako, adierazi gabeko eta arautu gabeko arrantzak herrialde askori kentzen diela funtsezko baliabide natural bat, eta herrialde horien garapen iraunkorra etengabe mehatxatzen duela. Berrito hartzen dugu legez kontrako arrantza deuseztatzeko konpromisoa, Johannesburgeko Erabakiak Aplikatzeko Planean adierazitakoari jarraituz, eta jarduera horiek prebenitzeko eta suntsitzeko konpromisoa hartzen dugu; bereziki, neurri hauen bidez: nazio- eta eskualde-mailako ekintza-planak prestatzea eta aplikatzea, legez kontrako, adierazi gabeko eta arautu gabeko arrantza prebenitzeko, etsiarazteko eta desagerrarazteko FAOren Nazioarteko Ekintza Planaren arabera; nazioarteko zuzenbideari jarraituz, neurri eraginkor eta koordinatuak aplikatzea premiak sistematikoki zehaztu eta gaitasuna garatu dezaten urbazterreko estatuek, bandera-estatuek, portu-zuzendaritza baten ardura duten estatuek, pleitamendu-nazioek, eta benetako jabeen eta legez kontrako, adierazi gabeko edo arautu gabeko arrantza egiten duten beste batzuen edo haiei babesa ematen diotenen nazionalitateei dagozkien estatuek. Horretarako, arrantza horretan diharduten ontziak identifikatu eta errudunei kenduko

zaizkie arrantza horren bidez eskuratutako onurak, baita garapen-bidean dauden herrialdeekiko lankidetzaren bitartez ere, legearen jarraipenerako, kontrolerako, zaintzarako, betearazteko eta aplikatzeko sistementzako laguntza barne hartuta.

171. Portu-zuzendaritza baten ardura duen estatuak legez kontrako, adierazi gabeko eta arautu gabeko arrantza prebenitzeko, etsiarazteko eta desagerrarazteko hartutako neurriei buruzko FAOren Akordioa sinatu duten estatuei aholkatzen diegu berreste-prozedurak bizkortzeko, Akordioa indarrean jar dadin laster.

172. Baiesten dugu behar-beharrezkoa dela arrantza-antolaketako eskualdeko erakundeek gardentasuna izatea eta kontuak ematea arrantza-antolaketan. Jardueraren azterketa independenteak egin dituzten arrantza-antolaketako eskualdeko erakundeek jada hartutako neurriak baiesten ditugu, eta arrantza-antolaketako eskualdeko erakunde guztiei aholkatzen diegu aldian behin ebaluazio horiek egiteko eta emaitzak argitaratzeko. Azterketa horien ostean emandako gomendioak aplikatzea bultzatzen dugu, eta denborarekin haien hedapena zabaltzeko aholkatzen dugu, behar izanez gero.

173. Berresten dugu Johannesburgeko Erabakiak Aplikatzeko planean hartutako konpromisoa; alegia, legez kontrako, adierazi gabeko edo arautu gabeko arrantzari eta gehiegizko arrantza-gaitasunari laguntzea dakarten diru-laguntzak kentzea, sektore horrek garapen-bidean dauden herrialdeentzat duen garrantzia kontuan hartuta, eta berresten dugu konpromisoa hartzen dugula MMAren Garapenerako Dohako Programa eta Hong Kongeko Ministerio Adierazpena gauzatzea dakarten arrantzarako diru-laguntzen inguruko diziiplina multilateralak hitzartzeko, arrantza-sektoreko diru-laguntzak jasotzeko arauak zorrotzagoak izan daitezen, are gehiegizko arrantza-gaitasuna eta gainarrantza dakarten arrantzarako diru-laguntzen modalitate batzuk debekatzera ere irits daitezen. Baiesten dugu MMAren arrantzarako diru-laguntzei buruzko negoziaketan parte izan behar duela berariazko tratu berezia, egokia eta eraginkorra ematea garapen-bidean dauden eta gutxien aurreratuta dauden herrialdeei, sektoreak garapen-lehentasunetan, pobrezia murriztean, eta bizibideei eta elikadura-segurtasunari buruzko gaitan duen garrantzia aintzat hartuta. Estatuak akuilatzen ditugu gardentasuna areagotzeko eta MMAren bidez arrantzarako diru-laguntzak jasotzeko programei buruzko txostenak aurkezteko. Arrantza-baliabideen egoera kontuan hartuta, eta MMAren Dohako Programaren eta arrantzarako diru-laguntzei buruzko Hong Kongeko ministerio-aginduen edota negoziazio horiek hitzartzeko premiaren kaltetan izan gabe, estatuak akuilatzen ditugu gehiegizko arrantza-gaitasuna eta gainarrantza dakarten arrantzarako diru-laguntzak ken ditzaten, antzeko diru-laguntzarik jarri gabe, eta lehendik daudenak luzatu edo indartu gabe.

174. Eskatzen dugu 2014rako zehaztu eta integra daitezela garapen-bidean dauden herrialdeei laguntza handiagoa emateko estrategiak; bereziki, gutxien aurreratuta dauden herrialdeei eta garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiei dagokienez, aukera izan dezaten arrantzari

iraunarazteko, arrantza iraunkortasunari begira kudeatzeko, eta iraunkortasunari begirako arrantzaren onurak eskuratzeko –bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetako arrantza-produktuak gehiago merkaturatzearen bitartez–.

175. Arrantzalekuetarako sarbidea bermatzeko premiaz ohartzeko konpromisoa hartzen dugu, eta jabetzen gara garrantzitsua dela merkatuetan sartzea bizirauteko arrantzan, eskala txikiko arrantzan eta artisau-arrantzan diharduten arrantzaleak, are emakume arrantzaleak, herri indigenak eta haien komunitateak ere; batez ere, garapen-bidean dauden herrialdeetan, eta, bereziki, garapen-bidean dauden uharte-estatu txikietan.

176. Baiesten ditugu, halaber, koralezko uharriek ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik egindako ekarpen garrantzitsuak –bereziki, uharteen eta urbazterreko beste estatu batzuen kasuan–, baita koralezko uharrietan eta mangladietan hainbat faktoreren ondorioz eragindako zaurgarritasun larria ere (aldaketa klimatikoa, ozeanoen azidifikazioa, gehiegizko arrantza, arrantza-jardunbide suntsitzaileak eta kutsadura). Nazioarteko lankidetzak babesten dugu, koralezko uharrietako eta mangladietako ekosistemak kontserbatu daitezen, eta gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren aldetik dakartzaten onurak erdiets daitezen. Halaber, lankidetzak teknikoak eta borondatezko informazio-trukea bideratzen ditugu.

177. Berresten dugu garrantzitsuak direla eremu geografikoak kontserbatzeko neurriak; besteak beste, itsas eremu babestuak, nazioarteko zuzenbideari jarraituz eta eskura dagoen informazio zientifiko hoberena oinarri hartuta eratzen baitira, bioaniztasunari eusteko tresna gisa eta bioaniztasunaren osagaiak iraunkortasunaren ikuspegitik erabiltzeko aukera gisa. Gogoan dugu X/2 erabakia, Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmenari dagokion Alderdien Konferentziako hamargarren bileran onetsia. Erabaki horren bidez adostu zen 2020rako itsasoko eta kostaldeko eremuen % 10 –bereziki, bioaniztasunerako eta ekosistemen zerbitzurako garrantzi handikoak izanez gero– eremu babestuen sistemaren bidez kontserbatzea, eraginkortasunez eta ekitatez kudeatuta. Eremu horiek adierazgarriak dira ekologiararen aldetik, ondo konektatuta daude, eta badituzte eremu geografikoak kontserbatzeko beste neurri eraginkor batzuk.

Garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiak

178. Berresten dugu garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiak kasu bereziak direla, oraindik ere, garapen iraunkorrerako, zaurgarritasun berdingabe eta bereziak dituztelako; besteak beste, tamaina txikia, urruntasuna, baliabide eta esportazioen oinarri mugatua, eta sentikortasun handia mundu-mailako ingurumen-arazoekiko eta kanpoko astindu ekonomikoekiko, aldaketa klimatikoaren hainbat ondorio eta potentzialki sarriagoak eta bortitzagoak diren hondamendi naturalak barne hartuta. Kezketan ikusten dugu Maurizioko Estrategiari dagozkion bost urtean behingo azterketen emaitzen ondorioa: garapen-bidean dauden uharte-

estatu txikiek gutxiago aurreratu dute gainerako herrialde-talde gehienek baino, eta, kasu batzuetan, atzera ere egin dute, ekonomiari erreparatuz gero; bereziki, pobrezia murrizteari eta zorrari eusteko gaitasunari dagokionez. Itsas mailaren igoera eta aldaketa klimatikoaren beste ondorio kaltegarri batzuk arrisku adierazgarriak dira, oraindik ere, garapen-bidean dauden uharte-estatu txikientzat eta garapen iraunkorra lortzeko egiten dituzten ahaleginentzat; askorentzat, iraupenerako eta bideragarritasunerako mehatxu larrienak dira, eta, batzuentzat, lurra galtzea ere ekar dezakete. Gainera, kezkaturik jarraitzen dugu; izan ere, uharte-estatu txikiek urratsak egin dituzte generoaren, osasunaren, hezkuntzaren eta ingurumenaren alorrean, baina Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko aurrerabide orokorrak gorabeheratsuak izan dira.

179. Eskatzen dugu garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiei Barbadosko Ekintza Programaren eta Maurizioko Estrategiaren bidez laguntzeko neurriei jarraipena ematea eta neurri gehiago jartzea. Halaber, Nazio Batuen sistemak garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiei ematen dien laguntza handitzeko eskatzen dugu, garapen iraunkorra lortzeko gaur egungo erronkei eta agertzen ari direnei aurre egite aldera.

180. Barbadosko Ekintza Programa eta Maurizioko Estrategia oinarri hartuta, eskatzen dugu 2014an egiteko garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiei buruzko nazioarteko hirugarren konferentzia. Ildo horretan, neurri koordinatu, orekatu eta integratuen garrantzia aintzat hartzen dugu, garapen iraunkorrerako erronkei aurre egiten laguntzen baitiete garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiei, eta Batzar Nagusiari eskatzen diogu hirurogeita zazpigarren bilkura-aldian zehazteko konferentziak zer modalitate izango dituen.

Gutxien aurreratuta dauden herrialdeak

181. Adostu dugu Istanbulgo Ekintza Programa eraginkorki aplikatzea eta haren lehentasun-alorrak oso-osorik integratzea egungo ekintza-esparruan. Aplikazio zabalago hori lagungarria izango da Istanbulgo Ekintza programaren helburu nagusia lortzeko; alegia, gutxien aurreratuta dauden herrialdeen erdiek 2020rako betetzea gutxien aurreratuta dauden herrialdeen zerrendatik kanpo geratzeko irizpideak.

Garapen-bidean dauden eta itsasertzik ez duten herrialdeak

182. Dei egiten diegu estatu kideei, garapenerako elkartutako kideei, Nazio Batuen sistemako erakundeei, eta nazioarte-, eskualde- eta azpieskualde-mailan dagozkion beste erakunde batzuei, Almatyko Ekintza Programan adostutako bost lehentasun-alorretako berariazko neurriak eta Almatyko Ekintza Programarako aldiaren erdialdeko azterketari buruzko adierazpenean zehaztutakoa aplikatzeko prozesua lasterragotu dezaten, era koordinatutagoan; bereziki, garraio- eta biltegiatze-instalazioak eta iragateei lotutako beste zerbitzu batzuk eraikitze, mantentzeko eta hobetzeko, baita bide alternatiboak bilatzeko, falta diren konexioak burutzeko, eta komunikazio- eta energia-azpiegiturak hobetzeko ere, garapen-bidean dauden eta itsasertzik ez duten herrialdeen garapen iraunkorra babestea helburu hartuta.

Afrika

183. Afrikako garapen-premiei loturiko nazioarteko konpromisoak betetzeko zenbait aurrerapen egin direla baiesten badugu ere, kontinente horren garapen iraunkorra lortzeko eragozpen larriek bere horretan jarraitzen dutela azpimarratzen dugu.

184. Nazioarteko komunitateari aholkatzen diogu laguntza handiagoa emateko, eta Afrikaren garapen iraunkorrerako funtsezkoak diren alorretan neurriak sustatzeko hartutako konpromisoak betetzeko. Horrez gain, begi onez ikusten ditugu elkartuek garapenerako egindako ahaleginak, Afrikaren Garapenerako Aliantza Berriarekiko lankidetzaren sendotzea baitute helburu. Halaber, atseginez hartzen ditugu Afrikako herrialdeek arlo hauetan egindako aurrerabideak: demokrazia, giza eskubideak, gobernantza ona eta arazoizko kudeaketa ekonomikoa. Ildo horretan ahaleginak egiten jarraitzea bultzatzen ditugu. Afrikaren garapenaren alde elkartutako herrialde guztiei –batez ere, herrialde garatuei– dei egiten diegu, Afrikako herrialdeei lagundu diezaieten, giza gaitasunak eta erakunde demokratikoak sendotzeko bidean, haien lehentasun eta helburuen arabera, Afrikaren garapena bultzatzeko, maila guztietan; bereziki, Afrikako herrialdeek behar duten teknologia transferitzea bideratuz, elkarrekin adostutakoaren arabera.

Baiesten dugu Afrikako herrialdeek ahalegin jarraikiak egin dituztela hazkunde inklusiborako inguru egokiak sortzeko, garapen iraunkorrean laguntzeko asmoz. Baiesten dugu, halaber, nazioarteko komunitateak eginahal etengabeak egin behar dituela iturri publiko eta pribatu, nazional eta atzerriar guztietatik garapena finantzatzera bideratutako baliabide berri eta gehigarrien emaria handitzeko, Afrikako herrialdeen garapenerako ahaleginak babeste aldera. Horrenbestez, atseginez hartzen ditugu Afrikako herrialdeen eta haiekin elkartutakoen artean bide horretan aurrera egiteko sortutako ekimen garrantzitsuak.

Eskualde-ekimenak

185. Garapen iraunkorra sustatzearren, eskualde-mailako neurri koordinatuei ekitera dei egiten dugu. Horri dagokionez, baiesten dugu garapen iraunkorra sustatzeko neurri garrantzitsuak hartu direla –batez ere, arabiar eskualdean, Latinoamerikan, Kariben, eta Asiako eskualdean eta Pazifikoan–, dagozkien foroen bitartez, hala nola Nazio Batuetako eskualde-batzordeak. Zenbait alorretan oraindik ere arazoak badaude ere, nazioarteko komunitateak atseginez hartzen ditu jarduera horiek eta lortutako emaitzak, eta maila guztietan neurriak hartzeko eskatzen du, gero garatzeko eta aplikatzeko.

Hondamendi-arriskua murriztea

186. Hyogoko Ekintza Esparruarekiko konpromisoa berresten dugu 2005-2015 aldirako: nazioen eta komunitateen erresilientzia handiagotzea hondamendien aurrean. Eta dei egiten dugu estatuek, Nazio Batuen sistemak, nazioarteko finantza-erakundeek, azpieskualde- eta eskualde-

mailako erakundeek, nazioarteko erakundeek eta gizarte zibilak Esparruaren aplikazioa eta helburuen lorpena lasterragotu dezaten. Eskatzen dugu hondamendi-arriskuak murrizteari eta hondamendien aurrean erresilientzia handitzeari ekiteko, urgentzia berrituaz, garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerraraztearen testuinguruan, eta, egoki izanez gero, politika, plan, programa eta aurrekontuetan integraturik, maila guztietan, eta dagozkion etorkizuneko esparruen barruan. Maila guztietako gobernuei eskatzen diegu, baita azpieskualde- eta eskualde-mailako erakundeei, eta nazioarteko dagozkion erakundeei ere, aukerako baliabide egoki eta aurrez jakinak emateko prest egoteko, hondamendi-arriskua murrizte aldera, eta hondamendien aurrean hiriek eta komunitateek duten erresilientzia handitze aldera, bakoitzaren egoeraren eta gaitasunen arabera.

187. Baiesten dugu garrantzitsuak direla alerta-sistema goiztiarrak, hondamendi-arriskuaren murrizketa eraginkorraren zati gisa, maila guztietan, kalte ekonomiko eta sozialak murrizteko, hildako pertsonak barne hartuta. Ildo horretan, estatuak akuilatzen ditugu, sistema horiek integra ditzaten hondakin-arriskua murrizteko estrategia eta plan nazionaletan. Emaila eta nazioarteko komunitateari bihotz ematen diegu, nazioarteko lankidetzaren areagotu dezaten hondamendi-arriskua murriztearren, egoki denaren arabera, laguntza tekniko emanaz, teknologia transferituz (elkarrekin adostutakoari jarraituz), gaitasunaren garapenaren bidez eta gaitze-programen bitartez. Gainera, baiesten dugu garrantzitsua dela arriskuen ebaluazio zabalak egitea, baita ezagutzak eta informazioak trukatea ere, bereziki informazio geospazial fidagarria. Ebaluazioak eta hondamendi-arriskua egoki murrizteko tresnak egiteko eta sendotzeko konpromisoa hartzen dugu.

188. Azpimarratzen dugu garrantzitsua dela lotura sendoagoak agertzea hondamendi-arriskua murriztearen eta garapena epe luzera berreskuratzearen eta planifikatzearen artean, eta eskatzen dugu estrategia koordinatuago eta zabalagoi ekiteko, gogoeta hauek aintzat hartuta: hondamendi-arriskua murriztea eta aldaketa klimatikoaren araberako egokitzea inbertsio publiko eta pribatuetan; erabakiak hartzea eta kaltetuentzako laguntzaren eta garapenaren planifikazioa egitea arriskuak murrizteko; erresilientzia handiagotzea eta laguntzaren, oneratzearren eta garapenaren alorreko jardueren arteko transakzio jariakorrako bat bideratzea. Ildo horretan, baiesten dugu genero-ikuspegia txertatzeko premia dagoela hondamendi-arriskua kudeatzeko fase guztien prestaketan eta gauzatzean.

189. Eskatzen dugu dagozkion alderdi interesdun guztiek (besteak beste, gobernuek, nazioarte-, eskualde- eta azpieskualde-mailako erakundeek, sektore pribatuak eta gizarte zibilak) neurri egoki eta eraginkorrak hartzeko, garapen iraunkorraren hiru dimentsioak aintzat hartuta; bereziki, arriskuarekiko esposizioa murrizteko, eta pertsonak, azpiegiturak eta beste ondasun nazional batzuk hondamendien eraginetatik babesteko, Hyogoko Ekintza Esparruarekin eta hondamendi-arriskuak murrizteko 2015etik aurrerako esparru ororekin ados.

Aldaketa klimatikoa

190. Berresten dugu aldaketa klimatikoa gure garaiko arazo nagusietako bat dela, eta kezka larria adierazten dugu berotegi-efektuko gasen emisioek gora egiten jarraitzen dutelako mundu guztian. Biziki kezkatuta gaude herrialde guztiak –bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeak– aldaketa klimatikoaren ondorio kaltegarriekiko zaugarriak direlako eta eragin horiek pairatzen hasiak direlako; besteak beste, lehorte iraunkorrak eta muturreko fenomeno meteorologikoak, itsas mailaren igoera, kostaldearen higadura eta ozeanoen azidifikazioa. Horrek guztiak are eta arrisku handiagoan jartzen ditu elikadura-segurtasuna, eta pobrezia desagerrarazteko eta garapen iraunkorra lortzeko neurriak. Horren haritik, azpimarratzen dugu berehalako eta urgentziako lehenbaitasuna dela munduan aldaketa klimatikora egokitzea.

191. Azpimarratzen dugu aldaketa klimatikoaren mundu-mailako izaerak herrialde guztien arteko lankidetzaz ahalik eta zabalena izatearen premia dakarrela, bai eta haiek guztiek parte hartzea nazioarteko erantzun eraginkor eta egoki batean, berotegi-efektuko gasen munduko emisioak lasterrago murriztea helburu hartuta. Gogoan dugu Aldaketa Klimatikoari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenak xedatzen duela alderdiek sistema klimatikoa babestu behar dutela, egungo eta etorkizuneko belaunaldien onerako, ekitatea oinarri hartuta, bakoitzaren erantzukizun komun baina bereizien eta haien gaitasunen arabera.

Kezka larri ikusten dugu, munduan urtero igortzen diren berotegi-efektuko gasei dagokienez, desfase handia dagoela alderdiek 2020rako onetsitako arintze-konpromisoaren eragin erantsiaren eta emisio erantsiek munduko batez besteko tenperaturaren igoerari 2 °C o 1,5 °C azpitik eusteko (industriurreko mailak erreferentziatzat hartuta) probabilitate ona izatearren egin beharreko ibilbidearen artean. Baiesten dugu garrantzitsua dela finantziario mobilizatzea, askotariko iturri publiko eta pribatu, bilateral eta multilateralak baliatuta –finantziario-iturri berritzaileak barne harturik–; hartara lortuko da babeserako arintze-neurri nazional egokiak, teknologiak egokitzeko, garatzeko eta transferitzeko neurriak, eta garapen-bidean dauden herrialdeen gaitasunak handitzea. Ildo horretan, atseginez hartzen dugu Klimarako Funts Berdea prestatu izana, eta ahalik eta azkarren abian jartzea eskatzen dugu, berrezartze-prozesu egokia lehenbaitasun ezartzeko.

192. Bai Aldaketa Klimatikoari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmeneko bai Kyotoko Protokoloko alderdi parte-hartzaileei eskatzen diegu akordio horien esparruan hartutako konpromiso eta erabakiak oso-oso betetzeko. Ildo horretan, lortutako aurrerabideak aprobetxatuko ditugu; bereziki, Aldaketa Klimatikoari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenari dagokion Alderdien Konferentziako hamazazpigarren bileraldian onetsiak, eta Kyotoko Protokoloko alderdien bilera gisa, Alderdien Konferentziako zazpigarren bilera-aldian onetsiak, Durbanen (Hegoafrika), 2011ko azaroaren 28tik abenduaren 9ra.

Basoak

193. Azpimarratzen dugu basoek onurak dakartzatela pertsonentzat, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren aldetik, baita basoak iraunkortasunaren ikuspegitik antolatzearen ondoriozko ekarpenek ere, Konferentziaren gai eta helburuei dagokienez. Basoak iraunkortasunaren ikuspegitik antolatzea sustatzen duten sektorearteko eta erakundearteko politikak babesten ditugu. Berresten dugu garapen iraunkorraren arazo larrietako askori aurre egiteko aukerak sortzen dituztela basoek ematen dituzten produktu eta zerbitzu ugari guztiek. Eskatzen dugu ahalegin handiagoak egin daitezela basoak iraunkortasunaren ikuspegitik antolatzeko moduak, basoberritzea, lehengoratzeta eta basotzea lortzeko; halaber, basogabetzea eta baso-degradazioa gelditzeko, geldiarazteko eta lehengoratzeko neurriak babesten ditugu, hala nola zilegitasunez lortutako baso-produktuen salerosketa sustatzea. Ikusten dugu abian dauden ekimenen garrantzia; esate baterako, basogabetzeen eta baso-degradazioaren ondorioz sortutako emisioak murriztea garapen-bidean dauden herrialdeetan, eta kontserbazioak, basoak iraunkortasunaren ikuspegitik antolatzeko moduek eta basoetako karbono-erreserbek gora egin izana garapen-bidean dauden herrialdeetan. Eskatzen dugu ahalegin handiagoak egin daitezela basoen gobernantza-esparruak eta aplikatze-bitartekoak sendotzeko; horretarako, baso mota guztiei buruzko tresnak, juridikoki loteslea ez denak, xedatutakoari jarraitu behar zaio, basoak iraunkortasunaren ikuspegitik antolatzea helburu hartuta. Horretarako, herrien eta komunitateen bizibideak hobetzeko konpromisoa hartzen dugu, bai eta iraunkortasuna bideratuko duen baso-kudeaketarako beharrezkoak diren baldintzak sortzekoa ere. Horrenbestez, lankidetzaren sendotuko da finantzen eta merkataritzaren alorrean, ekologiaren aldetik arrazoizkoak diren teknologiak transferituko dira, gaitasuna eta gobernantza garatuko dira, eta lurraz jabetzeko erregimen seguruak sustatuko dira. Bereziki, herritarrek parte hartuko dute erabakiak hartzeko prozesuetan eta etekinen banaketan, legedian eta lehentasun nazionaletan xedatutakoaren arabera.

194. Eskatzen dugu urgentziaz aplika daitezela, batetik, baso mota guztiei buruzko tresna, juridikoki loteslea ez dena, eta, bestetik, Basoen Nazioarteko Urtearen aurkezpenarekin batera gauzatutako Basoei buruzko Nazio Batuen Foroko bederatzigarren bilera-aldiko goi-mailako saioretako Ministerio Adierazpena.

195. Baiesten dugu Basoei buruzko Nazio Batuen Foroak, osaera unibertsala eta aginte zabala duenak, funtsezko zeregina betetzen duela basoei buruzko gaiak modu holistikoki eta integratuz planteatzeko, politiken koordinazioa sustatzeko, eta nazioarteko lankidetzan basoen ordenamendua iraunkortasunaren ikuspegitik egitea lortzeko. Basoen alorreko Lankidetzaren Elkarteari eskatzen diogu Foroa babesten jarrai dezala, eta interesdunak bultzatzen ditugu Foroko zereginetan aktiboki parte hartzen jarrai dezaten.

196. Azpimarratzen dugu garrantzitsua dela politiketan eta erabaki ekonomikoak hartzeko prozesuetan integratzea basoak iraunkortasunaren ikuspegitik antolatzeari lotutako helburu eta jardunbideak; eta, helburu

horretarako, Basoen alorreko Lankidetzaren Elkartearen kide diren erakundeetako organo zuzendariekin batera lan egiteko konpromisoa hartzen dugu; hartara, haien estrategia eta programetan integratuko dute baso mota guztiak iraunkortasunaren ikuspegitik antolatzeak aukera, egoki denaren arabera.

Bioaniztasuna

197. Berresten dugu aniztasun biologikoak balio intrintsekoa duela; balio ekologikoa, genetikoa, soziala, ekonomikoa, zientifikoa, hezitzailea, kulturala, olgetarakoa eta estetikoa duela; eta lehentasunezko zeregina betetzen duela funtsezko zerbitzuak ematen dituzten ekosistemei eusteko (izan ere, ekosistema horiek funtsezkoak dira garapen iraunkorrerako eta giza ongizaterako). Baiesten dugu larria dela munduko bioaniztasuna galtzea eta ekosistemak degradatzea, eta azpimarratzen dugu horrek mundu-garapena eragozten duela, eta eragina duela elikadura-segurtasunean eta nutrizioan, ur-horniduran eta ura eskura izateko aukeran, landa-eremuko pobreen osasunean eta mundu guztiko herrietan, egungo eta etorkizuneko belaunaldiak barne hartuta. Horrek azpimarratzen du garrantzitsua dela bioaniztasunari eustea, habitataren konektibitatea handitzea eta ekosistemen erresilientzia sendotzea. Baiesten dugu herri indigenen eta toki-komunitateen ezagutza, berrikuntza eta jardunbide tradizionalak ekarpen garrantzitsua direla bioaniztasuna iraunkortasunaren ikuspegitik kontserbatzeko eta erabiltzeko, eta aplikazio zabalago batek gizarte-ongizatea eta iraunkortasunaren aldeko bizibideak babestu ditzake. Baiesten dugu, halaber, herri indigenek eta toki-komunitateek dutela, sarritan, bioaniztasunarekiko eta ekosistemekiko mendekotasun handiena, eta, horrenbestez, haien galeraren eta degradazioaren ondorioz lehen kaltetuak.

198. Berririo diugu Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmenaren hiru helburuak lortzeko konpromisoa hartu dugula, eta bioaniztasuna galtzea murrizteko, geldiarazteko eta eraginkortasunez lehengoratzeko premiazko neurriak hartzeko eskatzen dugu. Testuinguru horretan, adierazten dugu garrantzitsua dela aplikatzea Aniztasun Biologikorako Plan Estrategikoa 2011-2020 eta Aniztasun Biologikorako Aizchiko Helburuak, Hitzarmenari dagokion Alderdien Konferentziak hamargarren bileran onetsiak.

199. Ikusten dugu onetsia dela Nagoyako Protokoloa, baliabide genetikokoak eskura izateari buruzkoa, eta haien erabileraren ondorioz Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmenetik sortutako etekinetan bidezko eta ekitatezko partaidetza zehazten duena, eta Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmeneko alderdiei eskatzen diegu Protokoloa berresteko, edo hari atxikitzeko, lehenbailehen indarrean jar dadin. Baiesten dugu garrantzitsua dela baliabide genetikokoak eskura izatea eta haien erabileratik sortutako etekinetan parte hartzea, laguntzen baitu aniztasun biologikoa iraunkortasunaren ikuspegitik kontserbatzen eta erabiltzen, pobrezia desagerrarazten eta iraunkortasunaren aldeko ingurumen bat bermatzen.

200. Atseginez hartzen dugu Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmenaren hiru helburuak lortzeko baliabideak mobilizatzeko

estrategia –besteak beste, iturri guztietako baliabideak nabarmen handitzeko konpromisoa–, biobibertsitateari laguntzearen, Alderdien Konferentziako hamargarren bileran hartutako erabakien arabera.

201. Babesten dugu maila guztietan dagozkion programa eta politiketan aintzat hartzen hastea bioaniztasuna eta haren osagaiak iraunkortasunaren ikuspegitik kontserbatzearen eta erabiltzearen ondorioak eta onura sozioekonomikoak, baita funtsezko zerbitzuak ematen dituzten ekosistemak ere; betiere, legediaren, egoeraren eta lehentasun nazionalen arabera. Bultzatzen dugu inbertsioak egitea aniztasun biologikoa iraunkortasunaren ikuspegitik kontserbatzea eta erabiltzea eta ekosistema degradatuen lehengoratzea sustatzeko, pizgarri eta politika egokien bidez, Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmenarekin eta dagozkion nazioarteko beste eginbide batzuekin ados.

202. Erabaki dugu nazioarteko lankidetzak eta elkarteak sustatzea, egoki denean, baita informazio-trukea ere; eta, testuinguru horretan, atseginez hartzen dugu Aniztasun Biologikoari buruzko Nazio Batuen Hamarkada 2011-2020, bioaniztasuna iraunkortasunaren ikuspegitik kontserbatu eta erabili nahi duten alderdi guztien parte-hartze aktiboa bultzatzen baitu, eta halaber bultzatzen du baliabide genetikoak eskura izatea, eta haien erabileratik sortutako etekinetan bidezko eta ekitatezko partaidetza izatea, naturarekin harmonian bizitzearen ikuspegitik.

203. Baiesten dugu zeregin garrantzitsua betetzen duela Mehatxatutako Fauna eta Flora Basatiko Espezieen Nazioarteko Merkataritzari buruzko Hitzarmenak; izan ere, merkataritzaren, ingurumenaren eta garapenaren arteko elkarguneari dagokion nazioarteko akordio bat da, bioaniztasuna iraunkortasunaren ikuspegitik kontserbatzea eta erabiltzea sustatzen duena. Hala, tokiko biztanleentzako onura nabariak ekartzen lagundu behar du, eta nazioartean merkaturatutako espezieak desagertzeko mehatxupear ez daudela bermatzen du. Baiesten dugu fauna eta flora basatiaren trafiko bidegabeak ondorioak eragiten dituela ekonomian, gizartean eta ingurumenean, eta baiesten dugu, halaber, premiazkoa dela eskaintzari eta eskariari buruzko neurri irmoagoak hartzea. Ildo horretan, azpimarratzen dugu garrantzitsua dela ingurumenari buruzko akordioen eta dagozkion nazioarteko erakundeen artean nazioarteko lankidetzak eraginkorra egotea. Halaber, azpimarratzen dugu garrantzitsua dela, espezieak zerrendatan jartzean, adostutako irizpideak oinarri hartzea.

204. Ikusi dugu Aniztasun Biologikoari eta Ekosistemen Zerbitzuei buruzko Gobernuarteko Plataforma Zientifiko Arau-emailea ezarri dela, eta dei egiten dugu berehala ekin diezaion bere eginkizunari (alegia, bioaniztasunari buruzko politikak prestatzeko eskura dagoen informazio hoberena ematea, erabakiak hartzeko ardura dutenei laguntzeko).

Basamortutzea, luraren degradazioa eta lehortea

205. Baiesten dugu luraren –eta lurzorua– kudeaketa on batek garrantzi ekonomikoa eta soziala dakarrela. Bereziki garrantzitsuak dira arlo hauetan egindako ekarpenak: hazkunde ekonomikoa, bioaniztasuna, iraunkortasuna bermatzen duen nekazaritza eta elikadura-segurtasuna,

pobrezia desagerraraztea, emakumeen ahalduntzea, eta aldaketa klimatikoari aurre egiteko eta ur-baliabideak handitzeko neurriak. Azpimarratzen dugu basamortutzea, lurraren degradazioa eta lehorte mundu-mailako arazoak direla, eta herrialde guztien garapen iraunkorra mehatxatzen dutela; bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetan. Halaber, azpimarratzen dugu egoera horrek arazo bereziak dakarziela Afrikari, gutxien aurreratuta dauden herrialdeei eta garapen-bidean dauden eta itsasertzik ez duten herrialdeei. Horren haritik, gure kezka larria adierazten dugu, lehorte eta gosete ziklikoek ondorio suntsitzaileak eragin baitituzte Afrikan –bereziki, Afrikako Adarrean eta Sahelgo eskualdean–, eta eskatzen dugu epe labur, ertain eta luzerako premiazko neurriak har daitezela maila guztietan.

206. Baiesten dugu urgentziatzko neurriak hartu behar direla lurzorua degradazioa lehengoratzeko. Horregatik, lurraren degradazio neutral bat duen mundu bat lortzeko ahalegina egingo dugu, garapen iraunkorraren testuinguruan. Horrek hainbat iturri publiko eta pribatuak finantza-baliabideak katalizatu behar ditu.

207. Berresten dugu lurraren degradazioa globalki zaintzeari, eta eremu agor, erdi agor eta azpiheze lehortuetako lur degradatuak lehengoratzeko nazio-, eskualde-, eta nazioarte-mailan neurri koordinatuak hartzeari buruzko erabakia, Basamortutzearen aurkako Nazio Batuen Konbentzioari jarraituz. Erabaki sendoa hartu dugu Konbentzioaren aplikazioa, dagokion esparrua eta hamarkadarako plan estrategikoa (2008-2018) babesteko eta indartzeko; besteak beste, aukerako finantza-baliabide egokiak eta aurrez jakinak mobilizatzearen bitartez. Ikusten dugu garrantzitsua dela basamortutzearen, lurraren degradazioaren eta lehortearen ondorioak arintzea; bereziki, bitarteko hauek baliatuta: oasiak kontserbatzea eta garatzea, lur degradatuak lehengoratzeko, lurzorua kalitatea hobetzea eta ur-baliabideak antolatzea, garapen iraunkorrean eta pobrezia desagerrarazteko prozesuan laguntzea helburu hartuta. Ildo horretan, lurreko baliabideak babesteko elkarte eta ekimenen garrantzia baiesten dugu, eta jarduera horiek bultzatzen ditugu. Halaber, bultzatzen dugu azterketa eta ekimen zientifikoak egitea gai hauei buruz: gaitasunaren garapena, prestakuntza hedatzeko programak, eta lurra iraunkortasunaren ikuspegitik antolatzeak aukeretan oinarritutako politika eta praktikek ekonomian, gizartean eta ingurumenean zer onura eragiten dituzten hobeto ulertzea eta kontzientzia hartzea helburu duten programak.

208. Azpimarratzen dugu garrantzitsua dela zentzuzko metodo eta adierazle gehiago garatzea eta aplikatzea. Sozialki inklusiboak izan behar dute, eta datu zientifikoetan oinarrituak, basamortutzea, lurraren degradazioa eta lehorte zaintzeko eta prozesu horien gradua ebaluatzeko. Halaber, garrantzitsua da neurriak hartzea ikerketa zientifikoak sustatzeko eta basamortutzeari eta lehorteari aurre egiteko jardueren oinarri zientifikoa sendotze aldera, Basamortutzearen aurkako Nazio Batuen Konbentzioari jarraituz. Ildo horretan, gogoan dugu Hitzarmenari dagokion Alderdien Konferentziak hamargarren bileran hartutako erabakia; alegia, lantalde berezi bat ezartzea, eskualdeen arteko

oreka kontuan hartuta, alderdiei aholkularitza zientifikoa emateari buruzko gai zehatzak eztabaidatzeko.

209. Berrito diogu premiazkoa dela lankidetzan jardutea, mundu-, eskualde- eta azpieskualde-mailan klimari, meteorologiari eta iragarpenei buruzko informazioa trukatzeko, baita basamortutzearekin, lurraren degradazioarekin eta lehortearekin lotutako alerta goiztiarrerako sistemiei buruzkoa, eta hauts- eta harea-ekaitzei buruzkoa ere. Horren haritik, dagozkion estatu eta erakundeei dei egiten diegu, informazioen, iragarpenen eta alerta goiztiarrerako sistemen trukean parte har dezaten.

Mendiak

210. Baiesten dugu eskualde menditsuek eragindako onurak funtsezkoak direla garapen iraunkorrerako. Ekosistema menditsuek zeregin erabakigarria betetzen dute; izan ere, ur-baliabideak ematen dizkiote munduko biztanleen proportzio handi bati. Ekosistema menditsu hauskorak oso zaugarriak dira zenbait prozesuk (aldaketa klimatikoa, basogabetzea eta basoen degradazioa, lurraren erabilera-aldaketa, lurraren degradazioa eta hondamendi naturalak) eragindako ondorio kaltegarrien aurrean, eta mundu guztiko mendi-glaziarrek behera egiten dute eta mehetzen ari dira. Horrek guztiak gero eta ondorio nabarmenagoak eragiten ditu ingurumenean eta giza ongizatean.

211. Halaber, baiesten dugu mendietan sarritan bizi direla komunitateak, herri indigenak eta toki-komunitateak barne hartuta, eta komunitate horiek mendietako baliabideak iraunkortasuna bermatzeko moduan erabili dituztela. Hala ere, sarritan, komunitate horiek baztertuta daude, eta azpimarratzen dugu baztertze horren ondorioz ahalegin etengabeak egin beharko direla eremu horietako pobrezari, elikadura-segurtasunari eta nutrizioari, gizarte-bazterkeriari eta ingurumenaren degradazioari aurre egiteko. Estatuei dei egiten diegu, lankidetzan-neurriak areagotu ditzaten, parte-hartze eraginkorraren bidez, dagozkion interesdun guztien esperientziak trukatzuz, mendien garapen iraunkorra helburu duten konponbide, akordio eta bikaintasun-zentroak sendotzearen bitartez, eta konponbide eta akordio berriak aztertuz, egoki denaren arabera.

212. Eskatzen dugu ahalegin handiagoak egin daitezela ekosistema menditsuei iraunarazteko, haien bioaniztasuna barne hartuta. Estatuak bultzatzen ditugu epe luzerako ikuspegi bat eta ikuskera holistikoak hartzera; bereziki, mendietan aplikatzeko berariazko politikak txerta ditzaten garapen iraunkorrerako estrategia nazionaletan. Berariazko politika horietan sar daitezke, besteak beste, eremu menditsuetan pobrezia murrizteko plan eta programak; bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetan. Horren haritik, nazioarteko laguntza eskatzen dugu garapen-bidean dauden herrialdeetako mendien garapen iraunkortasunaren ikuspegitik bideratzeko.

Produktu kimikoak eta hondakinak

213. Baiesten dugu produktu kimikoen zentzuzko kudeaketa funtsezkoa dela giza osasuna eta ingurumena babesteko. Halaber, baiesten dugu

gero eta produktu kimiko gehiago ekoizten eta erabiltzen direla munduan, eta gailentzen direla nazioarteko lankidetzari handiagoa eskatzen duten ingurumenaren alorreko deietan. Berresten dugu gure helburua: 2020rako, produktu kimikoak zentzuz kudeatzea lortzea, haien jardueraldi osoan, baita hondakin arriskutsuak ere, giza osasunean eta ingurumenean eragin ditzaketen ondorio kaltegarri nabarmenak murrizteko, Johannesburgeko Erabakiak Aplikatzeko Planeari adierazitakoari jarraituz. Halaber, berresten dugu konpromisoa dugula produktu kimikoak eta hondakinak zentzuz kudeatzeko ikuspegiarekin, maila guztietan. Kudeaketa horrek eraginkortasunez, efizientziaz, koherentziaz eta era koordinatuan konpondu behar ditu gai eta arazo berriak eta agertzen ari diren gorabeherak. Horrenbestez, herrialdeetan eta eskualdeetan aurrerabide handiagoak egitea bultzatzen dugu, konpromisoen aplikazioan dauden hutsuneak konpontzeko.

214. Eskatzen dugu eraginkortasunez aplikatu eta indartu dadila nazioartean produktu kimikoak kudeatzeko ikuspegi estrategikoa, sistema sendoa, koherente, eraginkor eta efiziente baten zati gisa, produktu kimikoak zentzuz kudea daitezela, haien jardueraldi osoan, eta agertzen ari diren arazoak konpon daitezela.

215. Biziki kezkatuta gaude, herrialde askok –bereziki, gutxien aurreratuta daudenek– ez dutelako gaitasunik produktu kimikoak eta hondakinak jardueraldi osoan zentzuz kudeatzeko. Neurri gehigarriak behar dira gaitasunak areagotzea helburu duen zeregina sendotzeko, are elkarrean, laguntza teknikoaren eta gobernantza-egitura hobeen aldetik ere. 2020rako produktu kimikoak zentzuz kudeatzeko helburua lortzeari begira aurrerabideak egin dituzten herrialde eta erakundeak bultzatzen ditugu beste herrialde batzuei laguntzera, ezagutzak, esperientziak eta jardunbide onenak trukatzearen bidez.

216. Garesten dugu Basileako Hitzarmenaren, Rotterdango Hitzarmenaren eta Stockholmeko Hitzarmenaren arteko lankidetzari, produktu kimikoei eta hondakinei buruzko hitzarmenen koordinazio eta lankidetzari sendoena baita, eta haien arteko koordinazio eta lankidetzari itzela eta nazioartean produktu kimikoak kudeatzeko ikuspegi strategikoarekiko elkarlanean aurrera egitera bultzatzen ditugu. Ikusten dugu Basileako Hitzarmeneko eta Stockholmeko Hitzarmeneko eskualde-zentroen eta koordinazio-zentroen zeregin garrantzitsua.

217. Garesten dugu sektore publiko eta pribatuen artean elkarte berri eta berritzaileak sortzea zenbait arlotan (industria, gobernuak, erakunde akademikoak eta gobernu kanpoko beste interesdun batzuk), produktu kimikoak eta hondakinak ingurumenaren aldetik zentzuz kudeatzeko gaitasuna eta teknologia areagotzen baitute, hondakinen prebentzioa barne hartuta, eta lan horretan jarraitzeko eskatzen diegu.

218. Baiesten dugu jardueraldian oinarritutako ikuspegia aintzat hartzeak garrantzi handia duela, eta, halaber, garrantzitsua dela baliabideak efizientziaz erabiltzeko eta hondakinak ingurumenaren aldetik zentzuz kudeatzeko politikak prestatzen eta aplikatzen jarraitzea. Hortaz, hondakinak murrizten, berreraabiltzen eta birziklatzen (“3 erre”: *reduce*,

reuse, recycle) jarraitzeko eta hondakinetatik energia gehiago berreskuratzeko konpromisoa hartzen dugu, munduko hondakin gehientsuenak ingurumenaren aldetik zentzuzkoa den kudeaketa baten bidez tratatzeko, eta, ahal izanez gero, baliabide gisa erabiltzeko. Hondakin solidoak (hondakin elektronikokoak, plastikoak eta abar) arazo bereziak dira, eta arazo horiei ere ekin behar zaie. Eskatzen dugu hondakinen kudeaketari buruzko politika, estrategia, lege, eta nazio- eta toki-araudi zabalak prestatzeko eta aplikatzeko.

219. Herrialdeei eta beste alderdi interesdun batzuei eskatzen diegu hondakin arriskutsuen kudeaketa zentzugabea eta legez kontrako isurpenak prebenitzeko har daitezkeen neurri guztiak hartzeko; bereziki, hondakin horiei aurre egiteko gaitasun mugatua duten herrialdeetan, herrialde horien betebeharren arabera eta nazioarteko dagozkien tresnei jarraituz. Testuinguru horretan, atseginez hartzen ditugu Basileako Hitzarmenari dagokion Alderdien Konferentziako hamargarren bileran hartutako dagozkion erabakiak.

220. Baiesten dugu garrantzitsua dela produktu kimikoek gizakientzat eta ingurumenarentzat dakartzaten arriskuei buruzko ebaluazioa egitea, datu zientifikoak oinarri hartuta; eta, hondakin kimiko arriskutsuei dagokienez, gizakien eta ingurumenaren esposizioa murriztea. Bultzatzen dugu produktuetan eta prozesuetan ingurumenaren aldetik zentzuzkoak eta seguruagoak diren alternatibak garatzea produktu kimiko arriskutsuen ordez. Horretarako, bultzatzen dugu, besteak beste, jardueraldiari buruzko ebaluazioak egitea, informazio publikoa hedatzea, ekoizleen erantzukizuna handitzea, ikerketa eta garapena sustatzea, iraunkortasuna bermatzen duten diseinuak egitea, eta ezagutzak trukitzea, egoki denaren arabera.

221. Atseginez hartzen dugu merkurioari buruz abian dagoen negoziazio-prozesua, mundu-mailan juridikoki loteslea den tresna bati dagokiona. Negoziazio horietan, aintzat hartzen dira giza osasunean eta ingurumenean eragina duten arriskuak, eta alderdiei eskatzen diegu negoziazioak arrakastaz burutzeko.

222. Baiesten dugu hidrofluorokarbonoak gehiago erabiltzen eta aineratzen dela ozono-geruza agortzen duten substantziak mailaz maila ezabatu izanaren ondorioz, eta substantzia horien erabileraren igoera azkarrak nabarmen eragin dezakeela mundu-mailako berotze-prozesuan. Horrenbestez, hidrofluorokarbonoen kontsumoa eta ekoizpena mailaz maila ezabatzearen alde gaude.

223. Baiesten dugu epe luzerako finantziazio iraunkor egokia funtsezko elementu bat dela produktu kimikoak eta hondakinak zentzuz kudeatzeko; bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetan. Ildo horretan, atseginez hartzen dugu produktu kimikoak eta haien hondakinak kudeatzeko finantziazio-aukerei buruzko kontsulta-prozesua. Prozesu horri ekin diote, hain zuzen, neurri gehiagoren premia aztertzeko, produktu kimikoak eta hondakinak zentzuz kudeatzeari emandako lehentasun politikoa sendotzeari begira, eta produktu kimikoei eta hondakinei buruzko programarako finantziazio iraunkorren, egokien eta aurrez jakinen premia are handiagoa aztertzeko. NBIPen zuzendari exekutiboak aurki

jakinaraziko dituen proposamenen zain gaude, interes handiz. Proposamen horiek Produktu Kimikoen Kudeaketari buruzko Nazioarteko Konferentzian eta NBIPen Administrazio Kontseiluaren 27. bilera-aldian aztertuko dira.

Iraunkortasuna bermatzen duen kontsumoa eta produkzioa

224. Gogoan ditugu honako konpromiso hauek: Ingurumenari eta Garapenari buruz Rioko Adierazpenean onetsitako konpromisoak, 21 Programa eta Johannesburgeko Erabakiak Aplikatzeko Plana, hirurak ere produkzio eta kontsumo iraunkorrari buruzkoak, eta, bereziki, Aplikatzeko Planaren 3. kapituluaren ageri den eskaria (alegia, hamar urterako esparru baten prestaketa bultzatzea eta sustatzea programantzako). Baiesten dugu mundu-mailako garapen iraunkorra lortzeko ezinbestekoa dela funtsezko aldaketak egitea gizarteek kontsumitzeko eta produzitzeko duten eran.

225. Herrialdeek berresten dituzte erregai fosilentzako diru-laguntza kaltegarri eta ez-eraginkorrak ezabatzeko hartutako konpromisoak; izan ere, diru-laguntza horiek kontsumo xahutzailea bultzatzen dute, eta garapen iraunkorra azpitik zulatzea dakarte. Planteatzen dugu erregai fosilentzako diru-laguntza ez-eraginkorrak hiru neurri hauen bidez arrazionalizatzeko aukera aztertzea: merkatuko distortsioak ezabatzea, zerga-sistemak berregituratzea eta diru-laguntza kaltegarriak mailaz maila ezabatzea, halakorik balego. Hartara, ingurumenean eragina duten ondorioak agerian geratuko dira. Halaber, garapen-bidean dauden herrialdeetako premia eta egoera zehatzak aintzat hartzen dituzten politikak egitea planteatzen dugu, haien garapenean eragin daitezkeen ondorio kaltegarriak ahalik eta gehien murrizteko, eta, horrenbestez, pobreei eta komunitate kaltetuei babesa emateko.

226. Iraunkortasuna bermatzen duten kontsumo- eta produkzio-modalitateei buruzko programantzako hamar urterako esparrua onartzen dugu (A/CONF.216/5 dokumentuan jaso), eta azpimarratzen dugu hamar urterako esparruan zehaztutako programak borondatezkoak direla. Batzar Nagusiari eskatzen diogu hirurogeita zazpigarren bilkura-aldian estatu kide baten organo bat izendatzeko, esparrua guztiz abian jartzeko behar-beharrezko neurriak har ditzan.

Meatzeak

227. Baiesten dugu mineralen eta metalen ekarpena handia dela mundu-mailako ekonomian eta gizarte modernoetan. Ikusten dugu meatze-industriak garrantzitsuak direla baliabide mineralak dituzten herrialde guztientzat, eta, bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeentzat. Halaber, ikusten dugu meatzaritzak, modu eraginkor eta egokian kudeatuz gero, aukera ematen duela herrialdeei laguntzeko oinarri zabaleko garapen ekonomikoa katalizatzen, pobrezia murrizten, eta nazioartean adostutako garapen-helburuak –besteak beste, Milurtekoko Garapen Helburuak– lortzen. Baiesten dugu herrialdeek beren baliabide mineralak ustiatzeko eskubide subiranoa dutela, lehentasun nazionalen arabera, baita

baliabideen ustiapenaren gaineko ardura ere, Rioko Printzipioetan adierazi bezala. Halaber, baiesten dugu meatze-jarduerek onura sozial eta ekonomiko ahalik eta handienak lortu behar dituztela, eta ingurumenean eta gizartean eragindako ondorio kaltegarrii eraginkortasunez ekin behar dietela. Horren haritik, baiesten dugu gobernuek gaitasun handia behar dutela beren meatze-industriak garatzeko, kudeatzeko eta arautzeko, garapen iraunkorraren onerako.

228. Baiesten dugu garrantzitsuak direla meatze-sektoreko esparru juridikoak eta arau-esparruak, politika eta jardunbide irmoak, eta baliabideak, onura ekonomiko eta sozialak ematen baitituzte, eta babes eraginkorrak baitira gizartean nahiz ingurumenean eragindako kalteak murrizteko eta bioaniztasuna nahiz ekosistemak kontserbatzeko, baita meatze-jardueren ostean ere. Gobernuai eta enpresei aholkatzen diegu gero eta nabarmenagoa izan dadila gardentasuna eta kontuak ematea, eta susta dezatela mekanismo eraginkorrak izatea meatze-jardueratik etor daitezkeen legez kontrako finantzen prebentziorako.

Hezkuntza

229. Berresten dugu hezkuntzarako eskubidearekiko konpromisoa, eta, ildo horretan, lehen hezkuntza unibertsala izatea helburu hartuta, nazioarteko lankidetzaren sendotzeko konpromisoa hartzen dugu; bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetarako. Halaber, berresten dugu kalitatezko hezkuntzarako sarbide osoa, maila guztietan, funtsezko baldintza bat dela hainbat helburu lortzeko bidean, hala nola garapen iraunkorra, generoen arteko berdintasuna, emakumeek aurrera egitea, giza garapena, nazioartean adostutako garapen-helburuak –bereziki, Milurtekoko Garapen Helburuak–, eta gizon-emakumeen parte-hartze osoa –batez ere, gazteena–. Ildo horretan, azpimarratzen dugu kolektibo guztiek hezkuntza eskuratzeko aukera berak izatea bermatu behar dela; bereziki, ahalmen-urritasunen bat duten pertsonen, herri indigenen, toki-komunitateen, gutxiengo etnikoen eta landa-eremuetan bizi diren pertsonen.

230. Baiesten dugu belaunaldi gazteak etorkizunaren zaindari direla, eta kalitate eta sarbide hobekak behar direla lehen hezkuntzaren ondorengo mailetan. Beraz, gure hezkuntza-sistemen gaitasuna hobetzea erabaki dugu, pertsonen prestakuntza bat emateko eta garapen iraunkorra lortzeko aukera izan dezaten; bereziki, irakasleen gaitasun hobekaren bidez, iraunkortasunari buruzko ikasketa-planak eginez, ikasleek iraunkortasunari lotutako unibertsitate-ikasketari ekiteko gaitze-programak eginez, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu eraginkorragoan erabiliz, ikas-prozesuaren emaitzak hobetzeko. Eskolen, komunitateen eta agintarien arteko lankidetzaren areagotzeko eskatzen dugu, kalitatezko hezkuntzarako sarbidea sustatze aldera maila guztietan.

231. Estatu kideei eskatzen diegu garapen iraunkorrari buruzko kontzientziarazioa susta dezatela gazteen artean; besteak beste, hezkuntza ez-akademikorako programak sustatuz, Nazio Batuen Garapen

Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkadaren (2005-2014) helburuei jarraituz.

232. Azpimarratzen dugu garrantzitsua dela nazioarteko lankidetzaren areagotzea hezkuntzarako sarbidea hobetzeko; besteak beste, hezkuntza-azpiegitura finkatzearen eta sendotzearen bitartez, eta hezkuntzan inbertsio handiagoa eginez –bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetan pertsona guztientzako hezkuntzaren kalitatea hobetzeko inbertsioak eginez. Nazioarteko trukeak eta elkarteak bultzatzen ditugu hezkuntzaren alorrean; esate baterako, hezkuntzari dagozkion mundu-mailako helburuak lortzen laguntzeko bekak sortzea.

233. Erabaki dugu garapen iraunkorrerako hezkuntza sustatzea, eta garapen iraunkorra hezkuntzan era aktiboagoan integratzea, Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkadatik harago.

234. Hezkuntza-erakundeak bultzatzen ditugu ikastetxeetan eta komunitateetan iraunkortasuna kudeatzeko jardunbide onak gauzatzeko aukera aztertzea. Horretarako, besteak beste, ikasleen, irakasleen eta tokiko kolaboratzaileen parte-hartze aktiboa behar da, garapen iraunkorrari buruzko hezkuntza emateko, diziplinetan integratutako osagai gisa.

235. Azpimarratzen dugu hezkuntza-erakundeei laguntza emateak duen garrantzia; bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetako goi-mailako hezkuntza-erakundeei, garapen iraunkorrerako ikerketak egin ditzaten eta berrikuntzak lor ditzaten, batez ere hezkuntzaren alorrean kalitatezko programa berritzaileak prestatzeko, arlo hauek ere barne hartuta: enpresa-gaitasunen eta -ezagutzen alorreko prestakuntza, lanbide-heziketa eta prestakuntza teknikoa, eta bizitza guztian ikastea, betiere gaitasunen alorreko hutsuneak betetzeko eta garapen iraunkorrerako helburu nazionalak lortzeko bidean aurrera egiteko.

Generoen arteko berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea

236. Berresten dugu premiazkoa dela emakumeen funtsezko zeregina eta haien parte-hartze osoa lortzea, berdintasunez eta lidergoa bultzatuz, garapen iraunkorraren esparru guztietan, eta erabaki dugu gure konpromisoak (Emakumeen aurkako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatze Konbentzioa, 21 Programa, Beijingo Ekintza Plataforma eta Milurtekoko Adierazpena) betetzeko prozesua lasterragotzea.

237. Baiesten dugu ez dela bete-betean aprobetxatu emakumeek garapen iraunkorrean lankidetzan jarduteko, ekarpenak egiteko eta onurak lortzeko duten potentziala –lider, parte-hartzaile eta aldaketa-eragile gisa–, generoen arteko berdintasunaren alorreko zenbait esparrutan aurrerabideak egin badira ere; desberdintasun sozial, ekonomiko eta politikoen iraun dutelako gertatu da hori, besteak beste. Babesten dugu generoen arteko berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko neurriei lehentasuna ematea, gure gizarteetako arlo guztietan gauzatu daitezkeen berdintasunean erabakiak hartzeko garaian eta kudeaketaren maila guztietan, bete-betean parte hartzea eragozten zuten oztopoak kentzea barne hartuta, eta azpimarratzen dugu, generoen arteko

parekotasuna xede hartuta, helburu zehatzen finkapenak eta aldi baterako neurrien aplikazioak, egoki denaren arabera, inpaktua sortu dutela, eta lidergo-postuetan dauden emakumeen kopuruak nabarmen gora egitea eragin duela.

238. Gure asmo sendoa da emakumeen potentzialari probetxu ateratzea, garapen iraunkorraren bultzatzaile gisa; horretarako, lege diskriminatzaileak indargabetu behar dira, eta oztopo formalak ezabatu; hartara, justiziara eta laguntza juridikora berdintasunean iristea bermatuko dugu, baita erakundeak erreformatzea ere jarduera orokorrean genero-ikuspegia txertatzeari buruzko eskumenaren eta gaitasunaren bermea emateko, eta are ikuspegi berritzaile eta bereziak baliatzea generoen arteko berdintasuna eragozten duten jardunbide informal kaltegarriei aurre egiteko. Horren haritik, konpromisoa hartzen dugu ingurune egokiak sortzeko emakumeen eta neskatoen egoera nonahi hobetu dadin; bereziki, landa-eremuetan eta toki-komunitateetan, eta herri indigenetan eta gutxiengo etnikoetan.

239. Konpromisoa hartzen dugu aktiboki sustatzeko genero-kontuak eta sexuaren arabera bereizitako datuak aintzat hartzen dituzten adierazleak biltzea, aztertzea eta erabiltzea politikak, programak eta ikuskatze-esparruak prestatzeko, nazio bakoitzaren egoera eta gaitasunen arabera, pertsona guztientzako garapen iraunkorra lortzeko promesa betetzea helburu hartuta.

240. Emakumeen eskubide- eta aukera-berdintasunarekin konprometituta gaude erabaki politiko eta ekonomikoak hartzean eta baliabideak esleitzean. Halaber, emakumeei ekonomian bete-betean parte hartzea eragozten dieten oztopoak ezabatzeko konpromisoa hartu dugu. Erabaki dugu lege- eta administrazio-erreformak egitea gizonek baliabide ekonomikoen gain dituzten eskubide berak emateko emakumeei, lurraren eta beste ondasun batzuen jabetza eta kontrolari, kredituari, baliabide naturalei eta teknologia berri egokiei buruzkoak barne hartuta.

241. Konpromisoa hartzen dugu emakumeek eta neskatoek hezkuntza, oinarrizko zerbitzuak, aukera ekonomikoak eta osasun-zerbitzuak – emakumeen sexu- eta ugal-osasunari arreta ematea barne hartuta– berdintasunean eskuratzea sustatzeko, eta familia-plangintzarako metodo moderno, seguru, eraginkor, eskuragarri eta onargarriak pertsona guztien eskura daudela bermatzeko. Ildo horretan, berresten dugu Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren Ekintza Programa aplikatzeko konpromisoa, baita Ekintza Programa hori gauzatzen jarraitzeko giltzarri diren neurriak aplikatzeko konpromisoa ere.

242. Baiesten dugu generoen arteko berdintasuna eta emakumeen benetako parte-hartzea garrantzitsuak direla garapen iraunkorraren alderdi guztietan neurri eraginkorrak hartzeko.

243. Nazio Batuen sistemaren eginkizuna babesten dugu, Genero Berdintasunerako eta Emakumeen Ahalduntzerako Nazio Batuen Erakundea (NBE Emakumeak) barne hartuta, generoen arteko berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko eta lortzeko,

bizitzaren alderdi guztietan, baita generoen arteko berdintasunaren, emakumeen ahalduntzearen eta garapen iraunkorraren sustapenaren arteko loturei dagokienez ere. Babesten dugu NBE Emakumeak izatea arlo horretan Nazio Batuen sistemari kontuak ematea zuzentzen, koordinatzen eta sustatzen duen erakundea.

244. Emaileei eta nazioarteko erakundeei –Nazio Batuen sistemako erakundeak barne, baita nazioarteko finantza-erakundeak, eskualde-bankuak eta talde nagusiak ere, sektore pribatua barne hartuta– eskatzen diegu bete-betean integra ditzatela generoen arteko berdintasunari eta emakumeen ahalduntzeari buruzko konpromisoak eta gogoetak, eta emakumeen parte-hartzea eta genero-ikuspegiaren txertaketa eraginkorra bermatzea erabakiak hartzean eta programazio-ziklo guztian. Eskatzen diegu, batetik, garapen-bidean dauden herrialdeen ahaleginak babes ditzatela, bete-betean integra ditzaten generoen arteko berdintasunari eta emakumeen ahalduntzeari buruzko konpromisoak eta gogoetak, eta, bestetik, emakumeen parte-hartzea eta genero-ikuspegiaren txertaketa eraginkorra berma dezatela erabakiak hartzean, plangintza eta aurrekontuak prestatzean, eta programak gauzatzean, nazio bakoitzari dagozkion legeen, lehentasunen eta gaitasunen arabera.

B. Garapen iraunkorra lortzeko helburuak

245. Azpimarratzen dugu Milurtekoko Garapen Helburuak tresna baliagarriak direla, garapenaren alorreko helburu jakin batzuen lorpena ardatz hartzen dutelako, garapenaren kontzepzio eta esparru zabalaren zati gisa, Nazio Batuen arlo horretako jardueretarako, nazioen lehentasunak ezartzeko, eta alderdi interesdunak eta baliabideak helburu komunitaria mobilizatzeko. Hortaz, gure konpromiso sendoari eusten diogu, helburu horiek bete-betean eta une egokian lortzeko.

246. Baiesten dugu helburuen adierazpena baliagarria izan daitekeela, orobat, garapen iraunkorrari buruzko neurri zehatz eta koherenteak abian jartzeko. Halaber, baiesten dugu garrantzitsuak eta erabilgarriak direla 21 Programan eta Johannesburgeko Erabakiak Aplikatzeko Planean oinarrituta dauden eta Rioko Printzipio guztiak oso-osorik errespetatzen dituzten helburuak, garapen iraunkorrari buruzkoak, nazio bakoitzari dagozkion egoerak, gaitasunak eta lehentasunak kontuan hartuta, baldin eta nazioarteko zuzenbidearen arabekoak badira, lehendik hartutako konpromisoetan oinarritzen badira, eta gailur handi guztien emaitzak – amaierako dokumentu hau barne hartuta– ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren alorrean bete-betean lortzeko lagungarriak badira. Helburuek garapen iraunkorraren hiru dimentsioak eta haien arteko erlazioak jorratu eta txertatu behar dituzte, orekari eutsiz, eta 2015etik aurrera koherenteak izan behar dute Nazio Batuen garapenerako agendarekin, agenda horretan integra daitezen; hartara, garapen iraunkorra lortzeko lagungarriak izango dira, eta Nazio Batuen sisteman garapen iraunkorra abian jartzea eta integratzea bultzatuko dute. Helburu horien adierazpenak ez ditu arreta eta ahaleginak desbideratu behar Milurtekoko Garapen Helburuetatik.

247. Halaber, azpimarratzen dugu garapen iraunkorra lortzeko helburuak ekintzara bideratu behar direla, zehatzak eta erraz komunikatzeko modukoak izan behar dutela, kopuruari dagokionez mugatuak, asmo handikoak, izaera globala dutenak, eta herrialde guztiei aplikatzeko modukoak; betiere, nazio bakoitzaren errealitate, gaitasun eta garapen-maila aintzat hartu behar dira, eta politika eta lehentasun nazionalak errespetatu. Baiesten dugu, halaber, helburuek lehentasun-esparruei ekin behar dietela, haiek ardatz hartuta garapen iraunkorra lortzeko, amaierako dokumentu honen gidaritzapean. Gobernuak neurriak bultzatu behar dituzte, interesdun guztien partaidetza aktiboa baliatuta, egoki denaren arabera.

248. Erabaki dugu gobernuarteko prozesu inklusibo eta garden bat ezartzea garapen iraunkorra lortzeko helburuei buruz, alderdi interesdun guztiei irekia, Batzar Nagusiak garapen iraunkorra lortzeko mundu-mailan adostu dituen helburuak adierazteko. Osaera irekiko lantalde bat ezarriko da, Batzar Nagusiaren hirurogeita zazpigarren bilkura-aldia hasi aurretik. Estatu kideek izendatutako 30 ordezkari, Nazio Batuetako bost eskualde-taldeetakoak, osatuko dute lantalde hori, ordezkaritza geografiko zuzen, bidezko eta orekatu bat lortzea helburu hartuta. Lehenik eta behin, lantaldeak lan-metodoa erabakiko du, modalitateen garapena barne hartuta, interesdunek eta gizarte zibileko dagozkion adituek, komunitate zientifikoak eta Nazio Batuen sistemak bete-betean parte hartzen dutela bermatzeko, ikuspegi eta esperientzia desberdinak ematea helburu hartuta. Lantaldeak txosten bat aurkeztuko dio Batzarrari, hirurogeita zortzigarren bilkura-aldian. Txosten horretan adieraziko da garapen iraunkorra lortzeko helburuen proposamena, Batzar Nagusiak aztertu eta dagozkion neurriak har ditzan.

249. Prozesuak koordinatua izan behar du, eta 2015etik aurrerako garapen-agendarekin lotutako prozesuekiko koherentea. Lantaldearen zereginaren lehen ekarpena idazkari nagusiaren ardura izango da, eta nazioetako gobernuari kontsultatu beharko die. Prozesuari eta lantaldearen eginkizunari laguntza tekniko emateko, idazkari nagusiari eskatzen diogu Nazio Batuen sisteman oinarrituta berma ditzala zeregin horretarako ekarpen eta laguntza guztiak; esate baterako, aholkularitza egokia ematea oinarri hartuta, laguntza tekniko emango duen erakundearteko talde baten eta aditu-panelen bitartez, egoki denaren arabera,. Aldian behingo txostenak aurkeztuko zaizkio Batzar Nagusiari, egindako lanen berri emateko.

250. Baiesten dugu behar-beharrezkoa dela helburuak lortzeko bidean egindako aurrerapenen ebaluazioa egitea, eta helburuei lotutako jomuga eta adierazleak ezartzea, nazio bakoitzari dagozkion egoerak, gaitasunak eta lehentasunak kontuan hartuta.

251. Baiesten dugu premiazkoa dela garapen iraunkorrari buruzko informazio globala, integratua, eta oinarri zientifikoa duena eskura izatea. Ildo horretan, Nazio Batuen sistemako dagozkion organoei eskatzen diegu batzorde ekonomikoari laguntza eman diezaietela, bakoitzari dagokion agintearen esparruan, eskualdeko nazioen ekarpenak biltzeko eta

pilatzen, mundu-mailako ahalegin bat gauzatu dadin. Gainera, helburu hori lortzeko, finantza-baliabideak mobilizatzeko eta gaitasunak garatzeko konpromisoa hartzen dugu; bereziki garapen-bidean dauden herrialdeentzat.

VI. Gauzatze-baliabideak

252. Berresten dugu 21 Programan, 21 Programa gauzatzeko ondorengo planean, Johannesburgeko Erabakiak Aplikatzeko Planean, Garapenerako Finantziario buruzko Nazioarteko Konferentziako Monterreyko Hitzarmenean, eta Garapenerako Finantziario buruzko Dohako Adierazpenean adierazitako bitartekoak ezinbestekoak direla garapen iraunkorreko konpromisoak bete-betean eta eraginkortasunez bihur daitezzen garapen iraunkorreko emaitza nabari. Berresten dugu herrialde bakoitzak bere gain hartu behar duela bere garapen ekonomikoaren eta sozialaren ardura nagusia, eta behin eta berriz azpimarratu behar dela politika nazionalak, barne-baliabideak eta garapen-estrategiek betetzen duten zereginaren garrantzia. Berresten dugu garapen-bidean dauden herrialdeak garapen iraunkorrerako baliabide gehigarriak behar dituztela. Berresten dugu ezinbestekoa dela hainbat iturritako baliabideen mobilizazioa lortzea eta funtsen erabilera eraginkorra bermatzea, garapen iraunkorra sustatzea helburu hartuta. Baiesten dugu gobernantza egokia eta zuzenbide-estatua funtsezkoak direla, nazio- eta nazioarte-mailan, hazkunde ekonomiko jarraitu, inklusibo eta bidezko bat, garapen iraunkorra, eta pobrezia eta gosea desagerraraztea lortzeko.

A. Finantziarioa

253. Herrialde guztiei aholkatzen diegu garapen iraunkorrari lehentasuna emateko baliabideak esleitzeko garaian, nazio bakoitzaren lehentasun eta premiak aintzat hartuta, eta baiesten dugu garrantzi handikoa dela iturri guztietatik datorren finantza-babesa areagotzea herrialde guztien garapen iraunkorrerako; bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetan. Baiesten dugu garrantzitsuak direla nazioarte-, eskualde- eta nazio-mailako finantza-mekanismoak, azpinazio- eta toki-mailako aginteen eskura daudenak barne hartuta, garapen iraunkorreko programak abian jartzeko, eta eskatzen dugu haiek sendotzeko eta abian jartzeko. Elkarte berriak eta finantziario-iturri berritzaileak garapen iraunkorraren finantziario-iturrien osagarri izan daitezke. Aholkatzen dugu baliabide horiek aztertzen eta erabiltzen jarraitzeko, gauzatzeko ohiko baliabideekin batera.

254. Baiesten dugu behar-beharrezkoa dela zenbait iturritatik datozen hainbat baliabide mobilizatzea eta funtsak eraginkortasunez erabiltzea, garapen-bidean dauden herrialdeei laguntza irmoa emate aldera, garapen iraunkorra sustatzeko ahaleginean, Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren emaitzen arabera, eta orobat garapen iraunkorra lortzeko helburuak bete daitezzen.

255. Adostu dugu gobernuarteko prozesu bat ezartzea, Batzar Nagusiaren babespean; horretarako, Nazio Batuen sistemaren laguntza tekniko baliatuko da, eta kontsulta zabal eta irekiak egingo dira nazioarte- eta eskualde-mailako dagozkion finantza-erakundeekin eta beste interesdun batzuekin. Prozesuak finantza-premiak ebaluatuko ditu; lehendik dauden tresna eta esparruen eraginkortasuna, koherentzia eta sinergiak aintzat hartuko ditu, eta ekimen gehigarriak ebaluatuko ditu. Horri esker, garapen iraunkorra finantzatzeko estrategia eraginkorrerako aukerak proposatuko ditu, eta, era horretan, baliabideak mobilizatzea bideratuko du, eraginkortasunez balia daitezen garapen iraunkorreko helburuak lortzeko bidean.

256. Gobernuarteko batzorde batek jarriko du abian prozesu hori. Eskualde-taldeek izendatutako 30 ordezkari osatuko dute batzordea, ordezkari georafiko bidezko bat izatea oinarri hartuta, eta 2014an amaituko dituzte beren zereginak.

257. Batzar Nagusiari eskatzen diogu gobernuarteko batzordearen txostena aztertzeko eta dagozkion neurriak hartzeko.

258. Baiesten dugu funtsezkoa dela Garapenerako Laguntza Ofizialari lotutako konpromiso guztiak errespetatzea; esate baterako, herrialde garatu askok konpromisoa hartu dute 2015erako nazio-produktu gordinaren (NPG) % 0,7 ematea garapen-bidean dauden herrialdeentzako Garapenerako Laguntza Ofizialerako, eta, bestalde, aipatu beharra dago helburuetako bat dela NPGren % 0,15etik % 0,20ra bitarteko laguntza ematea gutxien aurreratuta dauden herrialdeei. Adostutako egutegia betetzeko, herrialde emaitzeak beharrezkoak eta egokiak diren neurri guztiak hartu beharko dituzte, laguntzarako gehitu beharreko kopuruak emateko, egungo konpromisoak betetzea helburu hartuta. Erabaki hori oraindik hartu ez duten herrialde garatuei eskatzen diegu ahalegin zehatz gehiago egin ditzatela NPGren % 0,7 garapen-bidean dauden herrialdeentzako Garapenerako Laguntza Ofizialari emateko, gutxien aurreratuta dauden herrialdeei NPGren % 0,15etik % 0,20ra bitarteko laguntza emateko berariazko helburua barne hartuta, konpromisoen arabera. Garapenerako Laguntza Ofiziala eraginkortasunez erabiltzen dela bermatzeko zereginen egindako aurrerabideaz baliatzeko, azpimarratzen dugu garrantzitsua dela gobernantza demokratikoa, gardentasuna areagotzea, kontuak ematea, eta kudeaketa emaitzetara bideratzea. Emaitze guztiei arren eskatzen diegu egutegi seinalagarri mugikorrek lehenbailehen egin ditzatela, helburuak nola lortuko dituzten adierazteko, bakoitzaren aurrekontu-izendapenerako prozesuen arabera. Azpimarratzen dugu garrantzitsua dela herrialde garatuetan laguntza nazional handiagoa mobilizatzea konpromisoak betetzeko; esate baterako, sentsibilizazio publikoaren bitartez, laguntzak garapenean duen eraginari buruzko datuak emanez eta emaitza nabariak erakutsiz.

259. Atseginez hartzen dugu Garapenerako Laguntza Ofizialaren kalitatea hobetzea eta garapenean duten eragina areagotzea helburu duten ekimenak ugaritu izana. Halaber, baiesten dugu garapen-jarduerak badituztela zenbait premia: eraginkortasuna hobetzea, programetan oinarritutako ikuspegi gehiago aplikatzea, sistema nazionalak erabiltzea

sektore publikoak kudeatutako jardueretarako, transakzio-gastuak murriztea, eta elkarri kontuak ematea eta gardentasuna hobetzea. Ildo horretan, emaille guztiei eskatzen diegu laguntza ahalik eta gehien lokabetzeko. Garapena eraginkorragoa eta aurreikusteko modukoa izango da garapen-bidean dauden herrialdeei aldi behingo informazioa emanez gero, epe ertainera aurreikusitako laguntza adierazita. Baiesten dugu garrantzitsuak direla garapen-bidean dauden herrialdeen ekimenak, beren garapenaren noranzkoa sendotzen baitute, eta herrialde horietako erakunde, sistema eta gaitasunak indartzen baitituzte, garapen eraginkorraren emaitza hoberenak bermatzea helburu hartuta. Era berean, politika horiek parlamentuekin eta herritarrekin lankidetzan erutzen dira, eta gizarte zibileko erakundeekiko trukeak areagotzen. Halaber, kontuan izan behar dugu ez dagoela formula aldaezinik, garapen-jardueren eraginkortasuna bermatzen duenik. Herrialde bakoitzaren berariazko egoera oso kontuan hartu behar da.

260. Ikusten dugu laguntzaren egitura nabarmen aldatu dela oraingo hamarkadan. Laguntza-emaille berriak eta elkartze-ikuspegi berritzaileak daude, lankidetzaren modalitate berriak baliatzen dituztenak, eta baliabideak areagotzen lagundu dute. Gainera, garapenerako laguntzak inbertsio pribatuekin, merkataritzarekin, eta garapen-eragile berriekekin dituen interakzioek baliabide pribatuak mobilizatzeko aukera berriak ematen dituzte. Berriz ere gure babesaren adierazi nahi diogu Hegoa-Hegoa lankidetzari, baita hiruko elkarlanari ere, oso beharrezkoak diren baliabide gehigarriak jartzen baitituzte garapen-programak gauzatzeko. Hegoa-Hegoa lankidetzaren garrantzia, desberdintasun historikoak eta berezitasunak baiesten ditugu, eta azpimarratzen dugu lankidetzaren hori esperientzia eta helburu komunak dituzten herrialdeen arteko solidaritatearen eta elkarlanaren adierazpena dela. Garapen-bidean dauden herrialdeen premia eta itxaropen bereziei arreta ematen dieten garapen-programak babesten dituzte bi lankidetzaren moduek. Halaber, baiesten dugu Hegoa-Hegoa lankidetzaren osagarria dela, eta ez duela Iparra-Hegoa lankidetzaren ordezkatzeko. Baiesten dugu garapen-bidean dauden eta diru-sarrera ertainak dituzten herrialdeen eginkizuna, garapenerako lankidetzaren emaille eta hartzaile baitira.

261. Nazioarteko finantza-erakundeek eskatzen diegu jarrai dezatela beren aginte barruan finantza-baliabideak ematen, are garapen-bidean dauden herrialdeetan ere, garapen iraunkorra sustatzeko eta pobrezia desagerrarazteko berariazko mekanismoen bidez.

262. Baiesten dugu, halaber, funtsezkoa dela garapen iraunkorrari lotutako finantziario-mekanismo eta -ekimenen koherentzia eta koordinazioa areagotzea. Berriz diogu garrantzi handikoa dela garapen-bidean dauden herrialdeek era egonkorrean eta aurrez ikusteko moduan eskura izatea garapen iraunkorra sustatzeko iturri guztien finantziario egokia.

263. Baiesten dugu mundu-mailako egungo erronka finantzario eta ekonomiko larriek arriskuan jartzen dutela urtetan egindako lan gogorra eta garapen-bidean dauden herrialdeen zorraren alorrean egindako aurrerabideak. Baiesten dugu, halaber, garapen-bidean dauden

herrialdeek laguntza behar dutela epe luzera bermatzeko zorrari eutsiko diotela; betiere, zorra finantzatzea, arintzea eta berregituratzea sustatzeko politika koordinatuen bidez, egoki denaren arabera.

264. Azpimarratzen dugu Nazio Batuen garapenerako sistemaren eragiketa-jarduerek finantziario egokia behar dutela. Halaber, finantziario eraginkorragoa, efizienteagoa eta aurreikusteko modukoa behar dute; izan ere, baliabide berriak, gehigarriak eta aurrez jakiteko modukoak mobilizatzeko ahalegin handiago batzuen zati da finantziarioa (betiere, amaierako dokumentu honetan adierazitako helburuak betetzeko).

265. Baiesten dugu Ingurumenerako Mundu Funtsak aurrerabide garrantzitsuak lortu dituela azken 20 urteotan ingurumen-proiektuen finantziarioan, eta atseginez hartzen ditugu Funtsak azken urteotan egin dituen erreforma-prozesu garrantzitsuak. Bide horretan jarraitzeko eskatzen diogu, eta neurri gehigarriak hartzeko, dagokion agintearen esparruan, baliabideak eskuragarriagoak izan daitezen, eta, betiere, herrialdeen premiak asetzeko eta nazioarteko ingurumen-konpromisoak nazio-mailan betetzeko. Babesten dugu garapen-bidean dauden herrialdeentzako laguntza eta prozedura sinplifikatzen jarraitzea; bereziki, gutxien aurreratuta dauden herrialdeei, Afrikari eta garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiei Funtseko baliabideak eskuratzen laguntzeari dagokionez. Halaber, babesten dugu ingurumenaren aldetik iraunkorra den garapena ardatz hartzen duten beste tresna eta programa batzuekiko koordinazioa areagotzea.

266. Azpimarratzen dugu ustelkeriaren eta legez kontrako finantzen aurkako borrokak lehentasuna duela, bai nazio-mailan, bai nazioartean, ustelkeria eragozpen handia baita baliabideak mobilizatzeko eta eraginkorki esleitzeko. Haren eraginez, pobrezia desagerrarazteko, goseari aurre egiteko eta garapen iraunkorra bultzatzeko funtsezkoak diren baliabideak desbideratzen dira. Ustelkeriaren aurkako borrokan jarraitzeko urgentziazko neurriak hartzea erabaki dugu. Horretarako erakunde sendoak behar dira, maila guztietan, eta Ustelkeriaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioa oraindik berretsi ez duten estatuei eskatzen diegu azter dezatela eta aplikatzen has daitezela Konbentzioa berresteko edo hari atxikitzeo aukera.

267. Gure ustez, finantziario-mekanismo berritzaileek garapen bidean dauden herrialdeei lagundu diezaiekete garapena finantzatzeko borondatezko baliabide gehigarriak mobilizatzen. Finantziario horrek ohiko finantziario-iturrien osagarri izan behar du, eta ez ditu ordezkatu behar. Finantziario-iturri berritzaileen alorrean egindako aurrerabide nabarmenak baiesten baditugu ere, egungo ekimenak zabaltzeko eskatzen dugu, egoki denaren arabera.

268. Baiesten dugu sektore pribatu dinamiko eta inklusibo bat, ondo funtzionatzen duena, eta gizartearen eta ingurumenaren aldetik arduratsua dena, oso tresna baliotsua dela, eta erabakigarriki lagundu dezakeela hazkunde ekonomikoan, pobrezia desagerrarazten eta garapen iraunkorra sustatzen. Sektore pribatuaren garapena sustatzea helburu hartuta, araugintza- eta legegintza-esparru egokiak aplikatzen jarraituko dugu

nazio-mailan, lege nazionalen arabera, ekimen publiko eta pribatuak bultzatzeko, baita toki-esparruan ere, enpresa-sektore dinamiko eta efizientea sustatzeko, eta emakumeen, pobreen eta talde zaurgarrietan enpresa-espirtua eta berrikuntza bideratzeko. Lanean jardungo dugu hazkundea eta diru-sarreraren banaketa hobetzeko, bitarteko hauen bidez, besteak beste: produktibitatea areagotzea, emakumeen ahalduntzea, eta lan-eskubideak eta zerga-sistema babestea. Sektorre pribatua sustatzeari eta arautzeari dagokionez, baiesten dugu gobernuen funtzio egokia desberdina izango dela herrialde bakoitzean, nazioaren egoeraren arabera.

B. Teknologia

269. Azpimarratzen dugu garrantzitsua dela garapen-bidean dauden herrialdeei teknologia transferitzea, eta gogora ekartzen ditugu Johannesburgeko Erabakiak Aplikatzeko Planean teknologia-transferentziari, finantziarioari, informazioa eskuratzeari eta jabego intelektualaren eskubideei buruz adostutako xedapenak –zehazki, ingurumenaren aldetik arrazoizkoak diren teknologiak eta dagozkien ezagutza espezializatuak eskura izatea sustatzeko, bideratzeko eta finantzatzeko eskaera–, baita haien garapena, transferentzia eta hedapena ere; bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan eta trantsizio-ekonomiak dituzten herrialdeetan. Betiere, baldintza onuragarrietan jardun behar dugu, baldintza mesedegarriak eta lehentasunezkoak aintzat hartuta, elkarrekin adostutakoari jarraituz. Halaber, gogoan hartzen dugu zer bilakaera izan den, Aplikatzeko Plana abian jarri zenetik, gai horiei buruzko eztabaida eta akordioetan.

270. Azpimarratzen dugu garrantzitsua dela herrialde guztiek eskura izatea ingurumenaren aldetik zentzuzkoak diren teknologiak, ezagutza berriak eta ezagutza tekniko eta espezializatuak. Halaber, nabarmentzen dugu lankidetzak garrantzia duela teknologiaren alorreko berrikuntzan, ikerkuntzan eta garapenean. Erabaki dugu dagozkion foroetan modalitateak aztertzea, garapen-bidean dauden herrialdeek eskuragarriago izan ditzaten ingurumenaren aldetik zentzuzkoak diren teknologiak.

271. Azpimarratzen dugu premiazkoa dela ingurune egokiak sortzea ingurumenaren aldetik arrazoizkoak diren teknologiak garatzeko, egokitzeko, hedatzeko eta transferitzeko. Testuinguru horretan, ikusten dugu atzerriko inbertsio zuzenak, nazioarteko merkataritza, eta nazioarteko lankidetzak garrantzi handikoak direla ingurumenaren aldetik zentzuzkoak diren teknologiak transferitzeko. Konpromisoa hartzen dugu zientzian, berrikuntzan eta teknologian inbertsioak egitea sustatzeko, garapen iraunkorrari begira, bai gure herrialdeetan, bai nazioarteko lankidetzaren bidez.

272. Baiesten dugu garapen iraunkorrerako garrantzitsua dela gaitasun zientifiko eta teknologiko nazionala sendotzea. Horrek lagundu diezaike herrialdeei –batez ere, garapen-bidean dauden herrialdeei– berariazko

konponbide berritzaileak, ikerketa zientifikoak eta ingurumenaren aldetik zentzuzkoak diren teknologia berriak sortzen, nazioarteko komunitatearen babesean. Helburu hori lortzeko, gaitasun zientifikoaren eta teknologiaren garapena bultzatzen dugu; gizonen nahiz emakumeen ekarpenekin eraikiko da garapen hori, gizon-emakumeen onurarako, ikerketa-erakundeen, unibertsitateen, sektore pribatuaren, gobernuen, gobernuz kanpoko erakundeen eta zientzialarien arteko lankidetzaren bidez.

273. Nazio Batuetako dagozkion erakundeei eskatzen diegu aukerak eman ditzatela bideratze-mekanismo bat sortzeko, ingurumenaren aldetik zentzuzkoak diren teknologia garbiak garatzea, transferitzea eta hedatzea sustatuko duena. Horretarako ebaluatu behar dira, besteak beste, garapen-bidean dauden herrialdeen premia teknologikoak, premia horiek asetzeko aukerak, eta gaitasuna sortzea. Idazkari nagusiari eskatzen diogu, adierazitako aukerak oinarri hartuta, eta gaur egungo ereduak kontuan izanik, bideratze-mekanismoari buruzko gomendioak eman diezazkiola Batzar Nagusiari, hirurogeita zazpigarren bilkura-aldian.

274. Baiesten dugu garrantzitsuak direla teknologia espazialean, tokian tokiko ikuskatzeetan eta informazio geoespazial fidagarrian oinarritutako datuak, garapen iraunkorra lortzeko politika, programazio eta proiektu-eragiketak egiteari begira. Testuinguru horretan, munduko kartografiaren garrantziaz ohartzen gara, eta baiesten ditugu ingurumena behatzeko mundu-sistemak garatzeari begira egindako ahaleginak; adibidez, Eye on Earth informazio-sareak egindakoak, eta Lurra Behatzeko Sistemak Sistema Mundialaren bidez egindakoak. Baiesten dugu garapen-bidean dauden herrialdeei sostengua eman behar zaiela, ingurumenari buruzko datuak biltzeko ahaleginean.

275. Baiesten dugu garrantzitsua dela nazioarte-, eskualde-, eta nazio-mailako gaitasunak sendotzea ikerketen eta teknologien ebaluazioan; batez ere, garapena oso azkarra delako eta teknologia berriak sor daitezkeelako, eta baliteke teknologia berri horiek aurreikusi gabeko ondorio kaltegarriak eragitea –bereziki, bioaniztasunean eta osasunean–, edo aurreikusi gabeko beste eragin batzuk izatea.

276. Baiesten dugu premiazkoa dela garapen iraunkorrari buruzko gaietan oinarritutako arau-erabakiak hartzeko bidea erraztea, eta, ildo horretan, premiazkoa dela zientziaren eta politiken arteko lotura sendotzea.

C. Gaitasuna sortzea

277. Nabarmentzen dugu premiazkoa dela garapen iraunkorrerako gaitasun handiagoa sortzea, eta, horren haritik, lankidetzak tekniko eta zientifikoak sendotzeko eskatzen dugu, Iparra-Hegoa eta Hegoa-Hegoa lankidetzak eta hiruko elkarlana barne hartuta. Berriro diogu giza baliabideen garapena garrantzitsua dela; prestakuntza, esperientzien eta ezagutzen trukea, ezagutzen transferentzia, eta gaitasuna sortzeko laguntza teknikoa barne hartuta. Horrek erakunde-gaitasuna sendotzea dakar, planifikatzeko, kudeatzeko eta ikuskatzeko gaitasunak barne hartuta.

278. Eskatzen dugu Baliko Plan Estrategikoa, NBIPEk onetsia eta laguntza teknologikoa ematea eta gaitasuna sortzea helburu duena, etengabe gauzatzea eta ondo fokatzea.

279. Gizon-emakume zientzialari eta ikertzaileek, herrialde garatuetakoek nahiz garapen bidean dauden herrialdeetakoek, ingurumenaren eta garapen iraunkorraren mundu-mailako ebaluazioarekin eta jarraipenarekin lotutako prozesuetan parte hartzea sustatzen dugu, nazio-gaitasunak sendotzea eta erabakiak hartzeko eta politikak prestatzeko prozesuei buruzko ikerketaren kalitatea areagotzea helburu hartuta.

280. Nazio Batuen sistemaren barruan dagozkion erakunde guztiei eta nazioarteko dagozkion beste erakunde batzuei eskatzen diegu garapen-bidean dauden herrialdeei laguntzeko –bereziki, gutxien aurreratuta dauden herrialdeei–, baliabideak efizientziaz aprobetxatzen dituzten ekonomia inklusiboak garatzeko gaitasuna sor dezaten. Ekonomia inklusibo horietan, bitarteko hauek erabiliko dira:

- a) Iraunkortasuna bideratzen duten jardunbideen trukea zenbait sektore ekonomikotan.
- b) Ezagutzak hobetzea, eta hondamendi-arriskuen murriztea eta erresilientzia garapen-planetan integratzeko gaitasuna.
- c) Iparra-Hegoa eta Hegoa-Hegoa lankidetzak eta hiruko elkarlana babestea, baliabideak eraginkortasunez aprobetxatzen dituen ekonomia baterako trantsizioa bideratzeko.
- d) Sektore publiko eta pribatuen arteko elkartzeak sustatzea.

D. Merkataritza

281. Berresten dugu nazioarteko merkataritzak garapena eta hazkunde ekonomiko jarraitua bultzatzen dituela; halaber, berresten dugu funtsezko zeregina bete dezakeela merkataritza-sistema multilateral unibertsal, arautu, ez-diskriminatzaile eta bidezko batek, edota merkataritzaren liberalizazio koherente batek, hazkunde ekonomikoa eta garapena mundu osoan bultzatzeari begira. Horrek onurak dakarzkie herrialde guztiei, garapen iraunkorrerako bidean edozein urratsetan egonda ere. Testuinguru horretan, gure ahaleginen ardatza da aurrerabideak egitea gai garrantzitsu batzuen tratamenduan, hala nola merkataritza desorekatzen duten diru-laguntzak, eta ingurumenaren alorreko ondasun eta zerbitzuak salerostea.

282. MMAko kideei eskatzen diegu ahalegin handiagoak egin ditzatela Garapenerako Dohako Programaren asmo handiko ondorio orekatu eta garapenera bideratu bat lortzeko, aldi berean gardentasunaren, inklusioaren eta erabaki-hartze adostuen printzipioei eutsiz, merkataritza-sistema multilateral sendotzea helburu hartuta MMAren lan-programan eraginkortasunez parte hartzeko eta merkataritza-aukerak bete-betean

aprobetxatzeko, garapen-bidean dauden herrialdeek dagokien interesdun guztien laguntza eta lankidetzaz handiagoa behar dute.

E. Konpromisoen erregistroa

283. Atseginez hartzen ditugu Garapen Iraunkorrerako Nazio Batuen Konferentzian eta 2012an interesdunek eta haien sareek borondatez hartutako konpromisoak, garapen iraunkorra sustatzea eta pobrezia desagerraraztea helburu duten politika, plan, programa, neurri eta proiektu zehatzak abian jartzeko. Idazkari nagusiari eskatzen diogu konpromiso horiek biltzeko eta antzeko erregistroak eskura jartzeko Interneteko erregistro batean. Konpromisoei buruzko informazioak guztiz gardena izan behar du, publikoaren eskura egongo da, eta aldi berean behin eguneratu behar da.